

# BURUJABE



**Gure bizi baldintzak berreskuratuz**



# **BURUJABE**

## **Gure bizi baldintzak berreskuratuz**

### **Aitzinsolasa**

2018ko urte hastapenaz geroz, lan bat abiatu dugu, Bizi!-ren baitan, lurralde burujabe, jasangarri eta solidario baten egitasmoa idazteko. Pentsatzen dugu eztabaida orokorrerako ekarpen baliagarria izan daitekeela: Euskal Herrian, bistan dena, baina baita eraldaketa soziala eta ekologikoa hasi nahi duten lurralde guzientzat ere. Ekarpen teorikoa da, argitaratzen ohi ditugun testuez bestelakoa eta usaian baino konplexuagoa, nahi ala ez.

Proiektu orokor bat idatzi nahi genuen, Bizi!-n eta beste egituretan egunero obratzen ditugun engaiamenduen iparrorratz gisa baliatzeko. Proiektu horrek lagundu behar gaitu gure kanpainak eta gure ekintzak bideratzen, ikuspegi orokor batekin, ulergarriak izan daitezen.

Esku artean duzun dokumentua lan horren lehen emaitza da. Gure iduriko, ez da zerbaiten bukaera, zerbaiten hastapena baizik. Ongi dakigu osatugabea dela eta galdera batzuk erantzunik gabe uzten dituela.

Gai horren inguruko lana, gogoetak eta eztabaidak segituko ditugu; egingen dizkiguzuen oharrez, erantzunez, kritikez eta proposamenez aberastuko dira. Beraz, ez duda, idatziezaguzue, testu honi buruzko oharra egiteko.

Hemen, xumeki, Euskal Herria Burujabera buruzko trantsizio bideak pentsatzen hastera entseatu gara; Euskal Herri burujabe, jasangarri eta solidario batera buruz joateko.

Gau egun, burujabe hitza erabiltzen dute hala jende ahulenen elkartasunezko elikadura-burujabetasunaren aldekoek nola herri bakoitza bere baitan hetsirik egotearen aldeko indar erreakzionarioek - errealitatekin kanpoko ikuspegi berekoi batekin -. Beraz, «Gure bizi baldintzak berreskuratuz» izenburua duen lehen partean, kontzeptu horri ematen diogun erran-nahia argitu nahi izan dugu. Dena suntsitzen duen globalizazio kapitalistaren parean, gure lurraldeetan berriz finkatu nahi dugu, hori baita, gure ustez, mende honetan dauzkagun planeta mailako desafio handiei molde iraunkorrean erantzuteko bide bakarra.

Bizi! mugimendua Ipar Euskal Herrian finkatua baita eta egunerokotasunean Ipar Euskal Herrian lan egiten baitu, ez da harrizkoa erreferentzia zehatzenak Euskal Herriaren parte horri buruzkoak izatea, nahiz eta dokumentu horrek Euskal Herria bere osotasunean hunkitzen duen.

Irakurketa on!

2018ko irailaren 20a

**Bizi!-ren Koordinaketa**

(Harremana: [info@bizimugi.eu](mailto:info@bizimugi.eu))

# Gure bizi baldintzak berreskuratuz

## *A- Lurretik deslotua den sistema*

Kapitalismo globalizatuarekin espero ziren aurrerapen ilusioak airatu dira. Zenbait hamarkadatan gure gizartearen industrializazio masiboa gertatu ondotik, eta horren ordain humano eta ekologikoa pairatzen hasten garela, ohartzen ari gara belaunaldi berriak ez direla beren burasoak bezain ongi biziko<sup>1</sup>: gogorrago lan eginen dute gutxiago irabazteko, gero eta gazteago minbiziak garatzen dituzte<sup>2</sup>, etxebizitza bat nekez aurkitzeaz gain, gero eta toki gutiago uzten duen sisteman gero eta zailagoa zaie beren tokia aurkitzea. Ekonomiak, lanposturik aurkitzen badute, lanpostu prekarioen arabera tokiz aldatzera behartzen ditu. Aberatsen dirutza handitzen den bitartean, gabezia berriz zabaltzen hasi da, sortzen dituen eritasunekin (tuberkulosia, eskorbutoa<sup>3</sup>), baita airearen eta uraren kutsadurak sorturiko eritasunak ere. Azken urteetan klima nahasiagoa bihurtzen ikusi dugu, lehortea ugartuz, euri isolak edo berote handiak emendatuz. Eta bizitza duin baten gutieneko baldintzak desagertu diren tokietan, ehunka mila pertsona ihesi doaz eta erbesteratzen ahalegintzen dira gure latitudeetara buruz. Haietarik askok bizitza galtzen dute Europaren atarian, ibilbide zuzengabe eta jasanezin honetan, gehiagotan entzuten dugularik haien harreraren balizko kostuz, zerga ihesarenaz baino.

### *Hazkuntzaren tiranokeria*

Globalizazio honek adierazle bakarra du: hazkuntza. Hor sartzen dituzte karbono fosilaren ateratzea, baita han edo hemen kutsadura, eritasunak edo heriotza alboko kalte dituzten jardura gehienak. Bizia suntsitzen duena positibotzat kontatua da. Bizia berritzen duena, aldiz, ez da kontuan hartua, zangopilatua da, bizia berritzen duena ez baita erreazki zenbatzen ahal: bizi osoaren energia ematen duen eguzkia, ureztatzen duen euria, arnasten dugun aire garbia, klima epeltzen duten eta gure etxeak eraikitzeke eta berotzekoa ematen diguten oihanak, elikatzen eta janzen gaituzten landareak, haiek ugaltzen laguntzen dituzten intsektuak, lurzoruaren emankortasuna bermatzen duten animalia eta onddoak. Eta zenbatzen ahal denari dagokionez, merkataritzaren logika berbera zabaltzen zaio: karbonoaren merkatua, genomen patentatzea, izadiaren finantzaratzea.

Planetan kopuru mugatutan dauden baliabide naturalak – mineralak, erregai fosilak, gai berriztagarrien berriztatze abiadura, edota gure zaborren irensteko biosferak duen gaitasuna – ikusten ez bagenu bezala ari gara. Milaka urtetan erresilientzia garatu duten ekosistemei ez diegu kasurik egiten, alta guk baino eraginkorragoak dira energia eta ura erabiltzen, zaborrik sortu gabe. Bizitza, etengabe hobetu daitekeen makina konbinaketa bat dela pe,tsatzera helduak gara. Transgenesia, transhumanismoa eta geoingeniaritzaren bidez prestatzen ari diren munduan, bultzatu edo kalibratu ezin denari, aurreikusi ez denari, akastunari, ezberdinari, ez zaie tokirik gelditzen. Biosferaren parte diren espezieetarik bat garela, eta gure biziraupena horren menpe dela, tematsuki ulertu nahi ez dugun bitartean, bioaniztasunaren 6. desagertzen handia eragiten ari gara. Gure zelai eta oihanak gero eta

1 Joera berri hori dokumentatua izaten hasten da instituzio mailan <https://www.tdg.ch/vivre/societe/jeunes-vivront-parents/story/30886217>

[https://www.lemonde.fr/les-decodeurs/article/2017/09/22/temps-de-travail-chomage-precarite-qui-a-change-en-une-generation\\_5189897\\_4355770.html#huit-anchor-le-temps-de-travail-](https://www.lemonde.fr/les-decodeurs/article/2017/09/22/temps-de-travail-chomage-precarite-qui-a-change-en-une-generation_5189897_4355770.html#huit-anchor-le-temps-de-travail)

[https://www.inegalites.fr/Les-inegalites-de-niveau-de-vie-selon-l-age?id\\_theme=21](https://www.inegalites.fr/Les-inegalites-de-niveau-de-vie-selon-l-age?id_theme=21)

2 <https://www.francesoir.fr/societe-sante/cancer-hausse-inquietante-dans-plusieurs-tranches-dage-notamment-chez-les-jeunes>

[http://www.artca.info/fr/prevention/prevention-environnementale/l-origine-environnementale-des-cancers\\_000126.html](http://www.artca.info/fr/prevention/prevention-environnementale/l-origine-environnementale-des-cancers_000126.html)

3 «Les maladies d'autrefois font leur retour» <https://www.france24.com/fr/20180829-france-maladies-vaccins-rougeole-tuberculose-gale-scorbut-retour>

hutsagoak, intsektu eta txoririk gabe, zizareek - lurreko animalien lehen biomasa eta elikadura ekoizpen iraunkor baten bermatzaile - soroetan sei edo zazpi hamarkadatan haien biomasaren % 90 galdu dute<sup>4</sup>.

Gure bizitzetan joera berbera gauzatzen da, horiek ere kalibratu eta bultzatu behar direlarik, haurtzarotik: eskolan helburuak bete, agindu bezala portatu, lanean eraginkor, goi-mailako gorputz kondizioa, harremanetan eta diru kontuetan arrakasta. Gure buruak robot gisa tratatzen ditugu, eta horrez gain bertzei ere frogatu behar diegu bizia arrakastatsu eta gutiziagarria dugula. Hor ere, akastuna, ezberdina, arauen arabera ez dena, ahultasuna, eritasuna, zahartasuna, arrakasta-eza, denak laster zuzendu behar ditugu, edo bertzela ezkutatu. Ekonomian ekoizten ez dutenak mespretxatzeraino heldu gara, baita gure biziraupenarentzat kezkatzeraino ere, guk geuk ez badugu aski ekoizten.

### *Jendetasuna galdu duen gizartea*

Errentagarritasuna denetan izanik, ahanzten dugu giza harreman batzuk ez direla lehian oinarritzen, edota behar ez bezalakoaren kanporatzean. Gainera, harreman horiek ez dira salgai. Haurrak zaindu eta hezi, adiskideen arteko laguntza edo auzolana, zaharrak edo eri daudenak zaintzea... egintza horien bidez, elkarrekin duintasunez bizitzen ahal gara, eta ez elkarren etsai. Beharrezko egintza horiek, kasu gehienetan eremu domestikoan emazteen esku direnak, begirune oso guti eskuratzen ohi dute. Halere, lan hori bizitzaren berriztapena eta atxikitzearentzat ezinbertzekoa da, izaki hauskor eta elkarren menekoak baikara. Gure bizitza osoan zehar (haurtzaroan, zahartzaroan, eritasunean edo bertzelako meneko egoeretan) bertzeek eskaintzen diguten zaintza eta denbora beharrezkoa zaigu. Zaintza eta elkar laguntzako lotura horiek desagertzen direnean, sistemak ezin du gehiago ibili. Jendeen arteko eta gizarte-harreman horiek ez dira errazki salgai ezartzen ere: desagertzen diren unetik, ordainpeko ordezkoez ez dituzte zinez ordezkutzen. Berdin, ondasun amankomunak dauden tokietan, pribatizazioa beti da erabiltzaileen kalterako, bai uraren, herriko lurren, etxebizitza kolektiboaren, energiaren edota zerbitzu publikoen kasuan.

Ahanzten dugu kolektiboki bizi eta erabakitzen ahal dugula, gure inguruan, gure auzoan edo udalerrian. Erabakitze guneak gugandik gero eta urrunago ditugu, eskapatzen zaizkigu. Ez dakigu gehiago zergatik eta zertarako bozkatzen dugun. "Iritzi publikoak" ez daki gehiago zer pentsa: hedabideetatik moldatua da, eta gero eta zailagoa zaio egia eta bere iruzurrezko bertsioa ezberdintzea. Eztabaida demokratikoa ahantziz, elkarbizitzaren erranahia eta memoria kolektiboa galduz, truka daitezkeen gizabanakoak bilakatzen gara, erro eta ikuspeirik gabe, gure jendetasuna galduz, bertzearen gizatasuna ulertzeko ahalmena galtzen dugun era berean.

### *Ezinezko aitzinerako ihesa*

Mundua ulertzen laguntzen gintuzten erreferentziak eta egitura sozialak desagertzen diren bitartean, kontsumo-gizartearen tentaldiak eta beti gehiago lan egiteko manuak biderkatzen dira ere, aberastasun tarteak izigarri emendatzen dira. Gutien bat aberasten da, bertzeen lanaren (gero eta prekarioago eta gaizkiago ordaindua) etekinari esker, alokairuei (gero eta garestiago eta baztertzailago) esker, eta burtsaren diru sorrera artifizialei esker. Munduko aberatsenen % 1en ondareak, gaurko egunez bertze % 99ena gainditu du, azken horien artean tarteak emendatuz doazela ere. Gainera, behartsuenak (emazteak, pobreak, Hegoko herrialdeak) dira globalizazioaren izugarritzko eragina pairatzen duten lehenak, aldiz horren ardura gutiena dute, eta horretara egokitzekeo baliabide urriak dituzte. 1972an Erromako Klubak<sup>5</sup> hazkundearen mugei buruz egin aurreikuspenak, gero eta zuzenagoak dira.

4 Marcel Bouché, des vers de terre et des hommes, 2017, Actes Sud

5 Gogoeta taldea, 52 herrialdeko zientzilaria, ekonomista, Estatu edo nazioarteko funtzionarioe osatua. Gizarte guziek (industrializatuek zein garapen bidean direnek) aurre egin beharko dieten arazoez

Klimaren nahasmenak segitzen du zalutzen eta larriagotzen, era arriskutsuan. COP21en karietara planetako Estatu guzietan onartu zuten Pariseko Hitzarmenak, beroketa +2°Cen azpitik mugatzeko helburua du (+1.5°C aipatua zen ere), atzera biderik ez duten klimaren erotze muga-mailak saihesteko. Alta, COP21 horren perspektiban 2015ean estatuek beren berotegi efektu gasen isuriketak murrizteko hartu zituzten engaiamenduek, mende bukaerarako +3.5°Cko beroketara bideratzen gaituzte zuzenean, eta hori, engaiamenduak % 100ean betetzen badituzte. Ekintza laster eta masibo bat martxan ezarri gabe, lur gainean bizi zibilizatu baten baldintzak kolokan ezartzen ditugu. Honek gaurko haur guztiak eta bizilekutzat izanen duten mundua zuzenean ukitzen ditu.

Aberatsen bizimodu jasanezina elikatzeko, herrialde pobreen lehengaiak lapurtzen eta xahutzen dituen sistema ekonomikoaren berotegi efektuko gasen isuriketen ondorioa da klima aldaketa. Beraien burua munduaren xilkotzat hartzen dutenen eremuetan (herri aberatsak, megahiriguneen auzoalde aberatsak), milioika auto ibilki dira, elikadura ekoizpenaren %18 xahutzen da<sup>6</sup>, eta egunero zabor mendiak ekoizten dira. Horren ordaina gosea eta kutsadura da, hedabideen lehen orrian gutitan agertzen diren periferietan.

Hazkunde eredu ekonomiko hori, biziaren berriztapena oztopatzerara eta ezinezko bilakatzeraino iritxi da. Gure bizi-baldintzez (klima, lurra, ura, airea, etxebizitza, elikadura, energia, historia, elkar antolakuntza) desjabetzen gaitu. Horietatik batzuen ordezkari ordainpeko petatxuak daude, bertze batzuk suntsituak eta ez kontuan hartuak dira. Halere, gure agintariak hazkundera jarraitzeko xedea dute, funtsean badakiten arren<sup>7</sup> hazkunde hori ez dugula berriz ikusiko. Konkretuki, dena gertatzen da pobreenak baztertzeko eta desagerrarazteko hautua egin balute bezala. Horrelako ikuspegi batean, biosferaren eta gizartearen gehiengo baten bizkar gutiengo batek aberasten jarrai dezan estrategia, enpresen eta kapitalaren eskubideak konstituzionalizatzea da. Enpresa handien boterearen zabaltzea, eskubide horien nagusitasunean oinarritzen da, jendeen eta ingurumenaren eskubideak baita eskubide sozial eta ekonomikoak ere bigarren mailara baztertzen direlarik. COP-21a bezalako hitzarmen ez hertsagarrien aurrean, belaunaldi berriko hitzarmenak (TTIP, CETA, EB-Japonia edo EB-Mercosur hitzarmenak bezala) kapitalaren interesak defendatzeko zinezko esteka-atorrak dira.

Globalizazioaren porrota sumaturik – bere baitatik salbatuko delakoan dagoen gutiengo batentzat izan ezik –, jende askok «lehengo» mundura eta bere mugetara itzuli nahiko luke; bizitza joriago, errazago eta ez hain mehatxagarriaren nostalgiak sustaturik. Zoritxarrez, gehiago existituko ez den mundu baten bila dabilta. Mende honetako giza- eta klima-erronkei erantzuteko, iraganera itzultzea ez da bali.

Alde batetik globalizazioa eta bertzaldetik norbere baitan hesiturik egotea, gu kontraktotasun tranpati honetatik kanpo kokatzen gara, bi bide horietatik bat ere ez baita fisikoki errealista, ez ekologikoki jasangarria, ezta sozialki zuzena ere. Eraikitzen hasi garen mundua biosferaren errealitatean kokatzen da, baita pertsonen eta herrien arteko harreman zuzen eta solidarioetan.

---

kezkatuak. <http://www.clubofrome.org>

6 ADEME, Pertes et gaspillages alimentaires : l'état des lieux et leur gestion par étapes de la chaîne alimentaire, 2016

7 Dennis Meadows : «La croissance mondiale va s'arrêter» [https://www.lemonde.fr/planete/article/2012/05/25/la-croissance-mondiale-va-s-arreter\\_1707352\\_3244.html](https://www.lemonde.fr/planete/article/2012/05/25/la-croissance-mondiale-va-s-arreter_1707352_3244.html) (2018/09/02an ikusia). Ikus ere [http://www.sd-commission.org.uk/publications/downloads/prosperity\\_without\\_growth\\_report.pdf](http://www.sd-commission.org.uk/publications/downloads/prosperity_without_growth_report.pdf) (2018/09/02an ikusia)

eta <https://www.les-crisis.fr/previsions-de-croissance/> (2018/09/02an ikusia)

## ***B- Gure helburua: lurralde burujabe, jasagarri eta solidarioa***

Denek bizitza duina lor dezaten, premiazkoa da logikaz aldatzea. Gure bizi-baldintzez birjabetzea baitezpadako premia da, lehenik sistema ekonomikoak gehien mehatxatzen dituenentzat: aterpe gabekoak, ama isolatuak, pertsona ezinduak, zaharrak, eskubideak bukatzen ari zaizkien langabeak, errefuxiatuak, langile pobreak, edo biziraupen ekonomikorako ezinbertzekoa bilakatu diren teknika eta kultura mailako ezagutzarik ez dutenak.

### *Gure bizi-baldintzez birjabetzea*

Gure bizi-baldintzek ez dute mugarik, klimarekin hasiz, gainontzeko guztia horren menpe baita. Gure bizi-baldintzak gure inguruan daude, gure etxeetan, gure baitan, gure lurraldea dira. Defendatu eta indartu behar ditugu gaur egun gure lurraldeak gu denak hartzeko eta elikatzeko gai izateko, baita gure ondotik ber lurralde honen parte izanen diren guztiak ere bai.

### *Gure bizi-baldintzez berjabetze hori da burujabetza deitzen duguna.*

Bere lurra eta atmosferarekin bat egiten duen lurralde batean bizi nahi dugu. Bere auzokideekiko elkartasunean, eta biziaren zaintza berriz lehentasunetan duen lurraldean. Dituen baliabideen mugetan kokatzen, eta klima aldaketan eta kutsadura orokorrean parte hartzetik gelditzen den lurralde soil bat. Jendearen neurriko lurralde bat, guztion bizi-baldintzak ziurtatzeko behar den burujabetza eraikitzen duena, elkarren menpekotasun harremanetan batzen gaituena eta lurraldearekin lotzen gaituena. Lurralde honetako gizarteak berma dezan emazte eta gizonen arteko zuzentasuna, erdigunean kokatu ditzan pertsonen beharrak, eta komunitateak pertsonen ongizatea eta zaintza berma ditzan, inplikatzeko duen lanari aitortza eginik eta gaurko lanaren genero-banaketa gainditurik<sup>8</sup>.

Xede unibertsal horiek gauzatuko dira lurraldeen aniztasuna eta horien berezitasun sozial, ekologiko, ekonomiko eta kulturalak kontuan hartuz. Bizitza eremu bakoitzera egokitutako moldeen arabera gure bizi-baldintzez jabetuko gara eta molde horiek elkarren artean inspiratuko eta indartuko dira.

### *Berriz konkistatu beharreko burujabetzak*

Euskal Herriko borroka sozial, ekologiko eta kulturaletan engaiatuak garen biztanle gisa, naturalki Euskal Herria hautatu dugu burujabetza horiek birkonkistatzeko.

- Elikadura burujabetza: Euskal Herriko laborantza, bertan bizi direnak elikatzeko gai bilakatzea eta egungo eta etorkizuneko klima gorabehereri erresiliente egitea; lurren artifizializatzearekin bukatzea; andaturiko lurrak sendaraztea; hiri inguruetan ahal diren guneak elikadura ekoiztera berresleitzea; ekoizpena eta kontsumoa birkonektatzea, ahal den era zuzen eta sendoenean, energia eta kanpoko ongari edo bazka beharrak nabarmenki apalagoak dituzten laborantza ereduak garatzea, ura eta lurra ondasun amankomun gisa berrezartzea.
- Energia burujabetza: gure beharrak berriz zehaztea, neurritasun eta zuzentasun gehiagorako. Euskal Herriko eguzki, haize eta erreketatik nagusiki etorriko den energiaren ekoizpen, banaketa eta erabilera moduak elkarrekin erabakiz.
- Etxebizitza burujabetza: etxebizitza duin eta eskuragarri bat izateko eskubidea, bi

---

8 Silvia Federici, «Caliban et la Socière», Entreonde, 2014  
Ikus ere Johannes Voegelé, *Le côté obscur du capital. « Masculinité » et « féminité » comme piliers de la modernité* <http://www.palim-psao.fr/2017/10/le-cote-obscur-du-capital.masculinite-et-feminite-comme-piliers-de-la-modernite-par-johannes-voegele.html>

etxebizitza izateko eskubidea baino lehen izan behar da. Espazioa eta energiaren erabileran, jabetza eta eraikuntza sistema urri eta eraginkorra behar da. Etxebizitza ezin da espekulazio gaia izan, edo errenta ateratzeko inbertsioa. Funtzio soziala du, eta hori bere erregulazioaren oinarrian izan behar da.

- **Ekonomia burujabetza:** ekoizpen sistema birbideratzea, trantsizio ekologiko, sozial, feminista eta demokratikoa bermatuko duen eta pertsoneri loratzeko ahala emanen dien eredu baterantz doana; zaintza-lana – oraino nagusiki emakumeen esku egon dena – aitortzea eta hobeki banatzea; zaharkitze programatua edota ekoizpen kaltegarriak gelditzea gutinaka, ondasun erabilgarrietan berriz zentratuz eta elkarrekin zehaztuz gizarterako onurarako diren oinarritzko beharrak, eta horiek betetzeko modu jasangarriak aurkitzea. Gaur jadanik 1,7 planetaren baliabideak erabiltzen ari gara gure beharrentzat, ondorioz gehiago eta merkeago ekoiztea ez da bidea. Ekoizpena birbideratzea da xedea, birtokiratzean, aberastasunen eta lanaren banaketan oinarrituz. Trantsizio hori kaltegarriak diren sektoreen murrizketa edo desagerpenean oinarritu behar da, eta alderantziz kriterio horire erantzuten dieten sektoreen hazkuntza azkarrean.
- **Lanaren burujabetza:** lanaren antolaketa, erranahia, ekoizpen eta inbestizamendu hautuez birjabetzea, lurralde jasangarri eta solidario bati buruz, eta ez akziodunen errenta emendatzeko. Lanaren eta ekoizpenaren helburuak eztabaidatzea, baita lanaren banaketa ere. Tailerren bidezko auzolaneko auto-ekoizpena ahalbideratuz eta bultzatuz.
- **Gure gorputzen eta sexualitateen burujabetza,** bortizkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko
- **Burujabetza soziala:** gizartea gero eta gehiago atomizatzen ari den une honetan, komunitate zabalak berreraiki ditzagun, aterpeak izan daitezen, bizi duin baten gutieneko baldintza materialak eta sozialak seguru ditzaten. Estatu-egiturak gero eta argiago pobreen aurkako gerla baterantz bideratzen direlarik (minima sozialen eta etxebizitzarako laguntzen murrizketa, langabeak gero eta kontrol gogorragoen pean, laguntza zerrendatik kentze bidegabeak, zerbitzu publikoen kentzea “periferikoak” kontsideratzen diren eremuetan), elkarren arteko segurtasuna berreraikitzea premiazkoa da.
- **Kultura burujabetza:** memoria kolektiboa, gure hizkuntzen eta historiaren (irabazleek idatzi ez dutena) berreskuratzea, baita denen artean gaur eta biharko etengabeko sorkuntza bultzatzea, herri erresiliente baten bermeak dira. Herriaren ohidurak (auzolana, bestak, sorkuntzak, herrixkak eta auzoak biziartzten dituzten ekimen kolektiboak...) ez dira ordainpeko zerbitzuen bidez ordezkatu behar. Herri ireki baten bermeak dira ere: nortzuk garen are eta hobeki jakinik, eta elkarren artean lotzen gaituenaren zentzua sumaturik, gero eta gehiago bertzeekin erraz eta beldurrik gabe trukutzen ahalko dugu. Gaurko identitate batzuk, nahiz eta hegemonikoak izan, diluituko direlaren beldur dira, honek adierazten du zenbateraino sustraigabetuak eta galduak dauden, mundializazioak edo aitzinako mugetara itzultzeak ezertan lagunduko ez duen mundu honetan.
- **Elkartasuneko burujabetza:** lana eta aberastasunen partekatze erradikala gure lurraldeen barnean. Kontsumoen birtokiratzea areagotzen badugu eta gizarte baketsu eta iraunkorra bermatzen bada, partekatze hori plantan ezartzea errazagoa izanen da.
- **Burujabetza irekia:** gure lurraldetik haratago, lurraldearteko asanbladak antolatzea, lurraldeen arteko trukaketak erabakitzeko eta denei bermatzeko, edozein baldintza geografikotan, oinarritzko gaietarako bidea. Klima aldaketak eskatzen duen mundu mailako elkartasuna plantan ezartzea da, munduko bertze lurraldeen burujabetza



sustatuz, eta ezinbiziak bilakatu diren herrialdeetatik ihes egiten dutenei harrera eginez.

Ikusmolde honetan kokatzen dira Euskal Herrian dauden hainbat ekimen, horien artean ingurumenaren gaia sindikalismoan integratzea, eredu industrialetik kanpoko laborantza ganbera, tokiko moneta, mugumendu feminista, energia berriztagarria ekoizteko kooperatibak, errefuxiatuekiko elkartasuna, zirkuitu laburrak, inposaturiko proiektu erraldoien aurkako borroak, edo berrikiago 2013an bultzatu zen Alternatiben herrixken mugimendua.

### ***C- Lurraldea: ekintzarako eremu aproposena***

Klima, bizi eta lantzen den lurra, ura eta airea, lantokiak, atsedeen edo sorkuntzako guneak, janaria, haizearen, eguzkiaren, uraren eta egurraren energia, eman zaizkigun eta elkarrekin eraikitzen jarraitzen dugun historia eta kultura, guzti horrek gure lurraldea osatzen du.

#### *Bi zangoak lurrera itzultzea*

Hezurmamitzen gaituzten gauza horiekiko loturak, alde batera utzi edo balio ekonomikora mugatu dira. Hurbil genuen guzia urrunduz, gu egiten gaituen guztia gure eskuetatik kenduz, lurretik deslotua den eta hazkundera baizik bilatzen ez duen ekonomia garatzera lagundu du. Sistema urririk elikatzen eta haren zaborrak irensten dituen baztertu da, berotegi efektu gasak (BEG) jaurtikiz gaur egun gure biziraupena bera mehatxatzeraino iritxiz.

Bada garaia zangoak lurrean berriz ezartzeko, partaide garen lurraldera itzultzeko, egungo garai erabakigarriari dagozkion erronken neurrian gure lurraldeak biziartzeko, hondatuak izan diren loturak berriztatuz. Ez atxik gure paisaiak modernitate aurreko munduaren karta postal baten irudian, baina paisaia horiek egunero sor ditzagun, gure biziak aterpetzeko, bizi aterpetzeko duten gaitasuna sendotuz. Elkarrekin eta ahal bezain sendoki presta gaitetzen datozen arazo klimatikoei aurre egiteko, arazo horiek larritu gabe karbono fosilen (petrolio, gasa, ikatza) erabilpenarekin.

Gure mailan haztakatu dezakegun lurralde batek neurritasun energetikoa, lurralde antolaketa, garraioa, zaborren kudeaketa... hobeki kudeatzeko gaitasuna ematen digu... Neurritasun, eraginkortasun eta energia berriztagarrien iturriak tokiko mailan dira pizten: BEG isuriketak murrizteko ekintzen % 50etik 80ra eta egokitzapen ekintzen ia % 100 Estatu maila baino maila ttikiagoan erematen da<sup>9</sup>.

Gure mailan haztaka dezakegun lurraldea neurritasun horren, energia eraginkortasun eta zuzentasun gehiagoren bermea da. Enplegua, aberastasunak eta zerbitzuak (bazterrera utziak diren periferien kaltetan), garraioak eta alferrikako azpiegitura handien sorrera bilatzen dituzten metropolien aurkako joaira da.

#### *Munduko lurralde bakoitza babestea*

Lurralde bati eta giza talde batekiko atxikimenduak, klima, bioaniztasuna, migranteak, justizia soziala edo herri pobreen baliabideen bereganatzea bezalako erronka orokorrekiko engaiamendutik bereizezinak dira. Lurralde honi atxikiak gara, babesten dugu, ez dugu onartzen bipildua izatea, gerlen ondorioz txikitua izatea, alferrikako proiektu

---

<sup>9</sup> Réseau Action Climat, Nouvelles compétences climat-énergie des collectivités territoriales, 2016

erraldoiengatik suntsitua izatea, gertakari klimatiko handien ondorioz haizatua izatea erresilientea bilakatzeko aukerarik eman gabe. Gainera, ez diogu beste lurralde bati patu hori jasanarazi eta horretan parte hartu nahi.

Erronka klimatikoari aterabide globala bilatu nahi omen dioteneke gehienetan ostatuko eztabaidak aberasteko balio duten sentimendu onez margotutako aitzakia bat besterik ez dute azaltzen, baina, orain arte ez du sekulan erronkaren mailaren araberakoa den ekintza koherenterik sortu. Lurraldeen mailan ekitea gure esku dagoen helburu bat da eta unibertsalak diren galderei, baturik erantzunak eraikitzeke aukera ematen digu. Mundua babestuz ez dugu unibertsal abstrakto bat babesten, baizik eta munduko lurralde bakoitza eta etorkizuna partekatzen duten bertako biztanleria. Etorkizun bera partekatzen duten talde horiek berezko bizi kulturala dute eta egungo eta biharko erronkei berezko erantzunak eraikitzeke modua. Mundu ezberdinak aterpetzen eta babesten ahal dituen mundu amankomun baten eraikitzea, Lurreko bizitzaren iraunkortasuna, bere forma guzietan, bermatzeko bide nagusi bat da. Monolaborantzak ahultzen du, aldiz, aniztasunak indartzen du eta gertaera bortitzei aurre egiteke gaitasuna ematen du.

### *Mundu mailako baitezpadako elkartasuna*

Gizadiaren historian lehen aldiz, baitezpadako mundu mailako elkartasunaren desafioa ageri da: klima aldaketa. Estatu batek klimaren borrokarako interesik ez izatea, edo berotegi efektuko gasen isurtzeen txikitzean ez parte hartzea, herri guztien burujabetzaren aurka eraso bat da, horrek klimaren oreka zuzenean mehatxatzen baitu, gure biziaren oinarritzko baldintza nagusia.

Klima aldaketa gehiegizko berotze muga gainditzeko zorian dagoen une honetan, zalantzak daude batzuetan klimaren alde edo gure lurraldeen tokiko erresilientzien alde aritu beharraz. Batzuek uste dute muga hori gainditua dela, sistema aldatzeko berantegi dela eta lehertze bidean gaudela alde aurretikako ikuspegiak izan ez delako. Ikusmolde horretan, berehalako aldaketa horiei aurre egiteke prestatzea hobe litzateke, ez eta sahiesten saiatzea. Alta, borroka bera da! Berotegi efekturako gasen isuriketak apaltzeko eta gure lurraldeak erresilienteak bihurtzeko martxan ezartzen dena, gauza bera da, bai gure energia berriztagarria ekoiztuz, laborantzarako lurrak berriztatuz, ondasun materialak berrerabiliz, tokiko moneta bat baliatuz... Berez ez da bien artean hautatu beharrik, ez da zalantzarik izan behar, bi aukera horiek bakarrik osatzen baitute.

### ***D- Burujabetza jasangarria eta solidarioa: egin behar dena***

Gure ikusmoldea lurralde jakin batean kokatzen da, babesten duguna eta hainbat mailatan egiten gaituena: fisikoa, kulturakoa, soziala, afektiboa, ekonomikoa... Burujabe izan nahi dugu, pertsonaren eskalan eta haztaka daitekeen lurraldean, klimaren desafio bikoitzari (gasen murrizte azkarra eta erresilientziaren garapena) erantzuteke maila hoberena direlako. Solidarioak izan nahi dugu, norberaren oinarritzko beharregatik inor ez dadin beldur izan, beren etxeetatik kaosarengatik kanporatuak izan direnak laguntzeko, eta munduko beste lurraldeak burujabetzarantz bultzatzeko.

Gure ikusmoldeak bizia egonkortzen eta berritzen duena berriz ere erdigunean ezarri nahi du: gure baliabideen zikloak, atmosfera eta klima, gure oihan eta uraren osasuna, gure lurren emankortasun iraunkorra, etxeko lana, etxebizitzaren eta lurraldearen antolaketa neurritsu eta argia, gure auzo eta herrietako bizitza soziala, kolektibo batekin bat egiten dugunaren sentimendua, gure inguruan gertatzen dena haztatzeko.

Elkarren artean lotuak diren bederatzi ardatzetan banatua den gogoeta abiatzen dugu gaur:

- Lurraldeko alternatibak: beren bizi-baldintzez jabetzen laguntzen duen eta herritarren beharretatik hurbilen den kudeaketa egiteko, zein tresna eta instituzio?
- Laborantza eta baliabide naturalak: nola eraiki egiazko elikadura burujabetza, iraunkorra eta erresilientea etortzekoak diren muturreko eguraldi gertakarien aitzinean?
- Garraio eta mugikortasun jasangarria: autoarekiko eta bide garraioarekiko dependentzia murriztea, mugikortasun beharrak txikitzea.
- Neurritasuna: partekatzea, erosketa beharrak eta kontsumo energetikoa murriztea, lurraldearen antolaketa berriz pentsatzea.
- Berrerabilpena eta konponketa: kostu energetiko ttikiko ekonomia zirkularrari lehentasuna ematea eta xahutzearekin amaitzea.
- Elkartasuna eta partekatzea: ondasun amankomunen, fiskalitatearen, etxebizitzaren kudeaketa politika berriz pentsatzea, tarifakazio soziala bultzatzea, aberastasunak eta lana partekatzea, herritarren eta instituzioen ekimenak biderkatzea eta errefuxiatuentzat harrera duina eskaintzea gizarte baketu eta zuzen baten alde.
- Ekofeminismoa, gizarte jasangarria eta duina lortzeko, artatze eta konpontze lanek, jendearen eta Lurraren artari lotu jarduerak, jendearen aktibitateen zentroan egon behar dutela diona, ia soilik emakumeen esku uzten eta gutiesten direlarik gaur egun, hain zuzen eraldaketa larrien mehatxupear den lur honetan; biziaren, biosferaren eta lurraldearen gaitasun ekologikoaren errespetua aldarrikatuz ere.
- Birtokiratzea: herrian bizi eta erabakitzea, ahal bezain hurbil ekoiztea eta kontsumitzea.
- Energia berriztagarriak: klima aldaketa bazkatzen gelditzeko, behar energetikoak murriztea eta eguzkia, haizea, errekek eta biomasaren bidez erantzutea.

Ardatz horiek elkarren artean lotuak dira, ez elkarren artean trukatu daitezkeen gailu baten mekanikeria osagaiak bezala, baizik eta sistemak bezala, elkarrekin eraikiak izanik berezko ekimen horiek elkarren artean indartuko baitira.

# 1. Lurralde Alternatibak

Lurralde batekiko atxikimendua eta mundu mailako erronketan engaiatzea, batera doaz. Alde batetik, jabetzen garen lurralde batek trantsizio eraginkorra plantan ezartzeko gaitasun hobea ematen digulako, hiru helbururi erantzunez: BEGen isuriketen murriztea, erregai fosilen menpekotasunaren murriztea, eta muturreko eguraldiei aurre egiteko erresilientzia. Hori, herriari lotura sendoagoak izateko eta plantan ezarritako aldaketetan eskua izateko parada emanaz. Bertzaldetik, mundua defendatzea lurralde bakoitza defendatzean datzalako: herri bakoitzak mende honen erronkak hartu ahal izan ditzan nahi dugu, bere lurraldearen erresilientzia eraikitzeke.

Euskal Herriko biztanle gisa, herri honen borroka sozial, ekologiko eta kulturaletan parte hartuz, lurralde honetan kokatzen dugu gure proposamen hori.

## **I Neurriaren galtzea, lokiaren galtzea**

### *1) Gutaz dugun ikuspegi deslokalizatua*

a) “Izadia” eta “klima” abstrakzio hutsak bezala kontsideratzeko joera dugu, zientzialariak eta ekologistak bakarrik kezkarazten dituztenak, zenbaki potoloen bidez horietaz entzuten dugula baina ez dirudi zinez dagozkigula, bertze planeta batean balira bezala, gure egunerokotasunetik at, gure bizitzetatik at. Horrelako ikuspegi batek, klima ta inguratzen gaituzten baliabide naturalekin lotzen gaituzten loturak ulertzeko, eta lotura horietan abilki aritzeko, indargabetzen gaitu.

b) *gure lurraldea kanpotik ikusten bagenu bezala* kontsideratzeko joera dugu. Gure lurraldeaz Parisetik edo Madrildik edo Bruselatik edo espaziotik izaten ahal den ikuspegia barneratzen dugu askotan. Ikuspegi horietatik beti periferikoak izanen gara: Hego-mendebaldeko zoko turistikoa bere folklorearekin, penintsulako iparreko muturra bere “euskal arazoarekin”, Europako hegoaldeko zonalde zehaztugabe bat, edo planetaren edozein toki, dena trukagarri den munduko ikuspegi batean. Gure tokiko errealitatea deskribatzeko kanpoan sortutako pentsamolde bat gureganatuz, gure tokiko errealitateaz dugun ulermena baztertuz, gure beharrei modu hurbilenean erantzuteko ahalmena murrizten dugu.

### *2) Erabaki politikoen zentralismoa*

Erabaki batzuk, BEGen murrizketa bezala, mundu mailan adosturik hartu behar dira, zehazki gure lurraldeari dagokionez, tokiko mailako erabakiak oraino gutiegi hartzen uzten dira (ikus birtokiratzea kapitulua). Horregatik gure beharrei modu hurbilenean erantzuteko gure ahalmena ttikia da, neurri handi batean gugandik urrun harturiko erabakien mende gaudelako, erabaki horiek askotan gure beharretara egokitzen ez direla, izan eskaera bereziei gor izateko printzipioarengatik, interes talde handien presioarengatik edo soilki arazoak ez ezagutzearengatik.

### *3) Ekonomiaren globalizazioa*

Gugandik urrun erabakitako testuinguru ekonomiko baten mende gaude ere, aukera bakarra aurkezten digutelarik<sup>10</sup>, gure burujabetza kentzen diguna era berean klima aldaketa larrituz: burujabetzak oztopatzen dituzten eta karbono aztarna izigarri emendatzen duten merkataritza hitzarmen handiak eta ekoizpen deslokalizatuak; ezdeusetako kontsumo

<sup>10</sup> Serge Halimi, “Le Grand Bond en arrière - Comment l’ordre libéral s’est imposé au monde”, Agone, 2004

kaltegarrien erraztea; zaharkitze programatua, batez ere ekipamendu elektronikoa; aurrerako ihesa erregai fosiletan (arbel gasa, itsaspeko sakonera handiko petrolio, mundrun-harea).

## **II Lurrera itzultzea, lurraldera itzultzea**

### *1) Gutaz dugun ikuspegi birtokiratzea*

*a) Konkreturat itzultzea.* Gizakiok ez gara elkarren artean trukagarriak diren makina abstraktuak. Izaki biologikoak eta sozialak gara, hauskorrak, eldarren mendeko, eta gure inguruari eta inguruko pertsoneri lotzen gaituzten loturez osatuak gara. Bistakoa da baina era berean hain ahantzia, ez dugu alferrik oroitarazten. Honen barnean ulertu behar ditugu klima eta biosferaren krisia, errefuxiatuen gaia, ekonomia. Oinarrizko - baina sobera ahantzitako - errealitate hori gure burujabetza proposamen honen muinean dago.

*b) Geografia.* Oraino gutarik pertsona gutiegik Euskal Herria kontsideratzen dute bere erdigunetik ikusiz bezala, adibidez Andiamenditik. Ikuspegi hori guziz gureganatzen ahal dugu, eta gainera trantsizio gune batean kokatzen da, hortik gure lurraldea ulertzen ahal dugu modu osoago batean. Andiamenditik hego eta ekialdean, biztanle gutiagoko Euskal Herria dugu, nagusiki landa eremuko (Iruñea izan ezik), gutiago industrializatua, eta mendiko edo mediterranean klimakoa. Mendebaldean eta iparrean dugu Euskal Herriko biztanleriaren % 70 baino gehiago, aspaldi industrializatutako eremu batean (batez ere Gipuzkoa eta Bizkaia), klima ozeanikoa duena, eta oso urbanizatua (batez ere kostaldea, Muskizetik Angelura). Eskema honek noski ez du gure geografia laburbiltzen, baina bederen horren bidez:

- gure lurraldeaz *barneko* ikuspegi *osoa* ematen digu, gure burua periferiko eta zatitutzat dugun kanpoko ikuspegiaren ordez,

- giza-neurriko lurralde batean kokatzea (200 km inguru iparretik hegora eta mendebaldetik ekialdera, 3 milioi pertsona ingurukoa), aiseago honen parte garelako sentiaraziz,

- lurralde honen aniztasuna (demografikoa, ekonomikoa, klimatikoa...) eta problematikak hobeki uler ditzakegu, burujabetza jasangarri eta solidario baterantz bideratzeko.

*c) Historia.* Bere geografia bezala, gure lurraldearen historia biztanle gehienek ez dute ezagutzen, alta askoz hobeki ezagutzen dituzte Frantzia edo Espainiako inperio kolonialena. Gure auzoen historia ezagutzeaz gain, garrantzitsua da bizi garen lurraldean joan diren mendeetan gertatu zena ezagutzea. Eta batez ere, ez bakarrik erregeen historia ezagutzea baizik eta herri langilearena ere, eta bere ohitura sozial, laborantzako, politiko eta kulturalak, bertze herriekiko bere trukaketak, bere migrazioak. Jakitea zein herriek gurutzatu duten gure lurraldea edo zein bizi ziren bertan (erromatarrak, berberek, bikingoak, judu sefardiak, ijitoak), zein herrirekin sortu zituzten ozeanoz gairako harremanak euskal arrantzaleek (algonkinoak, islandiarrak), jakitea ere euskaldun askok, gabeziak bultzaturik, XIX. mendean Ipar Amerikako mendi harritsuetara, edo Hego Amerikaren hegora (Argentina, Uruguai, Txile) emigratu zutela.

Gure lurraldearen historia ezagutzuz, hobeki ulertzen eta perspektiban ezartzen ditugu bere gaurko ezaugarriak. Erakusleho baten gibelean litzatekeen herri ohi baten irudia

iltzatu nahi gabe<sup>11</sup>, baina alderantziz lurralde honen historiaz osoki jabetuz, eraikitzen segitzeko, mende honetako izigarrizko erronken mailara.

d) *Euskara*. Gutaz dugun ikuspegiaren birtokiratzeak denen arteko lotura kultural bat behar du, honen oinarritzko gaia gure hizkuntza izanik, probintzia guzietan dagoena, eta Euskal Herriaren bakoiztasuna eta batasuna egiten duena: *ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena*, Oskorri taldearen kantu ezagunenaren leloa. Bide batez, Euskal Herriko musika taldeen artean, honen publikoak probintzien batasuna hoberen gorpuzten du naski, denek beren burua ezagutzen baitute dituen kantuetan.

Horrelako baltsako edo lagunarteko hizkuntza baten presentzia, kulturaren berdintzeari aurre egiteko tresna onena izan daiteke. Horregatik, hizkuntza honen indarra eremu publikoan denentzat onuragarria izanen da, hemen edo kanpoan sortu direnentzat, euskaraz dakiten edo ez dakitenentzat.

Horrelako bateratze bat laguntzen duen, horrelako lotura elikatzen duen ekonomia-eta instituzio-esparrua behar dugu, honen baltsako hizkuntza, bizi publikoaren eta ekonomiaren hizkuntza, euskara izan dadin noski, belaunaldi gazteak gutienez elebidun izan daitezen nahi dugun lurralde honen trukaketa hizkuntza.

## 2) *Paradigmaz aldatzeko lurraldean bermatzea*

Trantsizio ekologikoa lortzeko gure ohiturak aldatu beharko ditugu. Bereziki beharrezkoa izanen zaigu (ikus ere *berrerabilpen, konponketa eta birziklaketa*) :

a) *Lanaren eta ekoizpenaren helburua birpentsatzea*. Gizartearen onurarako oinarritzko beharrak zehaztu behar ditugu, eta horiek betetzeko modu jasangarriak aurkitu, baina ez behar artifizialak sortzen saiatu etekina ateratzeko. Ekoizpena eta egiazko beharren arteko egokitasun bat tokiko mailan baizik ez da lortzen ahal. Horretarako, Euskal Herriko gizartearen sektore guzien adoste bat beharko da.

b) *Ekonomia lineal batetik energia-aztarna ttikiko ekonomia zirkular batera pasatzea*, honek ekoizlearen ardura luzatzen duelarik: saltzerakoan bere ardura eten ordez, bere ekoizpenaren bizi-ziklo osoa kontuan hartu behar du birziklaketaraino. Orduetik aurrera, lurraldea da ekoizpenaren neurri egokia, inplikatuak diren sail guzien ezagupen eta adoste on baterako, eta garraioen beharrak gutienera murrizteko.

## 3) *Erabaki politikoak eta finantza-gaitasuna birtokiratzea*

Gure lurraldearen historia gorabeheratsuaren ondorioz, gaur egun autonomia maila ezberdintasun handiak daude. Bere mendebaldeko zatiak (Euskal Autonomia Erkidegoa) Europako autonomia gorena du, ekialdeko zatiak maila apalagoa duelarik (Nafarroako foru komunitatea) edo duela guti sortu berri den udalarteko elkargo bat (Ipar Euskal Herriko Euskal Elkargoa). Euskal Herriaren burujabetza jasangarri eta solidarioa plantan ezartzeko, ekialdeko zatiak autonomia maila (batez ere zergei dagokienez) askoz handiagoa izan beharko du, maila guzietan tresna koherenteak sortzeko, horietarik garapen banku bat eta finantza etikorako tresnak.

Autonomia gehiago ez da izatez helburu bat, biztanleak ez badira erabakietan parte-hartzaile sentitzen, edo hautetsien bidez behar bezala ordezkatuak. Autonomia, burujabetza jasangarri eta solidario proiektuaren alde izan dadin nahi dugu. Seaska, EHLG, Euskal moneta eta bertze

<sup>11</sup> Aro modernoa baino lehen, gure aurrekoek kanpotarrendandik gauza asko asimilatu zuten euskal tradizioan: hizkuntzan, laborantzan, etxe eta barkuen eraikuntzan, musikan etab., horren eraginez herria desagertuko ote zen beldurrik izan gabe. Modernitateak ekarritako bizimoduaren berdintzearekin, tradizio franko folklore izatera pasatu ziren, haiei sentimentalki atxikiak garen baina egunerokotasunean sartzen ez direnak. Gure lurraldearen birjabetzeak inplikatzan du historiaren ikusmolde dinamiko bati berriz lotzea, jarraitasun luze batean kokatzen dena, orainean aktiboki aldatuz.

askok lortu dute abiatzea azken hamarkada horietan, hasierako oztopo instituzionalak izan arren; horrelako bertze hamarnaka martxan ezartzeko ahalmena sortu nahi dugu.

### **III Lurraldearen birjabetzea**

#### *1) Beheretik hastea*

a) *Demokraziaren oinarria: herria.* Euskal Herriko biztanleek zehaztuko dute beren zoria. Gure lurraldea nolako instituzioez hornitu behar den ez gara zehazten saiatzen hemen, nahitara. Alde batetik, herriak gai hortaz jabetu behar duelako, bertzaldetik ez baikara etxea teilatutik eraikitzen hasiko: Euskal Herriaren historia eta zatiketa administratiboaren ondorioz, XX. mende hasieran oraino bizirik zeuden lotura sozial eta kulturalak berregin behar dira<sup>12</sup>, gure lurraldearen gain *barneko* ikuspegi *oso* hori berriz aurkitzeko. Ikuspegi hori aski hedatua eta baltsakoa izanen delarik, orduan eztabaidatuko ditugu gure lurraldea barne hartu behar duten instituzio motez.

b) *Udal maila:* gure proiektua garatzeko, lurraldea barne hartuko duten instituzioak behar badira ere, honen muina oinarritik, auzoaldeko edo udalerriko bizitzatik, tokiko asanbladetatik edota udal kontseiluetatik bultzaturik baizik ez da existituko. Udalerriko maila da maila egokia gizartearen benetako eraldaketa baterako, maila horretan demokrazia zinez aplikatzen ahal baita, maila horretan berehala hauteman gure lurraldea eta bere erronkak, maila horretan jabetzen ahal gara baltsako biziaren antolaketaz.

c) *Udalerrriak federatzea:* udalerrri mailan trantsizio ekologiko eta sozialeko politikak martxan ezartzeaz gain, udalerrrien konfederazioak mende honetako erronkez jabetzen lagunduko du, eta, estatuen mugetarik gaindi, *munduaren zati bakoitza defendatzeko*<sup>13</sup> parada emanen du.

#### *2) Udalerriko ondasunak*

Udalerriko ondasunen (udalerrri batean baltsako jabetzan dauden ondasun guziak) pribatizazioak ekonomia modernoaren garatzea ekarri zuen, dakizkigun ondorioekin. Udalerriko ondasunak berriz itzultzea eta birjabetzea, tokiz toki, burujabetza jasangarri eta solidarioaren gakoetarik bat izanen da. Adibide askoren artean aipa ditzakegu:

a) *Uraren kudeaketa udalerriek berreskuratzea,* mailaz mailako prezio sozialak ezarriz: lehen m<sup>3</sup>ak dohainik izan daitezten oinarritzko beharrei erantzuteko, eta muga maila baten gaintetik azkarki garestitzea (ikus *amankomunak, elkartasuna eta partekatzea* kapitulua).

b) *Udalerriko lurren erabilpena* laborantza jasangarria antlatzeko eta oihan erresilienteen kudeaketarako. Ezinbertzekoa da lur emankorrak eta oihanak babestea tokiko ekoizpenaren xedetan egin dadin (ikus *Laborantza, ura eta elikadura* kapitulua), erronkei buruzko kontzientzia sakontzen laguntzeko.

c) *Udal eraikinak biztanleen beharren zerbitzura ezartzea:* larrialdiko ostatu-emateak, gabezia daudenentzako etxebizitzak, kooperatiben zereginak, bertzeen meneko diren pertsonen zaintza, tokiko asanbladak, herri hezkuntza.

d) *Udal eraikinak erabiltzea* energia berriztagarria ekoizteko, batez ere udal berogailu kolektiboak (uraren eguzki-beroketa, egurra edo biogasaren bidez), maila ttipiko haize-elekttrizitatea edo tokiko kontsumorako fotoboltaikoa. Ikus *Energia berriztagarriak* kapitulua.

---

12 Eneko Bidegain: "Lurraldea eta Herria", Pamiela, 2018

13 Jonathan Durand Folco, À nous la ville! Traité de municipalisme, Éditions Écosociété, 2017

### 3) *Lurraldeen arteko loturak trinkotzea*

Bi estatu eta hiru egitura administratiboren artean historiak zatituriko lurralde batek, duela hamarkada batzuk oraino existitzen ziren lotura sozial eta kulturalak trinkotzeko edo berrehuntzeko bidea emango duten ekimenak behar ditu, aldi berean jardueren birtokiratzea eta kidego batean parte hartzea indartzeko. Orduan udalerrri mailan Bidasoaz edo mendiez gaindiko trukaketa ekimenak (merkataritza, birazkatzea, eskola, udalerriko ondasunen kudeaketako esperientziak partekatzea) ez gehiago oztopatu baizik eta garatzen utzi beharko lirateke, udalerrri arteko trukaketa horien hizkuntza ofiziala euskara izanik.

### 4) *Finantza tresnak*

Finantza publikoetan, Euskal Herriko hiru egituren arteko autonomia maila ezberdintasun handiek markatzen dute egoera, ezberdintasun horiek direla-eta, Euskal Elkargoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen zerga autonomia emendatu beharra dago. Baina hiru egitura administratibo horiez aparte, Euskal Herri osorako udalarteko garapen banku bat sortzen ahal da, tokiko zergek finantziaturik, trantsizio ekologikoa eta politika sozialak bermatzeko. Hor ere, udalerrri bakoitzeko herritarren parte hartzea, garapen banku honen erabakietan, bere funtzionamendu egokiaren gakoetarik bat izanen da.

Azkenean, Euskal Elkargoan 2013tik den Euskal monetaren esperientziak (ikus *Birtokiratzea* kapitulua) monetaz birjabetzeko ahalmena erakutsi digu. Udalerriek tokiko monetak bermatzearen bidez, birtokiratze dinamikak indartuko dira.



## 2. Laborantza, ura, elikadura

Laborantza gaurko problematika ekonomiko edota ekologiko anitzen bidegurutzean dela erran daiteke, mundu mailan edo tokian berean:

- *gertakari meteorologiko larriekiko erresilientzia* (bero handiak, idorteak edo uholde euriak)
- *lur emankorren menderatzea*
- *lurzolen emankortasuna* eta laborantza sistemen bioaniztasuna mantentzea
- *lanpostuak iraunkortzea* eta baserrialdean *gizarte egitura* bideragarriak mantentzea
- *energia-fosilekiko eta sintesizko produktuekiko mendekotasun apaltzea*
- zirkuitu birtokiratuei esker, *tokiko kontsumitzaileak hornitzea*.
- *atmosfera*ko karbonoa lurrean *finkatzea* eta elikadura hondakinak karbonoaren ziklora itzultzea

Hainbat desafio hauen laburpena, biztanleak era iraunkor eta erresiliente bidez elikatzea da. Lehen begiradan, desafio hauen izaera aniztasunak gaindiezina dirudi baina bertako laborantza iraunkorra jadanik gauzatzen ari den erantzun bat da kasik alor guzietan.

### **I Laborantza, erronka guzien bidegurutzean**

#### *1) Lur emankorrek mehatxatuak*

a) *Hazkurri-laborantzan oinarritutako ekonomiaren aldaketak*: XX. mendean zehar, gure ekonomia turismo, industria, merkatraketa eta pertsona heldu eta dirudunei zuzendutako zerbitzuetara buruz itzuli da. Aldaketa horrek izugarritzko presioa jasanarazten die lurrei: baserri anitzek beren laborantza funtzioak utzi dituzte, lurren prezioak igo dira, bide eta itsas bazterretako laborantza lurra artifizialdu dira, hirigintza planek laborantza lurra eremu eraikigarri bihurtu dituzte...

b) *Balioa sortzearen emendatzearen inguruan eraiki politika horrek elikadura burujabetzaren murrizketa eragin du, lur emankorren desagertzearen bidez edo lur horien erabilera desbideratuz, bizitzaren eusteari begira hain erabakigarriak ez diren funtzioen mesedetan.*

#### *2) Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura: falta den katebegia*

a) *Ekoizpen eta kontsumoaren arteko lotura berpizteko erantzun anitz ditugu, gure tokiko laborantza eskemak aldatu aitzin. Adibidez, Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan ekoizten den haragiaren %80 esportatzen da eta aldi berean bertan kontsumitzen den haragiaren %80 kanpotik heldu da (iturria: EHLG). Zenbat Italiako oliba olio saltzen da Baionan, Erriberan ekoizten delarik ere. Danimarkako zenbat haragi saltzen da Bilbon, Baxenabarren eta Zuberoan ekoiztua dena Bordale edo Pariseruntz doalarik. Pikardiako zenbat lur sagar Lapurdiko supermerkatuetan, Arabakoak Madrilera doalazelarik. Adibide zerrenda hau are gehiago luza genezake.*

b) *Lurraldearen barne-lotura galtze hau, urruneko lotura eta industrialen onerako gertatzen da, eta komunitate linguistiko eta kultural baten kide izatearen kontzientziaren galtzea bezala, soilik estatu ikuspuntu batek ordezkatua, XX. mendeko gorabeheren ondorio da.*

### 3) *Ekoizpenen desoreka*

Euskal Herriko alderdi mediterranearrak aniztasuneko laborantzaren berezitasunak baldin baditub ere (zekaleak, fruitu eta barazkiak, oliotsuak), egoera desberdina da atlantiar alderdian. Ibarretako eskualde honetan, klima ozeaniko edo erdi-menditarrekoa, abere ekoizpenaren proportzioa gehiegizkoa da. Ekoizpen hori bertako biztanleriarekin birlotuz ere, beharrak gainditzen ditu. Aldiz, begetalen ekoizpen eskasia ageri da. Gari eta arto irin ekoizpenak, 50. hamarkadara arte jorratuak nagusiki, esne eta bazka-artoaren ekoizpenari lekua utzi dio. Lehenago, laborantza aniztasunari esker ibiltzen ziren baserriak berezitu dira eta gaur egun, gure barazki eta fruituak inportatzen ditugu, nagusiki Europako eskualde idorrenetik (Almeria) eta gure sagarnoarentzat erabiltzen ditugun sagarrak Normandia, Limousin edo Champagne eskualdetik heldu dira.

### 4) *Eguraldi gorabeherekiko ahulezia*

XX. mendean zehar, Euskal Herriko alderdi atlantikoan, bazka-artoaren ekoizpenak nagusigoa lortu du eskualde batzuetan eta esnearen (behi esnea bereziki) parte handi bat sistema intentsibo bidez ekoizten da, gehigarriekiko menpekotasunean. Artoak ur behar handiak ditu, batez ere ekain eta abuztu artean, eta orain arte gure klima ozeanikoaren berotasunak baldintza onuragarriak eskaini badizkio ere produktibitate aldetik, geroz eta gehiago ezagutuko ditugun uda idorrei begira (modelo klimatiko gehienek erakusten duten bezala) zaugarria bilakatuko da, jadanik nabritzen hasi den gisan. Alta gure lurraldeko laborantzaren historia anitzagoa da, eta aukera desberdinak eskaintzen ahal dizkigu produktibitatea eta erresilientzia konbinatzeko eta mendi eta oihanekiko lotura hertsia ahalbidetzeko. Batez ere, eguraldi baldintza zailei egokituak zaizkien bazkak, belardien erabilera alhagi eta saraleentzat, agro-oihangintzan oinarritutako sistemen garapena, udako transhumantzia mendiko larreetarantz...horra datozkigun eguraldi gorabeherei begirako hainbat erantzun.

## **II. Elikadura burujabetza: biztanleria zaintzen duen laborantza, laborantza zaintzen duen biztanleria.**

Laborantzaren elikatze funtzioa janari-hornitzea baino urrunago doa, ekosistemak zaintzen ditu (bioaniztasunaren eta lur-emankortasunaren bermatzaileak), gizarte egitura eta kultura mantenduz. Lurraldea trantsizioa pentsatzeko maila ona da denen arteko atxikimendu afektiboaren eragile delako ere. Laborantza, gaurko erronken mailakoa izan daiteke elikadura sistemen mantentzea eta giza biziaren mantentzea (sozialki, fisikoki eta kulturalki) uztartzea lortzen badu. Duela 85 urte J.M. Keynes ekonomistak erran bezala, burujabetza nazioanala azkartzen duen politika ez da hori berezko helburu gisa hartu behar, baina beste xede batzuk segurtasun osoz jarraitzeko ingurumena sortzeko tresna gisa baizik<sup>14</sup>.

### 1) *Hemengo ekoiztu*

a) *Ekoizpen motak ugaritzea* jendearen beharrei era zabalenean erantzuteko. Haragi guttiago behar duen jateko molde baterantz aldatu, abere hazleei kalterik eragin gabe: haragi guttiago jan baina kalitate hobekoa eta prezio egokia ordainduz, eta zereal, oleaginosa, fruitu eta barazkiak ekoiztu ahal izateko bidea emanaz, biztanleriaren beharrei erantzuteko.

---

14 John Maynard Keynes, "National Self-Sufficiency", *The Yale Review*, 22(4), juin 1933, p. 755-769

b) *Salgaiak birtokiratzea*: zirkuitu laburren bidez salduz ahal bezain hurbil eta Euskal Herri osoan saldu lehenik, kanpoaldean saldu aitzin.

## 2) *Bertan erosi*

a) *Erosketa elkarteak*, saltegi kooperatiboak, ekoizleen saltegi edo laborarien xokoa, AMAPak (edo Tokiko Laborantzaren Segurtatzeko Elkarteak), *bultzatzea*.

b) *Lekuko ekoizleak jantoki kolektiboekin* harremanetan ezartzea.

c) *Laborantza iraunkorra* behar duen neurrian *diruz laguntzea*, etorkizunean jokoan dena kontutan hartuz: egonkortasuna, eguraldiaren aldaketei aurre egiteko lurren emankortasuna eta erresilientzia, laborantzaren bideragarritasun soziala, energia iturri fosilekiko menpekotasuna apaldu, sintesizko ongarrri eta gai fitosanitarioak erabiltzearen bururatzea...

## 3) *Lur salmentak kolektiboki zaintzea*

a) *Herri urraspideak bultzatzea* hazkurri emaile den lurra mantentzeko.

b) *Instituzio mailako urraspideak egitea* hazkurri emaile den lurra mantentzeko.

## 4) *Iraupen gaitasuna sortzea*

a) Oihan berritzea laguntzea erabiltzen ez diren lurretan eta landare hesiak landatzea, espezie desberdinekin eta helburu ugariekin (berotzeko egurra, eraikitzeko zura, janari ekoizpena, lurren berritzea).

b) Agro-oihangintza urraspideak garatzea laborariekin eta Herriko Etxeekin.

c) Laborantza teknikak sustatzea, lurra biologikoki egituratzen, lurraren karbono edukia handitzen, lur zizareen kopurua handitzen eta ur erregulazio ahalmena hobetzen dutenak.

d) Etxalde sistemak pixkanaka aldatzen joan laborantza, hazkuntza eta eguraldiaren aldaketei aurre egiteko resiliencia ttipia dutenarik (adibidez arto monokultura esne ekoizpenerako) alternatiba anitzak eta baserrikoak lehenetsiz.

e) Pixkanaka biora aldatzea oraindik bioan ez diren etxaldeak. Argi da biztanleria elikatzeko era iraunkor eta resilientean laborantza ezin dela produktu eta ongarrri sintetikoekin menpe gelditu, gaur egun baitakigu zein kalte eragiten duten biztanlerian eta ekosistemetan, eta (ongarrri nitrogenatu eta fosforodunen kasuan) denborarekin geroz eta bakanago eta garestiago eginen baitira.

# **III Hurbiltasunean da bideragarritasuna**

## 1) *Laborantzarekiko jendearen atxikimendua*

Iparraldearen kasuan, kostalde biziki urbanizatua eta barnekalde laboraria, jende gehiena, nahiz mendian edo BABn bizi, kostaldean edota Amikuzen, Euskal Herrian sortuak edo kanpotarrak, bertako laborantza iraunkorrari atxikiak zazikio, AMAP (edo Tokiko Laborantzaren Segurtatzeko Elkarteak), ekoizleen saltegi eta erosketataldeen arrakastak erakusten duen gisan, baita urteroko Lurrama erakusketak edo laborantza biologikoaren geroz eta leku handiagoak ere, azken honetan, 2018 urtean 300eko langa gaintu baitute ipar Euskal Herrian AB labela duten etxaldeen, ekoizle nahiz kontsumitzaileen aldetik exigentzia maila handituz doala argiki erakutsiz. Ekosistema eta ekoizpenen mantentze materialaren errealitateaz gain, laborantza herrikoiak izaera sinboliko handia du hemen, jendea bere lurraldera lotzen duen zutabetarik bat da, paisaia, bizitzeko plazera, laborari munduak pertsonaren neurrira mantetzen den bizitzeko moldea adierazten baitu eta

gizarte dinamika handia ematen, biztanle kopuru ttipitik haratago, adibidez herrietan urtero dauden herriko besta ugariak erakusten duten gisan Zuberoa eta Baxenabarren, 40 000 biztanle besterik ez izanik ere bien artean.

## 2) *Etxalde bizitza trinkotzea*

a) *Etxaldeen izaera familiarra eta ttipia*, Euskal Herrian (Zuberoa, Baxenabarre, Lapurdi, baita Nafarroaren iparraldea, Gipuzkoa eta Bizkaian ere) XX. mendearen bigarren zatian, ekonomikoki beren kaltetan izan bazuten beste lurralde batzuekiko, hauetan eskulan gutxiko lan-molde industrialak goiz hasi baitzuten, gaur egun onura handikoa zaie. Geroztik XX mendean indarrean ziren ideien mugak ikusi baititugu. Gaur egun laborantzak gaintitu behar dituen erronkei neurri ttipiko etxaldeekin aurre egitea hobe da (etxalde ttipiak azaleraz emankoragoak batira eta erresilientzia<sup>15</sup> handiagoa dutela egiaztatzen baitute ikerketa batzuek) industria molde ustiatze handiak baino.

b) *Hiru ezaugarri dituzte etxalde ttipiek*: bioaniztasuna eta erresilientziarentzat baikoragoak diren gauza gehiago dituzte (landa hesiak, ekoizpen aniztasuna), azalera berarengatik jende gehiagok egiten du lan eta azaleraz emankotasun handiagoa dute. Etxalde ttipi hauek eguraldiaren aldaketei aurre egiteko erresilientzia handiago dute (neurri handiko monokulturek duten ekoizpenaren zati handi bat gal daiteke eguraldi arazo, eritasun edo izurrite batengatik), salbideak menderatzea (etxalde handiak banatze sare handien prezioen menpe direnean, honek soilik erosten ahal baitizkio bere kopuruak handiak) eta laborari herrietan jende gehiago bizi dadin lortzen dute, ekonomiaren dinamismoa hobetuz eta gizarte sare bizigarria sortuz (200ha dituen laborari batek gure herrien hustutzea dakar, berak nahigabe ere).

## 3) *Hirien inguruko bizilekuak berriz biziartzea*

Orain gutti arte, hirien inguruko «gerriko berde»etan egiten zen barazki ekoizpena. 1950 urterarte Angeluren kasua zen hau, Baiona eta Miarritze barazkiz ornitzen baitzuen. Gaur egun hiriak zabaldu dira inguru berde hauen orde, etxez betetako lur -ailak bilakatu. Artifizializazioak lur anitz suntsitu duen arren, belarrez estalitako lur-sail anitz badira oraindik, ekoizpen potentzial interesgarriekin. Zergatik da hainbeste soropil etxe multzoetan? Alde batetik, mimetismo sozialaren eraginez eta bestetik etxe jabeek ez baitute denbora edo indar nahikoa baratze gintzan aritzeko. Beste jende batzuekin baitezpada harremanetan jarri behar dira, hauek baratzea egin nahi bailukete baina lurrik ez baitute. Profesionalentzat, bide beretik, baratze gintza/fruitu gintza sistema ibilkari bat antola daiteke eremu ezberdinetan, elkarretarik aski hurbil badira eta hektare bat guti gora behera osatzen badute, gutienez.

# **IV Obratze praktikoa**

## 1) *Lurra*

Gaur egun herritarrek soilik sustengatzen duten Lurzaindiaren desmarta handitu eta azkartzeko, hiru erakunde erabakitzaileek (E.H.ko Herri Elkargoa, Nafarroako Foru Elkargoa, Euskadiko Autonomia Elkargoa) beren gain hartu behar dute, helburua izanik hiri eta herrien dentsifikazioa eta laborantzako lurren zaintzea ardatz izanen dituen lurraldearen antolaketa.

## 2) *Zuhaitzak, ezinbesteko elementua*

a) *Laborariak laguntzea* beren etxaldeetan laborantza/oihanezko sistemak antolatu nahi dituztelarik, EHLGk Zuberoan, Baxenabarren eta Lapurdin egiten duen gisan. Urraspide horiek beren gain hartu beharko lituzkete hiru erakunde erabakitzaileek.

b) *Bertako egurraren sareen garapena laguntzea*, bere alderdi guzietan: egur-energia eta zura, lurren egonkortzea, laborantzaren emankortasunaren hobetzea, bioaniztasunaren zaintzea eta espezie bakarreko pinudien ordezkatzeko progresiboa.

---

15 Miguel Altieri (professeur, Univ. Californie Berkely)-ren sintesia: “Agroecology, Small Farms, and Food Sovereignty” <http://beahrselp.berkeley.edu/wp-content/uploads/2010/06/Agroecology-small-farms-and-food-sovereignty1.pdf> (consulté le 30/08/2018)

c) *Espezie ezberdin eta balio anitzeko oihanak berriz arbolatzea sustatzea*, bai oihan pribatu nola herrienetan. Behar hori sekulan baino handiagoa da garai hauetan *Lecanosticta acicola* onddoa Gipuzkoako eta Bizkaiko pinudiak suntsitzen ari baita, agerian utziz espezie bakarreko landaketen ahultasuna. Berotzen ari den klimara egokituak diren balio anitzeko espezieen artean, honako hauek aipa genitzake: gaztainondoa (egurra, zura eta gaur egun gutietsia den elikadura-balio handiko hazkurria ekoizten duena), akazia (lur andeatuen berpiztea laguntzen duena, bai eta egur eta kanpoko zura ematen dituen), hurritza (oihanetako bazterretan garatzen dena, zerrailuetan erabilia, laster handitzen eta oliodun fruitua ematen duena), ametza (iberiar jatorriko espeziea, humus sortzailea, intsektuen babesle eta egur emalea dena), sahatsa (gune umeletan garatzen dena, egur eta ongari ekoizlea), lizarra (aitzunekoa bezalakoa eta zur emalea ere) eta abar.

### 3) *Ekoizpena eta kontsumoa birlotzea*

a) *Udalerri mailan talde-erosketak bultzatzea*, elkarrekilako epizeriak eta transformazio/kontserba guneak sortuz, lokal batzuk prestatuz eta antolatzea lagunduz.

b) *Udalerri mailan bertako produktuen erosketak bultzatzea* sukaldaritza kolektiboan. Oraino bakanegia den praktika hau orokortu behar da.

c) *Zerga bat ordainarazi 500 km baino gehiago bidaiatzen dituzten produktuen gainean*, gas isurketen araberakoa, beti ere bertako pareko produktuak baldin badira. Neurri honek autonomia fiskalaren egokitzapena eskatzen du Euskal Herri mailan.

d) *Hondakin organikoen bereizketa iturburuan*, konpost hotzeko guneak udalerri mailan.

e) *Zertifikazio urraspide partizipatiboak bultzatzea* ekoizpen labeldunak garatuz.

### 4) *Ekoizpenen dibertsifikazioa*

a) *Bazka ekoizpenak gutienera erematea*, ezin landuzko guneetako hazkuntza bultzatuz (ardiak mendietan, urdeak oihanetan).

b) *Abeltzainak laguntzea* behi eta ardi kopuruak apaltzeko, lurra egokia den guneetan baratze gintza eginez artoa ordezkatzeko, fruitugintza bultzatuz (bereziki bertatik bertara garraiatu eta kontserbatu ahal diren fruituena: sagarra, gaztaina, hurra).

c) *Baratze eta fruitugintza bultzatzea* eraikigarriak ez diren udalerrietako lurretan ere, jantegien hornikuntzarako.

d) *Arto-bazkatik ateratzen laguntzea* garigintzara pasatzeko, bertako espezieak hautatuz; edo gaur egun falta zaizkigun proteina eta lekadun landareak ereitea, bai giza bai abere hazkurria ekoizteko (hortik sojaren inportazioak).

### 5) *Hiriondoko eremua biziberritzea*

a) *Auzotegi komiteak bultzatzea*, hauek beren gain hartuko baitute soropil pribatu handiak baratze gintza gune ibilkari bilakaratzea (ikus III-3 puntua).

b) *Lurjabeei fruitu-ondoak ematea* eta halabeharrez hegaztiak (apairu hondakinak birziklatzeko), bertako kontserbatorioekin elkarlanean.

c) *500 m<sup>2</sup> baino goragoko soropil hutsen gaineko toiko zerga bat sortzea*. Lurraren gaineko zergaren apaltzea indarrean sartzea, sekulan baratze gintza, fruitugintza edota hegazti hazkuntza bertan egiten bada.

### 3. Garraio eta mugikortasun iraunkorra

Bada mende bat baino gehiago automobilgintzak, zernahi publizitatez, terrentan erraten digula bakan izaten garela gure destinoaren jabeago, zilindria handiko automobil bat abiadura handian gidatzen dugunean baino. Bai naski, autoak Euskal Herriko baserrialde zokoratuenei egun bide berriak ireki dizkie eta hango biztanleen bizi-kalitatea anitz hobetu du, baina egun, askatasunaren sinboloa maingu dabil eta autoa gero eta gehiago denarentzat daukagu: gure menpekotasunaren sinbolotzat. Familia anitz, usu gure arteko ahulenak, mugikortasunik gabekoen zerrenda luzean ez sartzeagatik, ondasun guziak galtzera behartuak dira. Eta horiek ez dira gure jendarteko automobil menpekotasunaren biktima bakarrak; ardurenean berotegi-efektuko gas asko igortzen dituzten garraioak izanik, gaitzeko ingurumen eta osasun kostua du. Beharrik, menpekotasun horretatik atera gaitezke, uzteko, behar dena egiten badugu. Lehen-lehenik, mugikortasun beharrak zorrozki murrizteko, Euskal Herriak gure lurraldearen antolaketa birmoldatzeko ahal instituzionalak izan behar ditu: garraio moduen aldizkatzea, hirigintza, zergak, landa eremuetan zerbitzu publikoak mantentzea eta abar. Paradigma aldaketa hori lurralde mailan egiten ahalko da bakarrik, tokiko ekimen anitzetan bermatuz eta jendartearentzat hain kutsakor eta hain suntsikor ez den turismo eredua proposatuz. Berotegi-efektu sortzaile gas isuri ttipiko joan-etorri moldeak ere garatu beharko dira Euskal Herrian. Automobilgintzaren publizitate zaharberrituaz, ez fida: ez dugu mugikortasun ekologikoki eta sozialki iraunkorra eraikiko automobil elektriko edo hibridoan bakarrik bermatuz!

#### I Hyper-mugikortasuna: askatasuna ala alienazioa?

Euskal Herriko jendarte, bai barnealdeko (Nafarroa, Zuberoa, Araba) bai hiri eremuko biztanleak, azken urteetan, biztanleen mugigarritasun mugagabea berezkozat harturik egituratu da. Arrazoi sozial, ekonomiko, ingurumen eta klimatiko aldetik, jendarte eredu hau ez da jasangarria.

##### 1) Sozialki eta geografikoki bidegabeko eredua

Lanera joateak, zerbitzu eta saltokietara iristeak, egun, automobilean oinarrituriko mugikortasuna eskatzen du. Gero eta jende gehiagok bere mugikortasun murriztua izanagatik bere burua bazterturik ikusten du.

a) *Auto baten urteko kostua* urtean 5000 euro baino gehiagotan da<sup>16</sup>. Ezin hurbilduzkoa Euskal Herriko biztanle anitzendako. Alta, Pirinio Atlantikoetako menaiuetako % 40k, adibidez, bi auto ditu; hirian zenbakia ahulago bada ere, Baionako menaiuen % 20aren egoera da, nahiz bana besteko soldata 1574 eurokoa den<sup>17</sup>.

b) *Bereziki barnealdeko Euskal Herria hunkitua da*, dentsitate apaleko eremuetan bizi den pertsonen % 20 baino gehiago, mugikortasun gabe aurki bailitezke egoera ekonomiko edo zahartzearen ondorioz<sup>18</sup>.

c) *Adinekoak edo/eta elbarrituak bietan ahulduak dira*, zailtasun ekonomikoaz gain, gidatzeko ezintasun fisikoan aurki baitaitezke. Joera areagotu

16 Automobile Club Association, Budget de l'automobiliste, 2017

17 INSEE, 2015

18 Les solutions de mobilité soutenable en milieu rural et périurbain (*Baserri eta hirigunetako mugikortasun iraunkorraren konponbideak*). Réseau action climat France, 2014.

eginen da: Euskal Herriko barneko herri gehienetan (Zuberoa, Nafarroako Hego eta Ekialdeak, Araba) bana besteko adina 48 urtetik goitik da eta mende honetan zehar 55 urtetik gorakoa izanen baita<sup>19</sup>.

## 2) Galbide ekonomiko bat

a) *Saihets zitezkeen gastuak* ... Familien «mugikortasun» aitzinkontuaren hiru laurdenak joan-etorri laburretan emana da; Iparraldeko eta Hego Landetako eguneroko bidaien % 76,5 autoz eginak dira, % 1 bakarrik bizikletaz<sup>20</sup>. Alta, ez da halabeharra: zergatik ez du Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 34,4k baizik erabiltzen autoa bere bidaietarako? Eta zergatik dute emakumeek auto gutiago eta garraio publiko askoz gehiago erabiltzen gizonek baino<sup>21</sup>? Urteetako auto laudatze publizitate kanpaina zentzugabekoek egiaztatze honetara ekarri gaituzte: gure garraiobideak autogintzara egokituagoak dira gure beharrei eta interesetara baino.

b) *...eta ahulenak prekario bilakarazten dituzte*. «Mugikortasunaren prekaritateak» jende anitz hunkitzen du, gazte eta sozialki ahulak diren pertsonengandik hasiz, hauek lan bati edo formakuntza bati uko egin behar izaten baitiote nola joan ez ukanagatik<sup>22</sup>. Landa-eremuak ere bereziki hunkiak dira: landa eremuko etxe pobreen erregaien aitzinkontua, hiri eremuko etxe aberatsenen laukoitza da<sup>23</sup>.

## 3) Ingurumenarekiko eta osasunarentzako izigarriko eragina

a) *Errepideko garraioaren ingurumen kostua*. Garraioa (pertsonek eta salgaiena), berotegi-efektuko gasen isurien % 30 da adibidez Frantzian<sup>24</sup>. Hau da eraginik handiena duen sektorea, laborantza eta bizitegi-tertzarioen aitzinetik. Sektore honen eragina, errepide bidezko garraioan aise nagusi da (% 90 baino gehiago). Euskal Herrian, pasabide nagusi jendetsu gisa, eragin handia du: egunero 10 000 kamioi ibiltzen dira A63an eta AP8an.

b) *Hiri inguruko garraioaren arazoa*. Hiri inguruko familien eta baserri-familiaren eguneroko joan-etorriek, hiri barneetakoek baino bi aldiz gehiago CO<sup>2</sup> sortzen dute, azken hauek molde aktiboak erabiltzeko joera handiagoa baitute (Frantzian, adibidez, sektore guztiak nahasirik, berotegi-efektuko gasen isuri guztien % 8 da).

c) *Osasun gastu neurrigabea*. Frantziari dagokionez kutsadura atmosferikoari loturiko osasun gastua urtean hamarnaka miliar euroko heinean neurtua da Senatuak<sup>25</sup> kaleratu txosten baten arabera. Hiriko kutsadura da gehien bat, baina, auto mugikortasun azkarreko garaietan bide nagusietan handia da ere. Bestalde, bide istripuei loturiko urteko gastua Frantzian 32 miliar eurokoa<sup>26</sup> da urtero; Iparraldean egunean 1, 5 istripu zenbatuak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan berriz egunean 20 baino gehiago! Itsas bazterrean turismoaren eragina nahiko nabarmena<sup>27</sup> da gertatzen diren istripuetan.

19 <http://www.atlasa.net/demografia/udalerrri>

20 Enquête ménages et déplacements et grand territoire 2010 : les résultats (*Familia, bidaiak eta lurralde handiei buruzko inkesta 2010: emaitzak*). Scot de Bayonne et du Sud des Landes, 2011

21 Estudio de la movilidad en la CAPV de 2016. Eusko Jaurlaritza, 2017.

22 Sondage ELABE pour les 4èmes Rencontres de la Mobilité Inclusive, 2017. (ELABE zundaketa Mugikortasun Inklusiboaren IV. Topaketerako).

23 Les solutions de mobilité soutenable en milieu rural et périurbain (*Baserri eta hirigunetako mugikortasun iraunkorraren konponbideak*). Réseau action climat France, 2014.

24 Les solutions de mobilité soutenable en milieu rural et périurbain (*Baserri eta hirigunetako mugikortasun iraunkorraren konponbideak*). Réseau action climat France, 2014.

25 Airearen kutsadura: geldirik egotearen gastua, 2015.

26 Errepideetako segurtasunari buruzko Estatu mailako ministerio-arteko behatokia, 2015

27 Euskal kostako istripuak udan. Pirinio Atlantikoetako behatokia, 2015.

d) *Bioaniztasuna mehatxatua*. Baserri eremuetan edo eremu naturaletan eraikitako garraio azpiegiturek ekosistema zatitzen eta bioaniztasuna ahultzen dute, merkataritza guneez era bereko eragina dute, baina, gainera paisaia desitxuratzen, hiri erdiguneei indarra kentzen eta gehien bat autoa baliatzera bultzatzen duen behargabeko mugikortasuna sortzen dute.

## **II Gizartearen antolaketa berriz pentsatu mugikortasuna murrizteko**

Karbono gutxiago xahutzen duen mugikortasunaren aldeko aterabide teknologikoez (auto hibridoak demagun) ezin dituzte erantzunak eman ‘mugikortasunetik baztertuak’ direnen prekarietateari eta ezingo diete ere beraiek bakarrik hiper-mugikortasunak sortzen dituen osasun eta ingurumen arazoei erantzunik ekarri. Guttiago mugitu eta garraiatu behar da, hobeki eta beste era batez.

Botere publikoek lehen tresna bazterrera utzia dutelarik, helburu nagusia mugikortasunarekiko mendekotasun gutxiago duen gizartea eraikitzea da. Inperatibo ekologiko bat da, baina etorkizuneko aldaketei aurre egiteko trantsizio ere, erresilienteagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa den jendarte baterantz joateko.

### *1) Espazioa eta bizi eremuak egituratzeko baliabide instituzionalak hartzea*

Euskal Herriak egituratzeko eskumenak izan behar ditu mugikortasunak murrizteko, demografiaren egoerarekin eta bere bilakaerarekin bat egiten duen mugikortasun estrategia bat martxan ezartzeko. Iparraldean “Hiriko Lekualdatze Plana” lurraldeko mugikortasunaren programaziorako eta planifikaziorako gaur egun dagoen tresna da. Plana obratzeko, mugikortasunen sindikatuak «garraio» zergaren baliabidea du eta euskal gizarteak bere proiektua garatu behar du zinezko lanketa eta ebaluazio partaidetza-lan baten bidez. Plan horrek, izan ere, garraioaren eta aparkatzearen antolaketarako printzipioak finkatzen ditu, autoaren erabilpenaren murrizketari eta molde alternatiboaren erabilpenari lehentasuna emanez. Ingurumenaren babesa, hirigune eta mugikortasun, bideen eta aparkalekuen politikak koordinatzen ditu irisgarritasun eta lekualdaketen segurtasunaren errespetuan. Ondotik, neurri horiek Tokiko Hirigintza Planek, auzapezen erabakiek (polizia alorrean) eta bideen kudeatzaileek errespetatu behar dituzte. Zehazkiago:

a) *Intermodalitatea*. Iparraldean<sup>28</sup> lekualdatze intermodala soilik % 1ekoa da. Euskal Hirigune Elkargoak mugikortasun mota guztiak, eta horien artean trenbide zerbitzuak, batzen dituen egiazko intermodalitate politika bideratzeko eskumenak izan behar ditu, eta hori bidaia-txarten bakarraren sistemaren bidez. Hegoaldearekin plataforma intermodala amankomun bat martxan ezartzea helburu garrantzitsua da: Iparraldetik hegoalderanzko lekualdatzeak areagotuko dituen, gero eta handiagoa den mugaz gaindiko elkarlan fase batean sartzen ari baikara. Heldu diren 5 urteetan, Iparraldea, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroaren artean mugaz gaindiko langileen kopuruaren emendatze handia igurikatzen da Euroeskuladean, horren sustapena egiten baita (EMPLEO AE<sup>29</sup> egitasmoa). Egitura horrek kalitatezko zerbitzuak euskaraz eskaini beharko lituzke. Herrien arteko trukaketentzat hizkuntza ofiziala bilakatu beharko luke euskara, hain zuzen ere, eremu publikoan hizkuntza horren erabilpena indartzeko.

28 Mugikortasunari buruzko biltzar nazionala: 25 proposamen Euskal Herritik. Euskal Herria-Aturiko Mugikortasunen Sindikatua, 2018

29 EMPLEO AE proiektua, 2017a abiatu da eta Akitania-Berria-Euskadi-Nafarroa Euro-eskuladearen gidaritzapean da. « Hiru eskualdeen artean europear langileen joan-etorrien askatasunaren printzipioaren gauzatze zehatza lortu nahi du ».



b) *Hirigintza berriz pentsatzea*. Euskal Elkargoak hiri eremu berri bat garatzeko<sup>30</sup> baldintza argiak finkatzeko aukera ematen dion eskumena izan behar du: auto indibidualen parean egiazko mugikortasun alternatiboak izateko eskaintza, zerbitzuekin harremana errazteko.... Tokiko Hirigintza Plana herriarteko egiturara eraman bada, hirigintzaren mugikortasunaren problematika txertatzeko baliatu behar da.

c) *Baserri guneean zerbitzu publikoen eta komertzioen mantentzea*; Ezinezkoa delarik, kamioi-zerbitzu/komertzioak, administrazioaren harrera-uneak (langabetuen gunea, alokazioak...) aurreikusi behar dira, Hazparneko Elgar zerbitzu publikoen etxea bezala adibidez, Mauleko disziplina anitzeko osasun etxeak bezala, etab.

d) *Hegoaldearekin harremanak indartzea*. Muga oraindik oztopo psikologiko indartsua da: osasunean, goi-mailako hezkuntzan, zerbitzuen aldetik Hegoaldea zentzuzkoa den mintzakide hurbil bat da baina askotan ahantzia. Euskararen garapena sustengatzeak muga psikologiko horiek altxatzen lagunduko du; Xareta adibide on bat da. Iparraldeko 2 herri biltzen ditu (Sara eta Ainhoa) eta Nafarroako beste bi herri (Zugarramudi eta Urdazubi) denen artean aitzinaraz ditzaten mugaz gaindiko proiektu amankomunak. Egoera berdintsuan ere da, Kataluniako Puigcerdako mugaz gaindiko ospitalea.

e) *Zirkulazio abiaduraren murriztea*. Zirkulazio abiadurak eragin zuzena dauka istripuen kopuru eta larritasunean; eta baita hirien hedapenean ere. Ondorioz 30 km/orduko guneen garapena orokortzea beharrezkoa da hiri erdietan.

f) *Fiskalitatea*. Iparralde mailan lurren eta higiezin zerga bat beharrezkoa da hirien hedapena eta eragiten dituen lekualdatzeen aurka egiteko; bigarren egoitzen zergapetze azkarra adibidez egin beharrezkoa da, horien biderkatzeak jende asko behartzen baitu bere lantokitik urrun bizitzera. Neurri berezi batzuk ere beharrezkoak dira, horien artean karbonozko mugikortasunetan zerga baten finkatzea (bereziki merkantzien bide garraioan), ingurumenean eta osasunean eragiten duten kalteen heinekoa. Aparkalekuen politika ere Iparralde mailan era bateratuan bideratu behar da mugikortasuna menperatzeko tresna garrantzitsu bat baita.

## 2) *Usaien aldatzen laguntzea*

Gure usaiak aldatu behar ditugu mugikortasunak aldatzeko: laguntza pertsonalizatu urraspide boluntarista behar da, bereziki baserri guneko edo hiri inguruetako herritarrentzat. Adibide batzuk badira, hala nola, mendi eremuan jende guzietan erabil dezaketen joan-jile bat eskaintzen duen Kintoa Mugi. Hiri eremuan, baitezpadakoa da aparkaleku eremuak sortzea hirien periferian eta garraio publikoekin lotzea. Molde orokorragoan, auto gutiagorekin hiri barnean esparrua berreskuratzen da eta bizi kalitatea hobetzen, eta horretan oinarritzen da usaien aldatzeko bulkada.

## 3) *Turismoa berriz gogoetatzea*

Turismoaren sasoi gorenean, biztanleen kopurua 2,5ez biderkatzen da eta horrek traba handiak eragiten ditu errepideetan. Adibidez, egunero 2 milioi joan-etorri gehiago dira Lapurdi/Hego Landetan eta estimazioen arabera, turista bakoitzaren batez besteko «joan-etorri denbora» 1:50 orenekoa da egunean<sup>31</sup>. Eta turismoak ez du bakarrik uda garaian eragiten, errepide sarea gain-populazio hau kontutan hartuz antolatua izan baita. Honek ondorioztatu hipertrofiak errepideko mugikortasuna errazten du eta are gehiago emendatzen laguntzen du. Gogoeta bat eramatekoa da beraz turismoak eragin gutiago ukan dezan ingurumenean eta orokorki egoera Euskal Herriko jendartearengan.

30 AU eskualdea «A urbaniser» delarik erran nahi du hiritartze prozesuarentzat irekia izanen dela. Epe labur, ertain edo luzean kolektibitateek identifikatu dute urbanizatua izan dadin nahiz eta ez dituen oraino eraikuntzarako egokituak diren elementu guziaz.

31 Udako mugikortasunak itsas hegian: Moliets eta Hendaia arteko joan-etorrien praktiken egoera azterketa. Audap, 2016

a) *Euskal Herria ez diezaio gulari turismoari bakarrik eskaini.* Turismotik atera diru sarrerek justifikatzen dutea gure kultura folklore hutsa bihurtzea, bertako herritarrek joan-etorri kutsagarri eta karioak egin ditzaten bigarren bizitegi batzuk hutsik gelditzen direlarik kasik urte osoan? Turismoa, gaur egun antolatua den bezala, gizartearen desegituraketaren faktorea da eta traba nagusia lurraldearen iraupenerako. Elkarren artean atzeman behar ditugu formula berriak bertako eragile arduratsuak izateko ez eta gehiago figurante xumeak.

b) *Tokiko turismoa garatzea.* Mugaz gaindiko bizikleta bideak eta bide berdeak, Ederbida egitasmoan egiten den bezala, edota oinez ibiltzeko xendrak biderkatuz, Hegoaldea eta Iparraldearen artean denei irekiak zaizkien turismo karbono-gabetuaren aukerak irekitzen dira. Lotura soziala sortzen dute eta euskararen inguruko ekimenak ahalbidetu beharko lituzkete, besteak beste euskararen aldeko mugaz gaindiko sarea den Sareuska gisako egiturekin partaidetzan.

c) *Plataforma intermodala sortzera buruz Hegoaldearekin.* Gorago aipatu plataforma intermodala, Hegoaldera zabaltzeko xedez garatu behar da, bakarkako autoen jariora apalarazteko eta tokiko turismoa garatzeko gisan. Baiona eta Donostia arteko itsasbaterreko zatian garraio publikoak erabilarazteko E-Mobask proiektua horra buruz jotzeko lehen urratsa da.

d) *Beste turismo bat egingarria da!* Euskara komunikazio molde gisa erabiliko duen turismo bat, Euskal Herria eta bertako herritarrak hobeki ezagutarazten dituen (historia, arteak, literatura, borrokak eta bertako mota orotako ekimenak, herriko bestak...), nagusiki garraio publikoetan oinarritua, ibilaldi luzeetarako, eta oinez ibiliz edo txirrindulaz eguneroko joan-etorri laburretarako, euskoa erabiliko duena ordaintzeko... Guk, Euskal Herriko herritarrek dugu eraiki behar (eskuhartzaile sarea, hitzarmena, etab.) turismo tradizionala ez badugu gehiago jasan nahi.

### **III Mugikortasunak karbono-gabetu**

Mugikortasunak murriztea da lehentasuna, baina indar bat egin behar da ere karbono gutiago xahutzen duten mugikortasunak sustatzeko: ez da neholako estakururik deus ez egiteko, ikusiz eta zoin adostasun dagoen helburu hauen inguruan<sup>32</sup>.

#### *1) Zinezko garraio intermodal politika bat garatzea*

Modu aktiboak (ibilketa, txirrindula...) bai eta mugikortasun berriak (auto-partekatzea, autokidetza) sarrarazi behar ditu gorago aipatu intermodalitate politikan. Noiz sortuko ditugu txirrindula aparkaleku segurtatuak tren geltoki eta auto-partekatze guneen ondoan? Noiz sortuko ditugu txirrindulei egokituak zaizkien kaiak tren geltokietan? Kolektibitateak, adibidez, autokidearentzat bidaiaren itzulera berma lezake gidariak ahal ez balu.

#### *2) Tokian dagoen trenbide sarea sendotu*

Aturri eta Errobiko lineak ez dira ahanzi behar. Azpi-ustiatuak diren azpiegiturak baliatu behar dira: Baiona-Bokale, Baiona-Ahurti, Baiona-Garazi lineak eta Baionako sufrearen bidea berrituz, 45 minutu guzietz abiatu eta jadanik dauden geltokietan bai eta gehi daitezkeen 7 geldi-lekuetan (Lauga, Maignon, Ipar Bidarte, Bidarte Ahetzeko bidea, Akotz/Jaldai, Urruña Kexiloa, Urruña Laburrenea) geldi daitezkeen tren pendular bat plantan ezarri Bokale eta Hendaia artean. 4 tren geltoki nazional eta 14 geldi-leku

32 ikus adibidez Assises Nationales de la Mobilité/Mugikortasunaren Jardunaldi Nazionalak: 25 proposamen Euskal Herritik. Euskal Herria -Aturriko Mugikortasunen Sindikatua, 2018

eta 100km-ko lineak badira Iparraldean eta arrunt eskaski ustiatuak dira. Trenbidearen erabilpena da garatu behar eta ez AHT.

### *3) Mugikortasun aktiboetarako ibilbideak segurtatzea*

Usu arriskutsuegia da automobilak eta hirigintza arauetan absolutuki integratu behar diren mugikortasun aktiboak elkarrekin bultzatzea. Esparru dedikatuak (eskolak bereziki) babestu behar dira besteak beste, eta abiadura 30km/h-tan mugatu bide partekatuetan. Iparraldean txirrindulari eskaini zatia % 1ekoa besterik ez da (eta % 2koa bakarrik turismo denboraldian)! Urrun gara oraindik egin beharko genukeenetik, ikusiz Herbeheretan % 27koa dela, % 20koa Japonian eta % 18koa Danimarkan. Eta oinezkoei eskainitakoari dagokionez, begira dezagun Bidasoaren beste aldean gertatzen dena eta entsea gaitezen ulertzen zergatik oinezkoei eskaini bideen kopurua Iruñean eta Bilbon 3 aldiz handiagoa den Euskal Kostaldea-Aturri hirigune ohian baino<sup>33</sup>...

### *4) Txirrindulako bide gastuen ordainsaria emendatzea*

Bide gastuen ordainsariaren bidez egin etxetik lanerako joan-etorrien ordainketa, ekiteko molde eraginkorra da<sup>34</sup> autoa gutiago eta bizikleta gehiago erabiltzeko. Zergatik hobeki ordaindu mugikortasun karbonatuak beharrezkoak ez direnean (3 km baino guttiagoak dira egunero gure lurraldean autoz burutu bidaien % 40<sup>35</sup>)? Aurkakoa da egin behar duguna, Bereziki Lapurdi, Gipuzkoa, Nafarroa eta Nafarroa Beherearen arteko politika koordinatua antolatuz probintziaz gaindiko langileentzat.

---

33 Hiriko joan-etorrien planaren inkesta publikoa. ACBA-ko garraio sindikatua, 2015.

34 <https://presse.ademe.fr/2016/02/indemnite-kilometrique-velo-evaluation-a-un-an.html>

35 Cerema, Transflash, juin 2015.

## 4. Neurritasuna

Dugun kontsumo maila, gure planetak onartzen ahalko lukeena baino 5 aldiz handiagoa da. Beraz 3 aukeraren arteko hautua dugu: bizigaitza den planeta uztea ondoko belaunaldiei, dugun kontsumo maila atxikitzea Hegoaldeko estatuen miseriaren eta handitzen doan Iparraldeko estatuetakoko biztanlerieen zati baten truk, ala gure funtzionamendua aldatzea eta urritasun urraspide bat hautatzea. Hautuak erraza izan behar luke baina eritasun mental kolektibo batek beti gehiago kontsumitzera bultzatzen gaitu. Sendatuko gara tirania kontsumeristaren frustrazioa eta bere zentzugabekeri andanatik (zaharkitze programatuak, harrokeriz beteriko kontsumoa, sahatze orokortua ...) urrunduz, harreman sozialak eta elkertasuna eraikiz, eta ura, lurra, airea eta energia bezalako ondasun komunak burujabetza kolektiboaren bidez birkonkistatuz. Urritasuna, ikusten dugun bezala, ez da aszetismo bakarti bat, baizik eta urritasun kolektibo eta askatzaile bat. Printzipio hautean oinarritu ereduaren eraikuntza da esperantza eta etika dakartzan bakarria, eta ipar-orratz izan behar du ahalegin teknologikoentzat, inizatiba instituzionalentzat eta noski gure mobilizazioentzat.

### I Kontsumo gizartea: eredu jasangaitz eta bidegabea

#### 1) Gure kontsumoaren ezinbesteko murrizketa

a) *Gure kontsumoaren eragina ingurumenean anitza da.* Maiz 4 ataletan banatzen dugu: uraren eta karbonoaren aztarna, lehengaien ustiaketa eta lurren erabilpena. Gure kontsumitzeko moldeak atal bakoitzean planetako batez bestekoa<sup>36</sup> baino 2 edo 3 aldiz gorago ezartzen gaitu, hori arrunt jasangaitza izanki, munduko biztanleria guztiak jadanik 1.7 planeta «kontsumitzen» baitu, baina zorigaitzez mendebaldeko gain-kontsumoa du eredutzat mundu osoak. Gain-populazioa baino gehiago, gain-kontsumoak du Lurra mehatxatzen, baina arrisku planetario hori zalantzan ezarri ordez, gure agintariek, kontsumoari positiboki lotua zaion hazkundearen bila jarraitzen dute ...

b) *Gure energia kontsumoaren %50eko apaltzea 2050 urterako ezinbestekoa da «Zati 4» 37 helburuaren perspektibarekin, trantsizio energetikoaren Estatu mailako debatearen ondorioek<sup>38</sup> erakutsi duten gisan. NégaWatt<sup>39</sup> proposamenak erakusten du urritasun neurriak, kontsumitze hein horretara heltzeko murrizketen erdia lirategela.*

c) *Energia berriztagarriek gaur egungo ekoizpenak ordezkatu behar dituzte eta ez horiei gehitu.* Ordezkatze efektua are handiagoa izanen da, baldin eta ekoiztu beharreko energia kopuru orokorra mugatzen bada.

#### 2) Kontsumoa, eritasun mental kolektiboa?

Ontsa dakigu kontsumoa ez dela helburu bat berez, eta kontsumo horrek ekarri zerbitzuek balio dutela bakarrik. Badakigu ere garapen teknologikoa aitzinamendu gisa har daitekeela, biztanleria osoaren bizi-baldintzak hobetzen baditu soilik. Alta,

36 D. Ivanova *et al.* Environmental Impact Assessment of Household Consumption. *Journal of Industrial Ecology*, 2015.

37 «Zati 4» ren helburua da estatu batek bere berotegi efektuko gasak 4z zatitzea 1990eko eta 2050eko heinen artean. IPCC/GIECak (Klima aldaketari buruzko gobernuarteko aditu taldea) estimatzen du indar hori herri industrializatuek egin behar dutela hemendik 2100era lurraren beroketak ez dezan +2°C gandi.

38 Frantziaren trantsizio energetikoaren Estatu mailako debatearen lanen sintesia Conseil national du débat erakundeak aurkeztua, 2013.

39 <https://negawatt.org/Scenario-negaWatt-2017-2050>

kontsumitzearen beharra eta garapen teknologikoaren lasterketan itsuki sartzea ebidentzia ukaezina bezala aurkezten da gure gizartean. Dudan ezartzea arrunt irrazionala liteke, utopista... Egiten duguna, urritasuneko jende gisa aldarrikatzea, logika hori aldatzea da, gehiegizko kontsumoa irrazionala dela baieztatuz eta kontsumo hori batzuek Affluenza deitzen duten epidemia mental kolektibo batetik heldu dela: «*beti gehiago* ideologiak dakarren eritasun mingarri kutsakorra, gizarteak transmititua, eta sintomak, betekada, duda, antsia eta nazka dituen»<sup>40</sup>.

### 3) *Gaur egungo eredia ez da gai ingurumen erronkak eta justizia soziala uztartzeko.*

Ingurumena, justizia soziala eta demokrazia kinka larrian eman dira merkatuen araugabetze, lehia eta gain-kontsumitzearekin. Ibilera horrek ekarri ditu nehoiz ez bezalako mehatxua klimarentza eta biodibertsitatearentzat, baita ezberdintasun sozialen emendatzea eta elite ekonomiko arras murriztuz batek boterea bereganatzea ere. Nehork ez du gaur egun erraten eredu hau gai denik biztanleria osoaren ongizatea bermatzeko planetaren oreka errespetatuz. Alderantziz, aberatsenen kontsumoak ez du klima aldaketa bakarrik zalutzen, pobreenen prekarietatea handitzen du ere eta heien perspektiba oinarritzkoenak ere tratatzen ditu, hala nola osasuna eta segurtasun materiala. Dinamika hiltzaile horren kontra joateko berriz erdian kokatu behar dira elkarlan baloreak eta gure kontsumitzeko eta erabakiak hartzeko moldeak.

### 4) *Elkartasuna sortu hein lokaletik internazionalera.*

a) *Kontsumoaren zerga progresibo bat sortu behar da.* Piketty eta Chancel-ek erakutsi duten bezala, zerga hori internazionala izan behar da eta jendeak hunki behar ditu estatuen orde. Izan ere, gzarteko maila kontsumitzaileenek baitute berotegi efektuko gas gehien ekoizten: ekoizleen %10ek gas ekoizpen orokorren %45 ekoizten dute, eta horietako heren bat garapen handiko herrietan bizi da<sup>41</sup>. Errealitate hori kontuan hartuko ez luketen kontsumoaren gaineko murrizketak gaizki hartuak lirateke, eta beraz ez eraginkorrak.

b) *Irabazi indibidualen muga bat imosatu behar da* edo, gutxi gora behera berdintsu dena, maila gorenen zergapetze oso azkarra, maila aberatsenen espekulazio eta kontsumo izugarri handiak sortzen duen xahutzea gelditzeko. Pertsona baten gehienezko irabazi horrek bere lanaren (soldatapeko edo bere kontuko) eta bere inbertsioen irabaziak kontuan hartu behar lituzke. Horrelako neurri bat ez da berrikuntza bat izango Rooseveltek 1942an adierazi baitzuen: «Ez du amerikar batek ere ez urtean 25 000 dollars (zergen ondotik) baino gehiagoko soldata ukan behar». Azkenean maila gorenekoak %88tan eta ondotik %94etan zergatu zituen.

c) *Hegoaldeko herriek mundu osoaren elkartasunaren beharra dute beren irabaziak dudan ezar litzazketen politikak obratzea onartzeko.* Adibidez, ugarte ttipietako Estatu batzuk Kyotoko protokoloan aireko garraioa sartzearen kontra agertu ziren, ez baitzuten sustengu ekonomikoaren segurtamenik, jakinez beren turismo irabaziak apaltzen ahalko zirela... Alta, Estatu horien izatea bera kolokan ezartzen du aldaketa klimatikoak...<sup>42</sup>...

d) *Elkartasun horiek orain ezarri behar dira martxan,* zeren gero eta berantago erreakzionatuz, gero eta kostu handiagoak izanen dira eta biztanleria pobreenak, leku arriskutsuenetan biziki presente baitira, sozialki, ekonomikoki eta politikoki gehienik hunkiak izanen dira.<sup>43</sup> Prekarietatearen aurkako borrokak bultzatu behar gaitu beraz klima aldaketaren kontra eta urritasunaren alde aritzera.

40 J. de Graaf, D. Wann & T. H. Naylo, *Affluenza: The All-Consuming Epidemic*, 2002.

41 L. Chancel, T. Piketty. *Carbon and inequality: from Kyoto to Paris*, 2015.

42 L. Aubrée, A. Bonduelle. *Zuzentasuna klima politiken muinen: klimari buruzko ikerketen eta krisi energetikoari aterabideak atzemateko ikerketen adibidea*, 2011.

43 R. Mearns, A. Norton. *Social dimensions of climate changes. Equity and vulnerability in a warming world*, 2010.

## 5) Berrikuntza teknologikoa: baitezpadako laguntza, baina eskasa

a) *Hegoaldeko herrien mesfidantza* heiei begira zilegi da. Hain zuzen, erronka klimatikoak batzuetan merkataritza argudio bihurtzen dira, herri garatuetako industriaren probetxuko, eta herri pobreenen industria maiz kutsagarriaren kaltetan.

b) *Teknologiak ez du neurritasuna ordezkatzeko ahal*. Erritmo azkarrean ere, energia karbonatuen ordezkapenak hamarkadak beharko lituzke: ez dio beraz urgentzia klimatikoari ihardesten ahal. Gainera, zuzenkontrako aterabidea da, herri eta jende klase aberatsenen zerbitzuko: agro-erregaien garapenak kalte egiten die Hegoaldeko laborantza lurrei, motorizatze hibridoek ere, etab.

c) *Teknologia noizbehinka ezegokia, garesti eta kontra-produktiboa izan daiteke*, Eman dezagun eguzkiaren distira igortzeko, edo CO<sub>2</sub>a gordetzeko atmosferaren konposizio kimikoa aldatzea helburu duten geo-ingenieritza proiektuen kasua da. Proiektu horiek oso garestiak dira martxan jartzeko, eta arriskutsuak aurreikusi ezinako erreakzio serie bat eragin dezaketelako (adibidez eurien zikloa hankaz gora jartzea) edo bildutako CO<sub>2</sub>a berriz ere bortizki bota arazo tekniko batengatik – horrek arazo etikoak sortzen ditu etorkizuneko belaunaldiei begira. Nahiago dugu beraz aterabide low-tech sistemiko eta atsegin bat aldarrikatu<sup>44</sup> : teknika merkeak erabili, denetan eta guztiengandik erabilgarriak eta eskuragarriak, eta funtzio ezberdinak beregain hartu ditzazkenak.

## II Neurritasuna, ikuspegi berria gure usaiei begira

### 1) Neurritasun energetikoa

Urraspide moderatua da, oinarrizko beharrak definitu nahi dituen, eta kontsumo energetikoa behar horien arabera finkatzen duena. Urraspide horrek egungo gehiegizko kontsumoaren ereduari kontra egiten dio, honek behar artifizialak sorrarazten dituelako. Neurritasunari esker, debaldeko energia kontsumoa saihesten da aberatsenen artean eta baliabideak askatzen ditu horrela pobreenen beharrei erantzuteko.

### 2) Neurritasuna, Euskal Herriaren eskalan deklinatzekoa den nozioa

a) *Euskal Herria eskala egokia da neurritasun politika obratzeko*: lurraldearen ezagutzan, bertako elkarte aberastasunean, kooperazio mugimenduaren esperientzian, giza harremanetan, gune sozial, kultural eta linguistikoetan oinarriturik, usaia aldaketak gauzatzen ahalko baitira eta burujabetza kolektibora heltzen ahalko baikara ondasun amankomunei begira (ura, lurra, airea eta energia).

b) *Neurritasunak lurraldearen autonomia indartzen du* honen dependentzia energetiko eta ekonomikoak murriztuz, eta erresistenteagoa bihurtzen du aldaketa klimatikoek eta energia fosilen murrizketak erakartzen dituzten nahaskeriei begira. Alderantziz, lurralde autonomoa ur eta energia hornitzaile handien eta industria talde erraldoien presioei begira ez da hain ahula agertzen; ondorioz, askeago da politika boluntarista eramateko.

c) *Neurritasuna kooperazio eta giza harreman logika batean sartzen da*. Loturak berreraikitzen bultzatzen du: hiri eta baserri guneen artean, kontsumitzaile eta ekoizleen artean. Langune eta tresnak partekatzeak, aisialdi ekipamendu prestatze sistemak, adibide batzuk emateko, jendeen arteko harremanak auzo eta herrietan berriz sorrarazten dituzte; etxebizitza partekatuak jende nahasketa eta belaunaldien arteko elkartasuna indartzen dute, etab.

---

44 Ivan Illich, *La convivialité*, 1973.

### 3) Beroketa klimatikoa eta prekarietatearen kontrako borroka elkarri lotzea

a) *Neurritasuna zuzentasun bektorea da*: horri esker, herri eta jende aberatsenek dute ahalegin handienavegiten (horiek dira NEG igorle handienak). Ura eta argindarrarendako tarifa progresiboak ezartzeak, adibidez, laguntzen du prekarioenen oinarritzko beharrak diruztatzen, aberatsenen debaldeko xahupenei esker. Mundu mailan, «Zati 4» helburua – eskasa izanagatik ere – zuzentasun bektore da ere bai: ezen, herri aberatsek beren isurpenak 4z zatitu behar dituzte, Hegoaldeko herrien isurpenak egonkortu edo gutiago murriztu behar direlarik, «amankomuneko baina ezberdindutako erantzukizun»<sup>45</sup> printzipioaren arabera.

b) «*Amankomuneko baina ezberdindutako erantzukizun*» printzipio hori aplikatu behar da herri bakoitzean. Alabaina, Estatuak argitaratu *per capita* daukaten berotegi efektuaren batez besteko isurpen zenbakiak errealitate zinikoa gordetzen baitute: aberatsak, igorle nagusiak, pobreen gibelean gordetzen dira, azken hauek direlarik biktima nagusiak<sup>46</sup>. Lehenago aipatu bezala, ez zaie herri garatuei eginahal gehiago eskatu behar, baizik eta planetako klase kontsumitzaileei.

c) *Mendebaldeko eredu ekonomiko eta kulturala mundu guzira esportatu nahia gelditzea*. Neurritasuna da herri aberatsek pobreei ematen ahal dieten seinale hoberena, horiek ez daitezen haien ondotik kontsumo eredu hiper-karbonatuan sar. Mendebaldeko eredu ekonomiko eta kulturalak sekulan ikusi ez den katastrofe ekologikora garamatza, ondorioz baitezpadakoa da ez hori gehiago inposatzea mundu osoari, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) eta Banku Mundialak hainbeste urtez egin duten bezala. Alderantziz, garaia da beharbada garatuak deitzen diren herriek apaltasunez joka dezaten eta Hegoaldeko herrietako balore sistemak berengana ditzaten, kolektibitatea eta planetaren oreka hobeki errespetatzen dutelako.

### 4) Balore eskalaz alda dezagun! Askatasun urraspidea, elkarrekin eraikitzeakoa

Ikusi dugun bezala, bidezkoena, aldaketa klimatikoarekin lotuak datozen karguak gehienik kontsumitzen duen jendearen gain ezartzea da, baina praktikan, zer erran nahi du horrek guretzat? Climate Equity Reference Project<sup>47</sup> egitasmoak estimatu du salbueste muga, erran nahi baita, gizaki batek aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan parte hartzeko ahalik edo beharrik ez duen urteko saria guti gorabehera 7500 \$-ekoa dela, erosahalmen bererako. Argi da beraz berotegi klimatikoaren borroka ez dela, gure gizartearen ezaugarri diren diru etekin logikarekin eta gain-kontsumoarekin bateragarria. Beste balore eskala bat inposatu behar da, giza harremana merkataritzako ondasuna baino gorago ezartzen duena.

Gizakiak nehoiz ezagutu gabeko egoera batean gaude, gure esku da aukera bilaka dadin. Klimak eragin bortxa, eredu kapitalistatik ateratzeko gonbitetzat hartu behar da, horrek behar faltuak eragiten dituelako, asegaitzak eta frustrazio iturri direnak. Erronka erraldoia da, baina Euskal Herriko elkarte eta kultur sarean oinarritzeko ahala badugu: elkartasunezko neurritasun zorientsuaren zimendua da. Gure esku dago eraikitze lana!

45 Estatu Batuetako Hitzarmen Markoa Aldaketa Klimatikoaz, Rion onartua 1992ko ekainean.

46 Hiding behind the poor (Pobreen gibelean gordez), Greenpeace-en txotena injustizia klimatikoaz, 2007.

47 Ikus <https://climateequityreference.org/>. Egitasmo horrek kalkulagailu bat eta datu base bat linean ezarri ditu, desafio klimatikoetan hainbat Estaturen parte hartzea, zuzentasunez ebaluatzeko .

### III Gure oinarrizko beharren eragina mugatzea

#### 1) NegaWatt 2017-2050 eszenarioaren lehentasunen ordena jarraitzea

NegaWatt 2017-2050 eszenarioa oinarrizko 3 printzipioren arabera antolatzen da. Hauen gauzatzea denen heinekoa da.

a) *Funtsezko beharrei lehentasuna ematea* energiaren erabilera indibidual eta kolektiboetan, neurritasuneko ekintzen bidez (ikus beherago).

b) Funtsezko beharrak *asetzeko behar den energia kopurua murriztea* energia-eraginkortasunari esker. Kotsentsuzko helburua da, neurritasunaren aldekoak baita klima-arazoentzako irtenbide teknologikoak nahi dituztenak ere gogobetetzen dituen. Zuzentasunaren zentzuan doa ere, energia-eraginkortasunak energia fakturen murrizketa ahalbidetzen baitu, adibidez. Baina kasu halere, helburu hau neurritasunaren urraspide orokorrean sartzea! Egindako aurrezkiak, anitz isurtzen duten jarduerak diruztatze erabiltzen badira, urrutiko turismoa bezala, «pumpa efektua» gertatuko da, berotegi-efektuko gasen murrizketa neutralizatuz.

c) *Energia berriztagarriak lehenestea, Energia berriztagarriak* kapituluan zehaztua den bezala.

#### 2) Eszenarioa alor guzietan deklinatzea

Bereziki, energia-jaleenak diren sektoreetan:

a) *Eraikinak*. Bizitegi sektorea lehen energia kontsumitzailea da (sail guzien %32 Iparraldean adibidez<sup>48</sup>). Neurritasunak erran nahi luke etxebizitzetako jende kopurua emendatzea (ikasle eta adineko jendeen arteko alokairu partekatua), etxe indibidualen murrizketa, jadanik badiren etxeen berritzea, hiriaren hedatzearen aurkako borroka egitea, herriko argizatzearen guttitzea, etab.

Eraginkortasuna lortzeko, beharrezkoak dira eraberritze termikoa, energia biziki gutti kontsumitzen duten eraikin berrien derrigortzea.... Iparraldean, adibidez, helburu hauek lortzeko, Euskal Hirigune Elkargoak bere esku dituen egiturak eta tresnak erabili behar ditu: EPFL, IOP<sup>49</sup>ak edo ETP<sup>50</sup>ak.

b) *Garraioak*. Iparraldean adibidez, sektore hau bizitegiaren ber heinean kokatzen da energia kontsumitzeari dagokionez (sail guzien %31). Ikus *Garraioak eta mugikortasun iraunkorra* kapitulua.

c) *Industria*. Sektore honen garrantzia, energia kontsumoaren aldetik, ez da beti berdina Euskal Herri osoan. EAE<sup>51</sup>n sail guzien %39koa da, Iparraldean %14 baizik ez delarik, honek ez ditu Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako industriak neurritasunaren alde indar egitetik salbuesten: gainestalkien murrizketa, birziklatze mailaren emendatzea, bio-baliabideetan oinarritzen diren materien erabilera, produktuen sortzean, hauen berrerabiltzea kontuan hartzea (ikus *Berrerabiltze, konponketa eta berziklatze* kapitulua), etab.

48 TEPCV Euskal Herri: energia-klima ikerketa, 2016.

49 IOP-PIG (Interes Orokorreko Proiektua - Projet d'intérêt général-) lurraldearen antolaketan onura publikoaren ezagutza duen obra proiektu edo babeste lanak izendatzeko erabilia.

50 ETP-PLH (Etxebizitzaren Tokiko Programa-Programme local d'habitat) etxebizitzaren tokiko politikaren arloan den baliabide nagusia da. Lurralde baten mailan, etxebizitzaren arloan, inbertsioen programazioaren eta ekintzen mailan, funtsezko dokumentua da behaketa eta dfiniziorako.

51 Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapeneko eta Azpiegitura saila. EAEko energia datuak.



d) *Laborantza*. Laborantzak energia kontsumo osoan garrantzi ttipi erlatiboa du (%3 baizik ez Iparraldean adibidez). Honek ez du kentzen sektorearen isurketa ez-energetikoen garrantzia (erran nahi baita energia fosilen erretzearekin lotuak ez diren berotegi-efektuko gasak), hartzidura enterikoak edo ongarrien erabilerak eragina adibidez. Alor honetan eramatekoak diren neurritasun ahaleginen azalpenei dagokienez, ikus *Laborantza, ura, elikadura* kapitulua.

3) *Euskal Elkargoak eta beste lekuko kolektibitateek helburu hauen zerbitzuko izan behar dute*

a) *Publizitatearen lekua murriztea*, publizitatearen<sup>52</sup> tokiko araudi zorrotz (eta aplikatu) batekin, Iparraldeko eskalan. Herritarrek eta kolektibitateek hipermerkatuen eraginaren kontra borrokatu behar dute ere. Duten gain-kontsumitzearen sustatzaile aktibo errolaz gain, hipermerkatuak zauri kulturalak, urbanistikoak eta sozialak dira; adibidez, hipermerkatuen %60 ordezkatzeak Iparraldean, 2000 inguru lanpostu garbi<sup>53</sup> berreskuratzea ahalbidetuko luke. Horrez gain lekualdatze anitz eragiten dituzte. (ikus *Birtokiratze* kapitulua), hiri erdiak eta auzoak bizigabetzen dituzte, eta hurbileko komertzioak arriskuan jartzen dituzte..

b) *Ekonomia zirkularra azkartzea, Birziklatze eta konpontze* kapituluan zehaztua den bezala.

c) *Manatze publikoak erabiltzea* tokiko eta kalitatezko laborantza laguntzeko, eko-arduratsua diren erosketak lehenesteko, euskoa sustengatzeko... Lekuko elkargoek energia grisa adierazle gisa txerta dezakete ere, eskaintza deialdi publikoetan.

4) *Neurritasuna eta eraginkortasuna, lurraldearentzako politika onuragarria eta bidezkoa*

Neurritasuna eta energia eraginkortasuna ez dira sakrifizioaren sinonimoak! Kontsumerismo indibidualistak gaizki erabilitako harreman sozialen berrabiarazteaz gain, gisa horretako politikak zenbakitan neur daitezkeen eragin zuzenak ditu (energia transizio urraspide betean abiatu diren Grande-Synthe edo Loos-en-Gohelle bezalako hirien adibideak frogatzen duen bezala), besteak beste:

a) *Airearen eta uraren kalitatearen hobetzea, baita biodibertsitatearena ere*, hiri edo baserrialdean.

b) *Energia prekaritatearen murriztea* 2012 eta 2015 artean Aturri Euskal Kostalde Hiriguneak eramandako IOPa bezala «Duintasunik gabeko bizilekua eta energia prekaritatea».

c) *Enplegu sortzea*. Iparraldean adibidez, energia aurrezte neurriek 509 postu sustengagarri sortuko lituzkete, eta etxebizitzaren eraberritze energetikoek 627 postu.

---

52 Tokiko araudi bat publizitatearentzat Estatu mailako araudia tokiko berezitasunetara egokitu ahal izateko. Horren bidez, Herriko Etxeek eta Herri Elkargoek Estatu mailako araudiek zehazten ez dituzten guneetan araudi zorrotzagoak ezartzen ahal dituzte.

53 Bihar, 10.000 enplegu klimatiko Ipar Euskal Herrian, <https://bizimugi.eu/wp-content/uploads/2015/04/WEB.Etude-10-000-emplois-climatiques-en-Pays-Basque-nord.pdf>

## 5. Berrerabilitzea, konpontzea eta birziklatzea

Lehen abisuak duela hamarkada batzuk eman ziren; baina, oraindik ere, eredu ekonomiko produktibistak gure planeta agortzen jarraitzen du. Eredu horrek eragiten dituen makurrak begi bistakoak dira eta ez ditzakegu uka. Gaur egun, zuritze ekologikoaren bidez, eredu horrek eragiten dituen kalteak gordetzen saiatzen da. Hala, ekonomia zirkularraren gisako nozioak, edukiz husten eta berreskuratzen ditu. Alta, ekonomia zirkularraren helburuak gureak ere badira. Guk, aldiz, ekonomia zirkularraren ahalmen guziak ikertu nahi ditugu; adibidez, lanaren zentzua eta antolaketa dudan ezartzea edo elkarlaneko logika industrial batera pasatzea. Ekonomia zirkularraren printzipio nagusiak – eta, lehenik, hondakinen prebentzioa – errazki plantan ezar daitezke. Baina horretarako, behar den guzia egin behar dugu eta horren alde mobilizatu behar dugu. Eredu produktibistarekin hausteko parada da. Lurraldeko ekonomia eta geografikoki eta sozialki orekatuagoa den jendartea eraikitzeko egiazko parada da.

### I Ekonomia lineala, eredu absurdua eta zaharkitua

Ekonomia lineala, ekonomiaren eredu klasikoari deritzo. Ekonomia linealak eskema honi jarraitzen dio: atera, ekoiztu, kontsumitu, bota. 1972an, eskema hau dudan ezarri zen. Orduan, Erromako klubak MIT<sup>54</sup> erakundeko ekonomialariek idatzi «Hazkundera gelditu? Hazkunderako mugak» txostena argitaratu zuen. Haatik, ekonomia linealak bete-betean ibiltzen jarraitu du, gaur egun ezagutzen dugun ekologia eta giza hondamendia azeleratuz.

#### 1) Agindu hirukoitza: ustiatu/kontsumitu/bota

a) *Naturaren mugagabeko ustiapena* beharrezkoa du ekonomia linealak funtzionatu ahal izateko. Ustiatutako materiaren % 7 bakarrik aurkitzen da bukaerako produktuan, eta 42 egunean baliabideen % 99 hondakin bilakatzen dira<sup>55</sup>.

b) *Hiper kontsumoa* da ekonomia linealaren bigarren atala. Hazkunderaren dogma eta beti gehiago kontsumitzearen beharra elkarrekin doaz. Dogma horren arabera, zaharkitze programatua estrategia ona da, eta, hori osatzeko, orotan den publizitateak zaharkitze subjektiboa sortzen du.

c) *Hondakinen metaketa* da funtzionamendu horren ondorio zuzena. Frantziako estatuan, adibidez, 1960 eta 2000 urteen artean ekoiztutako hondakin kopurua bikoiztu egin da<sup>56</sup> eta horrek kalte anitz eragin ditu: usain txarrak, gas isurtzeak, lurraren kutsadura, eritasunak eta hondakindegietarako lur kontsumoa .

#### 2) Hondakinen tratamendua, aterabide faltsua

Planeta eta klima denen ondasuna dira. Horiek merkantzia bilakatuz ez da arazoa konponduko. Geoingenieritza, hondakinen tratamendua, karbono merkatua eta abar hondakinak sortzen eta energia kontsumitzen duten jarduerak dira. Frantziako estatuan, birziklatzearen ondorioz berotegi efektuko gasen isurtzeak % 5 ttipitzen direla estimatzen da eta plastiko birziklatuak merkaturatzen diren plastikoen % 6 baizik ez direla estimatzen da. Helburutik urrun gaude... Birziklatzea azpi-ziklatze baten parte baizik ez da, eta, gainera, kalitatearen apaltzea eta toxikotasunaren emendatzea eragiten du maiz: plastikoa eta papera, adibidez, ez daitezke mugarik gabe birzikla. Eta, muturreko adibide bat

54 D. Meadows et al. *Hazkundera gelditu?* Hazkunderako mugak txostena, 1972.

55 Walter Stahel, Institut de la Durée antolakundeko zuzendaria (Geneva), Interdépendances n°62 (2006)

56 ADEME, Déchets : chiffres-clés, Edition 2016.

hartzeko, ez daiteke zintzoki erran hondakin nuklearrak birzikla daiteskeenik! Bistan da, ezinbestekoa da hondakinen birziklatzea. Baina, birziklatzeak haizea alde baldin badu, industriako eragile anitzek irabaziak eskuratzeko aukera gisa ikusten dutelako da, hein handi batean. Izan ere, hondakinek baino, beren balio ekonomikoa da birziklatzen. Hala, hondakinen ekonomia sortzen da. Ondorioz, hondakinen tratamendua osoki ekonomia linealaren esparruan sartzen da eta orduan ez da lurraren berotze klimatikoaren eta gain-kontsumoaren aurka borrokatzeko biderik eraginkorrena.

### 3) Lanaren zentzuari eta antolaketari buruz galdekatzea

a) *Kapitalismoak trukatzeko balorea sortzen duen lan abstraktua baizik ez du kontuan hartzen* (hau da, lan indarraren xahutzea orokorki), bost axola zaio erabilpen balorea sortzen duen lan konkretuaren helburua zein den eta arreta guziaz irabazietan ezartzen du. Lanaren eta ekoizpenaren helburua auzi nagusia bilakatu behar da.

b) *Produktu bat ez da baliorik gabea*; ez daiteke ekoizpen baldintzetarik eta produktuarekin bat datozen balioetarik (jendarte eta ekologia balioak) bereiz. Balio horiek kontuan hartu behar dira, lan behartuaren partea tipitzeko eta epe luzean sozialki eta ekologikoki bizigarria izango den jendarte batera buruz itzultzeko.

c) *Lan moldeak eta baldintzak* (orokorki, menpekotasunean oinarrituak) ez daitezke lanaren helburutik bereiz ere (orokorki, irabazia eta etekina): lanaren helburua auzi nagusia bilakatzeko nahi badugu, eredu hierarkikoak eta lanaren antolaketa formak eta giza baliabideen kudeaketa formak galdekatu behar ditugu ere, azken hamarkadetan, lana eta jendarte harremanak txartu eta langileak bakartu dituztelako.

## II Ekonomia zirkularra

ADEME<sup>57</sup> erakundearen arabera, ekonomia zirkularra, trukaketa eta ekoizpen sistema ekonomikoa bat da, honek, produktuen (ondasunak eta zerbitzuak) bizi zikloaren urrats bakoitzean baliabideen erabilpenaren eraginkortasuna emendatzeko eta ingurumenean duen eragina tipitzeko xedea du, norbanakoen ongizatea garatuz. Gorago erran dugun bezala, kontzeptu hau ez daiteke soilik hondakinen tratamendura muga. Ekonomia linealaren funtzionamendutik ateratzeko, neurritasunean eta elkarlanean oinarritutako aldaketa askoz sakonagoak behar dira.

### 1) Ekonomia zirkularraren oinarriak

Ekonomia zirkularrak hiru arlotan eragiteko xedea du: ekoizpenean eta ondasunen eta zerbitzuen eskaintzan, kontsumoan, eta, azken beltzean, hondakinen kudeaketan.

a) *Hornitze iraunkorra eta neurriduna*, bereziki energiari dagokionez. Baliabideen eskasteak eta horien eskuratzeko munduko estatu desberdinen arteko lehiak baliabide iraunkorrak lehenestera bultzatzen gaitu, hau da, etorkizuna zaintzen duten eta gizakia errespetatzen duten baldintzetan ustiatutako baliabideak. Horrek baliabide berriztagarrientzat balio du ere, hain zuzen berriztagarriak izan daitezkeen beren ustiapen baldintzak zaindu behar baitira.

b) *Ekodiseinua*, produktu batek ingurumenean izan dezakeen eragina ahalik eta txikiena izatea bilatzen duen diseinu-irizpidea da. Horretarako, produktuaren helburua zein den kontuan izatea ezinbestekoa da.

c) *Lurralde eta industria ekologia*, sektore hauen ingurumen inpaktua murriztea

---

57 ADEME, Economie circulaire : notions, 2013.

helburu duen estrategia da. Hori lehiaren logiken kontra doa eta jardun ekonomikoa finkatzen du lurralde batean, horrelako murrizketa bat bakarrik posible baita, sinergia industrialekin eta joan-etorrien nondik norakoaren ezagutza ona baldin bada.

d) *Funtzionalitateen ekonomia*, produktu baten salmentaren ordeztu, bere erabilera proposatzen duen eskaintza da, honek ingurumenean edota gizartean izan dezakeen inpaktua kontuan izanik. Adibidez, makina bat saldu ordeztu, enpresa batek makina hau bere bezeroen esku ezar dezake, erabilera kobratuz. Honek, produktuaren bizitza luzatzea, ondasunen elkarbanaketa bultzatzea, fabrikatzaileengan birziklapena sustatzea (ontasunaren jabetza berena baita) eta azkenik enpresa eta lurraldea bera lotzen ditu.

e) *Kontsumo arduratsua* eroslea (eragile ekonomikoa edo herritar arrunta), ingurumen eta sozial irizpideak kontuan hartuz eramatean du, eta oro har jendartearen ongizatea. Horretarako, erosleak baliabideen eta ingurumenaren gain edo biziraupenaren alorrean ematen den inpaktua kontuan har dezake eta kontsumo kolektiboaren, hots alokairuaren, maileguaren, erosketa kolektiboaren aldeko parioa egin dezake.

f) *Produktuen bizi luzapena*, berrerabilera, konponketa, bigarren eskuko salmenta edota donazioen bidez.

g) *Hondakinen kudeaketa*, ezin izan direlarik saihestu.

## 2) *Lehentasuna hondakinak sortzearen prebentzioari*

Hondakina, abandonatua edo hala izatekotan den ondasuna da. Hauen ekoizpena mugatzeak produkzio-kate osoak (tratamendua, erauzketa, fabrikazioa...) sortzen duen ingurumenaren gaineko inpaktu negatiboa murrizten du.

a) *Prebentzioak* hondakinen kopurua edota kaltegarritasun-maila murriztea du helburu. Honako hau, modu ezberdinetan lortzen da: kuantitatiboa eta kualitatiboa, produkzio katearen hasieran (bilgarrien murrizketa ekoizleen eskutik), zein produkzio katearen bururatzean (konponketa, konpostatzea, kontsumo arduratsua...).

b) *Ondasunaren berrerabilera*, lehenestekoa da, gaia funtzio bererako baliatuz, hondakin bilaka ez dadin. Horretarako, baliabideak eskaintzea ezinbestekoa da (konponketak, trukeak...).

c) *Ondasunaren birbaliatzea*, hondakin bilakatua delarik, funtzio berri baterako baliatzea da. Honek, bilketa prozesua ezinbestekoa du eta zenbaitetan prestaketa garai bat birbaliagarria izateko. Birbaliatzeak ez du noski hondakinen sorrera sahistuko, baina birziklatze sinpletik haratago doan neurria baita, lagundu behar da ere.

## 3) *Lurralde ekonomia eta kooperazioa logika*

a) *Lurralde mailan* (Iparraldean, Euskal Herrian adibidez), ekonomia zirkularra martxan ezar daiteke. Ekodiseinua beraz lurralde honetako baliabideei erreparaturik (berrerabilpen zikloa, eskuragarri dauden energia industrialak...) soilik litzake eraginkorra.

b) *Eragile anitz* inplikatu behar dira eskaintzaren mailan (ekoizleak, banatzaileak, konpontze-katea...), eskaeran (kontsumo arduratsua), eta hondakinen kudeaketan.

c) *Elkarlan logika batean sartu* behar dute aktore horiek guzietan lan egin dezaten. Interes komunak sistema-ekonomikoaren interesei gailendu behar zaio. Enpresen arteko norgehiagokak apaldu behar dira, ezinbestekoa den partekatzea, elkarrekikotasun eta mutualizazio logiken aitzinean (soberakinak partekatzeko bereziki). Hori ere jendartearen biziraupen gaitasunarentzat erronka bat da, lehia eta areriotasuna

baliabideen arloan gastu handiegien sortzaile baitira eta azken hauek eskasten direlarik, gatazka iturri bilakatzen baitira.

#### 4) *Maila guzietan eman behar den mobilizazioa*

a) *Birtokiratzeak* dakarren ekonomia zirkularrak, gure lurraldearen onerako izan behar du, baina ez honentzako soilik. Klima eta bioaniztasuna ondasun komunak diren heinean, ezinbestekoa da mekanismo solidarioak martxan ezartzea herrialde behartsuenekin. Zeintzuk izan behar dira mekanismo hauek eta nola ezarri martxan? Zoritarrez gaur egun galdera honen erantzuna ez da oraindik argia, alta, birtokiratzea eta zuzentasuna bateratzeko funtsezkoa da. Gogoeta eta mobilizazio lan-sail hau premiazkoa da.

b) *Ekodiseinuak* industriaren baloreak aldatzea dakar, kontzeptu berriak bereganatuz: hornitze iraunkorra jatorrian, eta beren erantzukizuna luzatzea ondoko operazioetan. Ekoizlearen ardura ez da ondasuna saltzearekin batera bukatzen. Ekoizleak ondasun honen bilketaren gastu ekonomikoa eta ingurumen gastua ere bere gain hartu behar ditu. Horretarako, posible zaio Ekoizlearen Ardura Zabaldua (EAZ) dispositiboak erabiltzea. Honek dakar “produktuen edo hauen ekoizpenean parte hartzen duten lehen-gai edo elementuen ekoizleak, inportatzaileak eta banatzaileak, haietarik sor litezkeen hondakinak ezeztatzea edo horretan parte hartzea”. Gaur egun badira 20 bat EAZ sail (farmazia, gain-estaldi, elektrizitate eta elektronika hondakinak, etab.). Horieta gehienek antolakuntza modelo kolektibo bat hautatu dute ingurumen agentzien bidez. Kasu hoberenetan, honako jarrera edo neurri hauek ardura kolektibora darama, eta sare logistikoak, trukaketa guneak, gida edo tresnak, ezagutza eta egiteko moldeak bezalako komunen ekoizpena. Praktika horien ondorioak denentzat<sup>58</sup> dira onak eta ezin ditu eragile batek soilik bere onerako baliatu. Lurralde batean errotuak diren enpresak horrelako dispositiboetan sartzera askoz hobeki helduko dira, multinazional handiak baino.

c) *Hezkuntzak* ezinbesteko rola du. 2015 urteko Parisko COP21 Hitzarmenaz geroztik, garapen iraunkorraren inguruko hezkuntza “garapen iraunkorraren aldeko trantsizio ekologikoaren estrategia nazional modura hartzen du ofizialki Estatu frantsesak. Garapen iraunkorraren inguruko hezkuntza, ikasleen hasierako formakuntzaren parte da, eskola guzietan”. Hala ere, oraindik asko dago hobetzeko programa hauetan, eragile lokalekin zein instituzionalekin bai eta elkarteekin elkarlanean. Gainera programa honen ekintzak ez lirateke xahutzearen arazoa bezalako betiko gaitara soilik mugatu behar. Ezinbestekoa da ikasle gazteen artean kontsumo jasangarriagoaren aldeko gaitasun praktikoagoak garatzea (baratzeak kudeatzea, bizikleta konponketa ikastaroetan parte hartzea, etab.).

### **III Aukera bat eta urgentzia bat Euskal Herriarentzat**

Euskal Herriko zatiketa instituzionalengatik (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Hirigune Elkargoa), Iparraldearen kasua bereziki behereko lerroetan zehaztuko dugu. Ez da mugatze bat, abiapuntu bat baizik: begi bistakoa da muga instituzionalak gainditu behar direla eta gauzen berrerabiltzeko eta konpontzeko sare eraginkorrak Euskal Herri mailan pentsatu beharko direla.

#### *1) Onura anitz*

Euskal Hirigune Elkargoak saretzen lagundu behar du, inplikatuak diren eragile guziki harremanetan sar daitezen; Hego Euskal Herriko esperientzian oinarritzen ahal ere da

58 H. Micheaux, *Le retour du commun au cœur de l'action collective : le cas de la Responsabilité Élargie du Producteur comme processus de responsabilisation et de co-régulation*, 2017.

(bereiziki Zero Zabor ekimenean). Frantziako gobernuaren bide-orri berria ez bezala, bertan birziklatzea azpimarratzen baita, Euskal Elkargoak hondakinen prebentzioaren alde lan egin behar du eta ikuspuntu hori defendatu, Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Eskualdeko Plana plantan ezartzean. Desafio anitz badira:

a) *Enpleguen aldetik*, ekonomia zirkularrak industria klasikoak baino lan gehiago ekartzen du. Gauza bera da, hondakinen tratatzearen alorrean, berrerabilera sustatzen duten moduen kasuan: 10 000 tona hondakin erraustean, konpost edo metano bilakatzean, 3-4 denbora osoko lanpostu-baliokide sortzen dira; bereiztean, aldiz, 11 denbora osoko lanpostu-baliokide, desegitean, 50 denbora osoko lanpostu-baliokide... eta zabortegira igortzean, berriz, denbora osoko lanpostu-baliokide bakarra.

b) *Lurraldea berriz orekatzea*, ekonomia zirkularrak naturalki ekartzen du: adibidez, berrerabiltzeko eta konpontzeko, presentzia fisikoa behar da; eta funtzionaltasunaren ekonomia bat plantan ezartzeak ere (honek erabileraren ekoizleak eta kontsumitzaileak hurbil izatera behartzen ditu) ezin deslokaliza daitezkeen lekuko lanpostuak sortzen ditu, eta ez bakarrik hiri handietarik hurbil<sup>59</sup>. Bestalde, enpresek lurraldearekin duten lotura sendoagoa da, mutualizazio eta ordezkatzeko logika batzuetan sartu behar baitute; Iparraldean, euskoaren erabilerak dinamika hori indartzea ahalbidetzen du.

c) *Sozialki ere berriz orekatzen* da. Izan ere, ekonomia zirkularreko enpleguak kalifikazio mota guztiak hunkitzen dituzte, baina enplegu berri horiek probetxu gehiago ekarriko liekete langabeziak gehien jotzen dituen lurralde eta sektoreei.<sup>60</sup>

## 2) *Berrerabiltzea tratatzen duten oztopoak kentzea*

a) *Lurraren prezioa*, batez ere kostaldean. Hego Lapurdiko Hirigune mailan baliabidetegei bat egiteari buruzko ikerketa batek erakutsi du<sup>61</sup> 2000 m<sup>2</sup> inguruko eremua beharko dela. Gisa berean, bizikletari zuzendu atelier baten banaz besteko neurria 135 m<sup>2</sup>-koa da. Elkarte batentzat, horrek gehiegizko kostua erran nahi du. Baionako Txirrind'olaren adibidea inspirazio iturri da: elkarteari 550 m<sup>2</sup>-ko egoitza bat utzi zaio eta, trukean, eginkizun batzuk eman zaizkio (ikasleei bizikletak prestatzea, gertakari batzuetan mugikortasun eztea gauzatzen laguntzea).

b) *Berriz erabil daitezkeen hondakinen hobia* berrerabilpenaz eta beste gisan baliatzeaz arduratzen diren sareentzat eskuragarri izan behar da, eragile berriak ager daitezen.

c) *Elkargoen eta berrerabilpeneko sareen arteko partaidetzak garatzea*, materiala berritzen delarik (adibidez, enpresen eta partikularren altzarientzat, AIMA elkarteak).

d) *Berrerabilpenaren eta beste gisan baliatzearen* irudia hobetzea —publikoak oraindik gaizki ikusten baititu—, Euskal Herri mailako komunikazio neurri batzuei esker, sektorearen alderdi anitzak agerian emanaz, hala nola berriz diseinatzea (Recycl'Arte, Hendaian), ehunak berriz sortzea (Orratzetik Hari, Kanbon), etab.

## 3) *Konponketa tratatzen duten oztopoak kentzea*

Konponketaren sektorea zailtasunetan dago, kalitate txarreko *low cost* objektuak biderkatu baitira eta, kontsumitzailearentzat, zaila baita -eta ez errentagarri- konpontzea: gisa berean, urruneko salmentaren garapenak produktuen aniztasuna handitzen du eta konpontzaileen lana konplikatzeko. Sektore horretan, eskaintzak garatzeko zailtasunak

59 A.-L. Rebaud, *Economie circulaire et emploi : enjeux et perspectives*, 2016.

60 A. Deboutière, A. Georgault, *Quel potentiel d'emplois pour une économie circulaire ?* Institut de l'économie circulaire, 2015.

61 Recyl'Arte, *Etude de faisabilité d'une ressourcerie sur le territoire Sud Pays Basque*, 2017.

baditu; lagundu behar da.

a) *Pieza aldagarriak eskuragarri izatea* funtsezkoa da. Egitura mutualizatu bat antolatu behar da Euskal Herrian, lurraldeko eragile guzietan piezak laster eskuratzeko posibilitatea ukan dezaten. Horrekin batean, konpontzaileen zerrenda ikusgarri eta eraginkor bat egin behar da.

b) *Profesionalizazioa garatu eta formakuntza laguntzea*. Euskal Hirigune Elkargoak eta udaletxeek, eskaera publikoen baldintzen bilduman, konponketako eragileei zuzendu formakuntzak sartzan ahal lituzkete, konpontzeko sare bereziak badaudela segurtatzen ahal lukete, funtzionaltasunaren ekonomiari lehentasuna ematen ahal liokete, etab. Konponketa alorreko hezkuntza herrikoia ere oso garrantzitsua da eta lagundu behar da.

c) *Konponketari buruz kontsumitzaileek senti dezaketen konfiantza eskasaren kontra* ekin behar da, Euskal Herri mailako objektuen berregokitzeko kalitate label bat sortuz, garantia neurri batzuekin, adibidez.

d) *Norberak konpontzea, aldiz, ongi ikusia da*. Horretan bermatu behar da Baionako Txirrind'ola, Hendaiako Repair'Café, Angeluko elkartasunezko garajeak edo self-garajeak, brikotegiak bezalako ekimenak lagunduz, Fab Labs-ak, etab.

#### 4) *Hondakinen kudeaketaren eragina mugatzea*

a) *Hondakinak zakar bilaka daitezzen saihestea*, kontsigna sistemak garatuz, adibidez, eta Bil ta Garbiri eta beste eragileei bilketa sistemen zorrozteko ahalak emanez: ekipamendua babesten duten bilketak, selektiboak (jostailuak, jantziak, liburuak, ordenagailuak eta telefonoak...) eta sasoikoa (ikasleentzat eta turistentzat). Bestalde, berrerabiltzeko on diren gauzen biltzeko lekuak biderkatu behar dira, hondakindegietan eta eraikuntza eta herri-lanen arloko hondakinei errotik aurre egin behar ere.

b) *Hondakinak ekoitzi diren lekutik hurbil tratatu behar dira*. Horrek erran nahi du bio-hondakinak jatorrian tratatu behar direla, konpost-ontzi kolektiboak ezarriz (Iparraldean, kasik ez da holakorik) bereziki jantegietan, publizitate-paperentzat, etab. Gogoia emanen lukeen tarifikazio bat ere antolatu beharko litzateke eta neurri bereziak hartu, turismoarengatik kostaldean gertatzen den hondakin kopuruaren emendatzea (% 30) mugatzeko (konpost-ontzi kolektiboak kanpinetan, Donibane Lohizunen bezala, adibidez).

## 6. Komunalak, elkartasuna eta partekatzea

Ekonomikoaren arrazoiak menderatzen duen munduan, balio merkatari bat sortzen dutenak baizik ez dira existitzen (komunitate humanoaren parte-hartzaile gisa aitortuak, alegia), hau da, erosgai diren ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituztenak. Merkataritza zirkuitu batetarik kanpo dihardutenak baztertuak dira, nahiz eta hauen jarduera, ekonomia ongi ibiltzeko ezinbestekoa izan. Gauza bera da, ekonomiak soldatapeko lanposturik edota jarduera salgarririk ematen ez dien guzientzat, geroz eta gehiago direnak.

Ekonomiak ez die jada biztanleen beharrei erantzuten, baina bere irizpideak lehen planoan dira beti. Adibidez, jende batzuk pozten dira Greziak Europako Banku Zentralak eskaturiko betebeharrak bete izanaz, batere kontuan hartu gabe aldi berean ematen den haurren hilkortasun eta suizidioen emendatzea, osasun sistemaren eta azpiegitura publikoen okertzea, etengabeko pribatizazioa, langabezia eta desterru masiboa...

Ekonomiaren zentraltasun hori iritxi da puntu batera, non eta aterpegabeko edo migrante bat laguntzeko prest agertuko garen soilik honek « gaitasun balioetsiak » baldin baditu eta ekonomian integratzeko gogoia adierazten badu. Bizitzeko eskubidea balore merkatariaren ekoizpenak baldintzatzen duela pentsatzera iritxi gara. Alta, ongi dakigu gaur egun langabezia egiturazkoa<sup>62</sup> dela, hala ere langabeziaren erantzukizuna langabetuen gain ezartzen da, eta iragaten da aberatsenek, arazoak kontziente, konponbiderik atzeman nahi ez balute bezala, beren komunitatean gotortzea erabaki balute bezala, ordain-ahalmen eta mugikortasun<sup>63</sup> guttiena dutenak beren zorte larrian utziz.

Egungo erronka, ekonomia hori ezeztatzea da, gu ezezta gaitzan baino lehen. Epe luzera, merkantilismotik urruntzen den ekonomia bat berrosatzea da helburua, eta biziaren berritzea berriro ere erdigunean ezartzen duena. Oraingoan, urgentziatzeko aterabideak martxan ezarri behar dira, jadanik baztertuak direnentzat edo izanen direnentzat.

### I Gizarte jasanezina

#### 1) Nazioartetik bertan behera uztea

a) *Baliabideen lapurreta* Hegoaldeko herrialdeetan: Hegoaldeko herrialdeen baliabide materialak baliatzeko lur iraulgarrien<sup>64</sup> lapurreta emendatuz doa, horien arrain, egur, metal arraro edota energia fosilen harrapatze jasanezin eta usu ilegala. Zaintza lanak ezagupen gutti duen gure gizarteetan, maiz Hegoaldeko emazteak dira horretaz arduratzen, lan-sari biziki apalen truke. Emigrazio ekonomiko «hautatuak», herrialde behartsuenei heziketa hoberena izan duen gazteriaren parte handia kentzen die.

b) *Hegoaldeko herrialdeetako langileen esplotazioa*: XVIII. mende erditsuan, Montesquieuk zion azukrea garestiegia zitekeela, esklabuek<sup>65</sup> ez balute kanabera landuko. Ber logika zinikoak segitzen du gaur egun, eskuz ekoiztako ondasun gehienekin (jantzi industria, elektronikak, metalurgia) duela gutti arte «munduko lantegia» zen Txinan, eta geroz eta herrialde merkeagoetara mugitzen da (Vietnam, Bangladesh, Etiopia). Ber maneran esplotazio hori jasan arazten da etorkinei, Estatu batzuek haien egoerataz baliatzeko ez dutelarik dudarik<sup>66</sup>.

62 Norbert Trenkle et Ernst Lohoff, «La Grande Dévalorisation», 2014

63 Bruno Latour : «Les super-riches ont renoncé à l'idée d'un monde commun» <http://palimpsestes.fr/blocnotes/2017/mars/latour.html>

64 Agnès Stienne, «Terres volées d'Éthiopie», Le Monde Diplomatique, 2013ko abendua. [NDLR Etiopiaren adibidea esanguratsua da eta maleruski ez da bakarra]

65 Montesquieu, De l'Esprit des Lois - XV. Liburua, 5. kapituluak

66 «Comment l'Allemagne intègre les migrants avec des salaires à un euro de l'heure» <http://>



c) *Hegoaldeko herrialdeen baliatzea* mota guzietako zaborrak botatzeko (bereziki zabor plastikoak, elektronikoak, kimikoak, nuklearrak), hemen ere soilik gastu arrazoiengatik: ekoizpenak hobeki diseinatu ordez zabor gutxiago sor ditzaten (ikus birziklatze kapitulua), merkeagoa da zaborrak sailkatze sistemarik edo ingurumen-arau zorrotzik ez duten herrialdeetara bidaltzea, hango haurren osasunari kalte handiak eginez.

d) *Ondorioen ardurarik ez hartzea*: aldaketa klimatikoarengatik bizi ezinak bilakatu diren munduko lehen eremuak tenperatura gorenak pairatzen dituztenak dira, batez ere Hegoaldeko herrialdeak. Egun, badakigu errefuxiatu klimatikoak gatazkei ihes egiten dietenak baino gehiago direla, eta kopurua 250 milioi ingurukoa izanen dela hemendik mende erditsura<sup>67</sup>. Alta, mendebaldeko Estatuak, alde batetik beroketa klimatikoa 1.5 graduren petik egon dadin eta erregai fosilen ateratzea uzteko beharrezko neurriak ez dituzte hartzen, eta bestalde batetik, hautu horien ondorio humanoari aurre egiteko unean, oraino ere diru gastua zein izango duen neurtzea da beren logika: «Zenbat kostako zaigu migranteen harrera?» Erritmo horretan, gatazkek eta larrialdi klimatikoek suntsituriko planeta batean izanen gara laster, buruzagiak gastu publikoen murrizteaz poztuko direlarik.

e) *Harresi eta pareta egitasmoak*: lurretik desloturiko finantza logika horri gehitu behar zaio zigor logika, gastatzeko duda guttiago eragiten duena, herrialde industrializatuetara iritxi nahi duten migranteak kanporatzeko. Orduan, paretak eraikitzen edo zainketa sistema erraldoiak ezartzen dituzte, migranteak «mundu aberatsen» mugaren bestaldera berriz botatzeko: Estatu Batuen eta Mexikoren mugaren luzera, Erdialdeko Europan edo Mediterraneoan<sup>68</sup>.

## 2) Tokikoa bertan behera uztea

a) *Finantza mailako logika*: Euskal Herrian, mendebaldeko herrialde gehienetan bezala, “balioaren” eta “kostuaren” logika berak nagusitu dira lanaren antolaketan ez ezik (mekanizazio, informatizazio, deslokalizazio) baita zerbitzu publikoetan ere (pixkanaka barreiatuak, bereziki baserri guneetan), eta lurraldearen antolakuntzan (aberastasunak, konektibitatea, enplegu eta zerbitzuak biltzen dituzten metropolien eta hiri bazterren artean gero eta banatuagoak, hor kokatzen baitira «balore gabekoak» bezala kontsideratzen direnak, sistemak abandonatzen dituelarik).

Honen guziaren ondorioa da zatiketa soziala gero eta handiagoa eta komunitatearen sustenguaren eskasagatik dirurik ez dutenak dira lehen biktimak: behartsuenak.

b) *Zigorren logika*: enpleguak, zerbitzu publikoak eta metropolien ondoan bizitzeko ahalbideak murrizten diren denbora berean, estatuaren egiturak apurka-apurka lerratzen dira behartsuen kontrako gerla orokor batera buruz: guttieneko laguntza sozialak eta bizitegi sozialen laguntzak apaltzea, kalte-ordainak hunkitzeko nekezia, behartsuei egiten zaien tratamendu desberdina medikuaren artak ukaiteko edo administrazioarekiko urraspideak egiteko, langabeei beren lan bilaketan egiten zaien espioitza (jakina delarik langabezia egiturazkoa dela), gehiegikeriaz, zerrendetatik kentzea,.

Hor ere, zigor bikoitza jasan behar dute hiri inguruetara urrundua diren behartsuek, zerrendetatik baztertuak ez izateko (diru galtzeak) gastu gehigarriak dituzte (ezantza, autoaren higadura, gutun igortzeak) edo balia ez ditzaketen zerbitzuen eskasia pairatu behar dute (garraio publikoak, interneteko emari nahikoa eza).

---

[www.atlantico.fr/decryptage/comment-allemande-commence-integrer-migrants-avec-salaires-1-euro-heure-guillaume-duval-2648804.html](http://www.atlantico.fr/decryptage/comment-allemande-commence-integrer-migrants-avec-salaires-1-euro-heure-guillaume-duval-2648804.html)

67 «Bientôt 250 millions de réfugiés climatiques dans le monde» [https://www.lexpress.fr/actualite/societe/environnement/bientot-250-millions-de-refugies-climatiques-dans-le-monde\\_1717951.html](https://www.lexpress.fr/actualite/societe/environnement/bientot-250-millions-de-refugies-climatiques-dans-le-monde_1717951.html)

68 Migrants : quand l'Europe s'emmure [https://www.lemonde.fr/immigration-et-diversite/article/2015/09/03/migrants-quand-l-europe-s-emmure\\_4744960\\_1654200.html](https://www.lemonde.fr/immigration-et-diversite/article/2015/09/03/migrants-quand-l-europe-s-emmure_4744960_1654200.html)

## II Elkartasuna berriz sortzea tokikoa birkonektatuz

Horrelako egoera bat, gure aktibitateen urruntzearen ondorioa izanik (ustiatze merkearen eta hondakinen deslokalizazioa) baita jende baztertuen urruntzearena ere (gero eta gehiago deshumanizatuak eta «kostu» gisa kontsideratuak soilik), ezin da errealitatetik kanpo konpondu, aitzitik, lurraldeekin berriz konektatutako ekimen batzuei esker baizik ezingo da, merkantilizaziotik pixkanaka ateratzeko bidean ezarriko gaituztenak. Gure burujabetzak, lotura sendoak dituen biztanleriaren beharra du, emaitza eta elkar laguntzearekin berriz lotuko dena, eta oraingo eta biharko erronkez ohartzen dena, hemen eta leku guzietan.

### 1) Nazioartetako elkartasuna

a) *Kalte egiteari uztea*: munduko beste eskualdetako biztanleen aldeko lehen elkartasuneko jostua da beren bizi baldintzak ez zangopilatzea, erran nahi du Euskal Herriko gaitasun ekologikoaren arabera bizitzea (ikus neurritasuna), gelditu behar da esklabotasunaren bidez ebatsitako edo ekoiztutako ekaien inportazioa (tokiko hein bereko ekaiekin ordezkaturik eta gure ohidura jasanezinak aldatuz), eta gelditu hondakinen esportazioa (ikus neurritasuna, berrerabiltzea eta konponketa).

b) *Larrialdiari harrera egitea*: Euskal Herria luzaz atzerriratze lurra izan da miseriaren aitzinean ihes egiten zuten gure arbaso anitzentzat, gaur egun zordun gara eta harrapakariak eragin kaosagatik eta klima aldaketagatik ihes egiten dutenei harrera egin behar diegu. Eta «kostu» abstraktu hitzez arrazoitu baino, ikus dezagun zenbatekoa den Euskal Herriaren gaitasuna harrera egiteko eta zehatzago izanez, zenbat laborantza eremu den biztanleka.

c) *Burujabetza ekimen batzuk bultzatzea beste lurralde batzuetan*: norbere herritik ihesi joan beharra beti bihozmina da, gainera itxuraldatua delarik eta bizi duin baten gutieneko baldintzak desagertzen direnean. Oraindik posible den leku guzietan, behin hemen definitzen ari den burujabetza abiatuta, munduko beste lurraldeen burujabetza lagundu behar dugu.

### 2) Komunalak birsortu

Lana bakantzen eta gizarte gero eta gehiago puskatzen ari den tenorean, komunitate zabalak berriz osatu behar ditugu, elkarrenganako segurtasuna eskainiz, bizi duin baten baldintza material eta sozialak segurtatuz (etxebizitza, oinarriko behar-orduak eta parte hartzea bizitza kolektiboan), ekimen komunitarioen eta publikoen bitartez. *Baltsan* eta *auzolana* hitzen erran-nahia berriz atzematea, baltsan ezartzea, eta elkar laguntzea hurbilekoen eta auzokoen artean, besten, errituen eta salgai ez diren talde sorkuntzen sentsua. Begirada «moderno» duen batentzat, ohidura sozial horiek interes gutikoak iduri dezakete, alta beren presentziak edo eskasiak funtsezko desberdintasuna eragiten dute, alde batetik bizi zatikatua, indibiduala, eta merkantziaren menpekoea eta bestaldetik elkarren babesa, kideatasunaren sentsua, salgai ez diren loturen aukera. «Lehen» herri bizitza idealizatu gabe, bere alde hetsiak baitzituen honek ere, baina zuen erresilientzia gaitasuna berreskuratuz eta hau berriz eraikiz itxura berriturik.

## III Konkretuki

*Justizia bete behar da beti, karitatea baliatu aitzin (Nicolas Malebranche, 1638-1715).*

## 1) Birbanaketa

Zerga sistema zuzena desmasia ekologikoak eta sozialak konpontzen dituen, eta erresilientzia eraikitzen duena:

a) *Klimaren aldeko borroka diruztatzea*: %5eko enpresen gaineko zergak, Euskal Herriko 3 entitate administratiboen mailan, diruztatuko luke klimaren aldeko borroka eta egokitze funtsa.

Adibidez, Europan Estatu Batuetan baino batez besteko zerga tasa %5 apalagoa den testuinguruan, Trumpek aberatsen faboretan egindako zerga birmoldaketaren ondotik ere, horrelako zerga bat aise justifikatzen da, bereziki klima aldaketaren<sup>69</sup> eragile handienak diren enpresak hunkitzen dituelarik.

Kerosenoaren zergaren salbuste osoarekin bukatu behar dugu: politika fiskal ekologikoki zentzugabekoaren adibide izateaz gain, sozialki bidegabea ere da, jende dirudunak baitira hegazkina gehienik hartzen dutenek.

b) *Oinarrizko ondasunak, hala nola ura, sozialki tarifkatzea*: tarifkatze horren funtsa da oinarrizko erabilera urrik eskaintzea (lehen ur m<sup>3</sup> edo argindarreko lehen kWh) eta gain-erabilera, berriz gainkargatzea, hau da, luxuzko kontsumoa azkarki kobratzea, hots, pertsona bakoitzeko kalkulatzeko den zentzuzko goi-mailatik gorakoa.

c) *Aberastasunen birbanaketa politika boluntaritsa*, Euskal Herriko hiru administrazioen mailan. Halako politika bat are errazago izanen da, ekoizpen eta kontsumo guneak zinez bitokiratzea lortzen badugu. Nazioarte mailan ez gara hain lehiakor izanen, baina asmoa, hain zuzen, lehia horretatik askatzea da eta gure jardunak gurera ekartzeak *dumping* sozial horietatik babaestuago ere gintuzke.

d) *Bizitegi politika bat* orori bizitegi duina eskaintzeko; horretarako, bigarren bizitegiak heda ez daitezen behar moduan zergapetzea edo herriek bere gain har ditzaten larrialdi egoerei erantzuteko.

e) *Estatuaren gutxieneko gizarte laguntzen beheratzea ordezkatzeta, beheratze* horrek kaltetu ditueni ordezkotako pentsioak eskainiz: eskubide gabe gelditu diren langabeak, diru sartze eskasak dituzten ama bakartuak, ordaingabeako jardunetan aritu direlako kotizazio eskasa duten erretretadunak, beharturiko lanaldi murriztuko langileak...

## 2) Nazioarteko elkartasuna

a) *Jendeen hartzeko ahala*: Euskal Herriak, bere azken urteotako historian (XIX. mendea eta XX. medearen lehen zatia), 150 000 pertsona inguru galdu zituen Ameriketara joan ziren emigranteengatik; garai hartako biztanleen % 15 galdu zuen horrela. Gaur egun Eropako eskualde nahiko aberatsa gara, eta ostaturia eman behar diegu gaur egun miseriatik ihes egiten dutenei. Burujabetza solidario eta jasangarriaren ikusmoldean, gure harrera-ahalmena zehaztu behar dugu, hasteko elikadura ekoizpenari dagokionez (Euskal Herriaren biztanleko laborantza eremua gaur egun 3000 m<sup>2</sup> ingurukoa da, horiek goratasun eta zonalde klimatiko ezberdinetan banaturik, egoera bakoitzean landaretan gehiago oinarritutako laborantza erresilienta bat plantan ezartzeko asmoa izanik, eta horrez gain baratzezaintza egiten ahalko den hiri inguruko eremu guztiak gehitu beharko da), etxebizitzari dagokionez (gaur egun asko hutsik edo gutiegi okupatua izanik, turismo gehiegi edo landa eremuen hustearen gatik), edo energia berriztagarri ekoizpenari dagokionez, kontsumo neurritsu eta eraginkorreko ikusmolde batean (ikus energia berriztagarriak kapitulua). Harrera-ahalmen hori, klima tropikalean kokaturik ez den lurralde bakoitzak egin beharko duen lana da, errefuxatuen harrerari buruz.

---

69 [https://www.sciencesetavenir.fr/nature-environnement/100-entreprises-responsables-de-plus-de-70-des-emissions-mondiales-de-carbone\\_114773](https://www.sciencesetavenir.fr/nature-environnement/100-entreprises-responsables-de-plus-de-70-des-emissions-mondiales-de-carbone_114773)

b) *Egokitze Funtsak*: energia berriztagarrietan ez bezala, hegoaldeko herriek ez dute lortzen klima molde berrira egokitzeko funtsak eskurtazera. Ezinbestekoa dugu lurralde eta herrialdeen arteko elkartasun kutxa gara dezagun, burujabetza eta erresilientzia gara dezaten hango lurraldeetan ere.

### 3) Tokiko elkartasuna

a) *Kontrol sozialeko neurriei aurka egitea*. Aberastasunak banatzeaz gain, langabeen kontrol masiboa gertatzen ari den garai honetan eta existitzen ez den lanpostuaren xerka etengabe ari direla erakutsi behar dutelarik, jendeak eta enpresak antola daitezke lanpostu bila dabilzanaren agiria behar dutenei agiri horiek eskaintzeko Milaka aukera dago sistemak bazter<sup>70</sup> utzi nahi dituztenei diru sartzeak segurtatzeko.

b) *Bizilekua birpentsatzea*. Iparralden ematen den bizilekuen hedatzea oso kaltegarria da alde guztietarik: garraio beharrak, energia kontsumoa (bakarkako etxeen berotzeak energia gehiago eskatzen du bizitegi kolektiboek baino), gizartearen atomizatzea eta gizarte loturaren desagertzea lotarako besterik ez diren bizitegi multzo eta auzoetan. Hainbat eta hainbat ekimen sortzen ari da hori aldatzeko; ekimen horiek sostengatu behar dira eta azkartu: parte hartzeko bizilekuak, belaunaldien arteko bizilekuak (ikasleak, adinekoak, familiak hartzeko pentsatuak), adineko pertsonak familietan hartzea, adibidez, besteak beste.

c) *Diru gutxien duten senitartekoei etxearen energia eraginkortasuna hobetzen laguntzea*, horretarako programak diruztatuz (hala nola *Programme d'Intérêt Général Lutte contre l'habitat indigne et dégradé* deituriko programa) eta horrekin batera, lekuen alokatze demasazkoak egiten dituztenen aurka arituz.

### 4) Jendeen beharrei erantzuten dien ekonomia

a) *Ekoizpena aldatzea, gizartearen eta ekologiaren beharretara egokitzeko*; horrek 116 000 lanpostu «klimatiko» sortzeko aukera emanen liguke Euskal Herrian<sup>71</sup>, alor orotan: laborantzan, industrian, energia soiltasunean, energia berriztagarrietan, bizitegien berriztapen energetikoan, mugikortasun jasangarrian, hiri hondakinen berrerabileran, zenbait ekoizpen gurerara ekarri, banabide laburretan eta hurbileko saltegietan.

b) *Herrien mailan, diruztatze etikorako tresnak garatzea* (udal kreditu kutxak); horien bidez, burujabetza iraunkorreko urraspedeko proiektuak lagun litezke

c) *Herri mailan, kooperatibak sor daitezkeen bultzatzea*, elkarlaguntzako ekonomia iraunkorrean arituko direnak; horretarako, kreditua erraztea (ikus aitizneko puntua) eta lur edo eraikin publikoak eskainiz.

---

<sup>70</sup> Adibidez aipatzen ahal ditugu kandidatura ukatzeko eskutitz-ereduak, enpresen idatziak CVA atxikitzen dutela erranik, MOOCen jarraipen edo lorpen agiriak, zeregin ttikientzako enplegatzaile kontu pertsonalen sortze masiboa, etab.

<sup>71</sup> Iparralderako: <https://bizimugi.eu/groupes-thematiques/travail/demain-10-000-emplois-climatiques-en-pays-basque-nord>  
Hegoalderako: <https://www.slideshare.net/mfundazioa/klima-aldaketa-eta-enplegu-berdeak-iraunkortasuna-etorkizuneko-apustua>

## 7. Ekofeminismoa: bidezko ekonomia jasangarri batera.

Ekofeminismoari – *ekologia* eta *feminismo* hitzen kontrakzioa – loturiko pentsamenduak, paraleloan ezartzen ditu bi menderatze motak: gizonena emakumeen gain, eta gizakiena izadiaren gain.

Ekofeminismoa ikusmolde ezberdinez osaturik da, eta testuinguruen arabera era ezberdinetan garatu da. Hegoko herrietan, tradizionalki ezarria zaien rolarengatik (ura eta egurraren ekartzea, etxe kontsumorako laborantza.....), emakumeek dituzte larrien pairatzen, ingurumenari eginiko kalteak. “Iraultza ferdeak” sorturiko nahasketen (pestizidek sorturiko eritasunak, lurzoruen erosioa, tokiko burujabetzen desagertzea) lehen biktimak izan ziren ere. Honek, ingurumenaren babeserako emakumeek bultzaturiko mobilizazio azkarrak bideratu zituen. Adibidez *Chipko* mugimendua oihanen babesaren alde Indian, *Green Belt Movement* Kenyan... Iparreko herrietan, mugimendu hori arma nuklearren aurkako borroken inguruan egituratu zen batez ere (*Women’s Pentagon Action* Estatu Batuetan 1980an edo bakearen *le camp des femmes pour la paix de Greenham Common* (Inglaterran). Analisi ekofeministek integratzen dute ere kolonialismo eta neokolonialismoaren eragina gura gizarteetan.

Ikusmolde ekofeminista batzuek sorginaren irudia bereganatzen dute ere, emakumeen eta izadiaren zapalkuntzaren kritikan. XVII. mende hasieran iragan ziren sorginen ehiza handiak – garaiko emagin eta sendagileen ehiza, baita alargun, ezkongabe, haurgabe edo emakume zaharren ehiza ere - emakumeen askatasun maila bortizki murrizteko. Horien ondorioz emakumeak gizon baten mempe biztzera *de facto* behartuak ziren, sorginak zirelakoan erreko zituzten beldurrez. Ondoko hamarkadetan hasi zen biosferaren baliabideen ustiaketa masiboa, “argien mendea”. Garai honen ideologia berria irudiztatzeko, Francis Bacon filosofoaren aipamena gogora ekar dezakegu, zera erraten zuelarik: “*zientziari esker Lurra torturatzen ahal dugu, honen sekretuak ateratzeko eta ezagutza bilakatzeko, horrela bere funtseraino nagusitu eta menderatzeko*”. Industria-iraultzarekin, ustiapen bikoitz hau – emzteen eta izadiaren ustiapenak – Europatik Ipar Amerikara eta mundu osora zabaldu zen. Gaur egun arazoa globala bilakatu da, horrela izanik aiseago estaltzen da sistema hori historikoki eta sozialki eraiki zela<sup>72</sup>.

Patriarkatuaren aurkako eta kapitalismoaren aurkako borrokak lotuz, ingurumenarentzat jasangarria litzatekeen eta gizartean emakumei beren toki osoa emanen liekeen ekonomia birpentsatzeko laguntzen du ekofeminismoak.

### I Ekonomia modernoan, emazteen menderatzearen eta izadiaren suntsipenaren erro amankomunak

#### 1) Dohainik eta ezagutu gabeko ustiapena

Ekonomiaren ikusmolde kapitaista gaur egun karrika itsu batean dago. Salgaiak eta ordain-ahalmena duten pertsonak baizik ez ditu ikusten, eta salgaiak sortzea baizik ez du lan gisa begiratzen. Finantza etekina baizik ez du onartzen eraginkortasun adierazle gisa, eta prezioa izan dezakeenari baizik ez dio balorerik ezartzen. Horrela eginik, ikusmolde honek biziaren berriztatzea arriskuan ezartzen du. Alta, sistema ekonomikoak doihainik eta ezagutu gabe diren balabideen bidez baizik ez du funtzionatzen :

72 Roswitha Scholz, Remarques sur les notions de «valeur» et de «dissociation-valeur» <http://www.palim-psao.fr/2017/03/remarques-sur-les-notions-de-valeur-et-de-dissociation-valeur-par-roswitha-scholz.html> ikus ere Johannes Voegelé, Le côté obscur du capital. « Masculinité » et « féminité » comme piliers de la modernité <http://www.palim-psao.fr/2017/10/le-cote-obscur-du-capital.masculinite-et-feminite-comme-piliers-de-la-modernite-par-johannes-voegele.html>

a) *biosfera*, aldi berean erabiltzen ditugun bere baliabideez eta gure zaborrak xurgatzeko bere ahalmenaz,

b) *emakumeen gain dagoen zaintza lana*, haurrak zaintzeko eta hezteko lana mundu osoan gehiengo handian emakumeen gain dago, baita zaharren, erien edo meneko pertsonen zaintza ere<sup>73</sup>.

Halere ongi frogatu da gaur egun kutsatzaile-ordaintzaile printzipioa orokortzen balitz, inongo inductria handirik ez litzatekeela errentagarri izanen<sup>74</sup>, haien ekinmolde jasangaitzengatik. Era berean ekonomia modernoa ez litzateke errentagarri izanen, langileria izatera heltzen den haurren sortze eta zaintza lana ordaindu behar balu<sup>75</sup>

## 2) *Ustiapen itsu honek biziaren berriztapena arriskuan ezartzen du*

Industriak ingurumenari eginiko kalteak (externalitateak), baliabideen mugatutasuna eta zaintza lana, luzaz ezikusiak izan dira, sistemarentzako erraztasunez, baina arazoa hainbertze loditu da, ezin baita gehiago itsuarena egin:

a) *biosferak ez du gehiago xurgatzen* klimaren nahasketa atmosferan berotegi efektuko gasen isuriketa jasangaitzengatik; muturreko eguraldiak gero eta maizago eta bortitzagoak; lurpeko uren, erreken eta airearen kutsadura, eritasunak eta heriotza sortzen duten mota guzietako hondakinen bidez (airearen kutsadurak bakarrik urtero Europan 500 000 hildako eragiten ditu<sup>76</sup>),

b) *biosfera agortzen ari da*: lurzoruen emankortasunaren suntsipena, oihan mozte jasangaitza, stock anitzen gehiegizko arrantza, lur eta itsasoan biziaren 6. desagerpen haundia, baliabide fosilen eta metal urrien agortzea,

c) *ekonomiak ez die gehiago gure beharrei erantzuten*: salgaiak sortzen dituen lanak, edo soldatapeko lana baizik ez da ordaintzen, baina gero eta prekarioagoa da, eta langabezia-maila gora izatea, egiturazkoa bilakatu da. Lan bat ukaiteak ez du beti bermatzen bizitzeko gutieneko duina ukaitea, eta lanik ez lortzeak baztertzera kondenatzen du. Ekonomiak ez die gehiago populazioen beharrei erantzuten, eta parekotasunik ezak emendatzen dira hainbertze non eta egoera horretara bideratu duten politikak sustengatu dituztenak kezkatzen baitira<sup>77</sup>, era berean muturreko eguraldiez kezkatzen diren bezala<sup>78</sup>, irri egiteko gisakoa litzateke milioka bizitza ez balira mehatxatuak.

d) *ekoizpenak bizia arriskuan ezartzen du*: kontsumo arrunteko produktu asko arriskutsuak dira pertsonentzat (minbizi eragile diren “elikadura”-koloratzaileak; edukiontzietan endokrino-nahasleak, batez ere biberioak; garbiketa produktuetan molekula toxikoak), beti berantegi deskubritzen diren arriskuak, urtero molekula berri zenbaezinak agertzen direlarik, hauen eraginak urteak edo hamarkadak pasa ondoren baizik ez ditgularik ezagutuko. Kimikaz aparte, ekoizpen prozesuek berek langileen biziak mehatxatzen dituzte. Lana eta pertsona loratzea ez datoz bat, honen ordez lanak morbiditatea eragiten du: muskulu-hezurretako nahasmenak, depresioak, *burn-out*, infartuak, suizidioak, gero eta arruntagoak bilakatzen dira.

---

73 Aipa dezakegu ere lana ongi egiteko grina, langileen betiko engaiamendua kalitatezko lana bermatzeko eta egiazko beharrei erantzuteko, askotan “kostuaren” logikak inposaturiko oztopoak tertean izanik ere.

74 Ikus <https://e-rse.net/industriel-pollueur-payeur-rentable-270108/#gs.pi7qamg>

75 Teorialari batzuk lan hori *ugalketa lana* deitzen dute, eta frogatzen dute nola sistema kapitalista eraiki zen XVII. mendetik goiti emakumeak etxeko lanetara esleitzean, non eta ezagupenik gabe usiatzen den egiten duten lan hori. Ikus Silvia Federici, “Caliban et la sorcière - Femmes, corps et accumulation primitive”, éd Entremonde, 2014

76 Agence Européenne pour l’Environnement, Qualité de l’air en Europe, rapport 2017

77 Davoseko foro ekonomikoa, 2014ko urtarrila

78 Davoseko foro ekonomikoa, 2018ko urtarrila

Azken hamarkadetan karbono fosila ustiatzen duen ekonomiak marraztu duen mundu berri honetan, bizia berritzen duten prozesuak gaur arriskuan daude. Halere, finantza-errentagarritasunari edo aurrekontuen soberakinei baino garrantzi gutiago ematen zaie. Aurrekontu soberakinak euriteen zikloa doitzeko edo egunero haurrak zaintzeko gai balira bezala.

### 3) *Lehen biktimak: emakumeak, bereziki txiroenak*

#### *a) Herri industrializatuetan:*

Etxeak zaintzeko lana, nagusiki emakumeen esku, ez da lan gisa ezagutzen. Soldatapeko lanaren garapenak eragin du lan egun bikoitza, soldatapeko eta etxea zaintzeko lana metaturik eta emakumeak beren lanbideetan kaltetuz (familiak edo lanaren antolaketak beharturiko denbora partzialeko lana, haurrak zaintzeko absentismoa...). Honek ama isolatuen prekarietatea ere egin du. Emakumeek gizonak baino soldata ttikiagoak izaten jarraitzen dute, nahiz eta ikasketa maila goragoa izan (Frantzian, emakumeek gizonak baino %18,6 gutiago irabazten dute, INSEEren arabera). Ardura handiko lanpostuetan ere emakume gutiago daude.

#### *b) Hegoko herrietan:*

Egunero dolar bat baino gutago duten 1.2 miliar pertsonen %70 emakumeak dira. Munduko elikaduraren %60tik 80ra ekoizten dute, baina lurraren jabetza tituluen %10tik 20ra dute.

Haien ahalmen ekonomikoak murriztu eta askotan haien ingurua sakonki kaltetu duen zapalkuntza kolonialaren ondorioak pairatuz, garapenaren eta globalizazioaren eraginek emakumeak larriki kaltetzen dituzte. Anitzetan Iraultza Ferdetik baztertuak, haien ohizko jarduerak (egurra edo uraren bila joatea) zailduak edo oztopatuak dira, laborantza lanaren industrializatzeko eta salgaitzearen ondorioz.

Klima aldaketaren ondoriozko gatazken (egongaitzasun politikoa eta baliabideetarako gerlak) lehen biktimak dira askotan. Gatazka horiek gero eta jende gehiago erbesteratzera bultzatzen dute, eta mugitzeko ahalmen gutiena dutenak kondentzen dituzte: haurrak, zaharrak, meneko pertsonak, horien zaintza lana nagusiki emakumeen esku delarik.

## **II Ongi bizitzeari bere tokia berriz ematen dion ekonomia**

Ekonomia zera da: gizartearen berriztatzea – gizartearen metabolismoaren elikatzea – bermatzen duten gai eta zerbitzuen eskuratze prozesuen osotasuna. Honek barne hartzen du, teoriarik, meneko pertsonen zaintza, baita jasaten gaituzten ekosistemen babestea eta berriztatzea. Etekinak eta aurrekontuen soberakinen bilatzeak tokia utzi behar dio gure bizi baldintzen sortzeari. Gure haurren osasun eta hezkuntzarako kaltetara, gutiengo batentzako finantza etekinak sortzea ez da ekonomiaren helburua izan behar. Ekonomiaren helburua bizi on baten, gizarte osorako bizigarri den bizi baten badintzak sortzea izan behar da.

### *1) Genero justizia integratzea*

Gizartearen maila guzietako gobernantzan, emakumeak osoki integratzea, eta etxeak zaintza lanak zuzenki banatzea emakume eta gizonen artean. Horretarako, erakunde funtzionamenduaren aldaketa bat oinarritik erabakitzea beharrezkoa izanen da (ikus Lurralde alternatibak kapitulua), baita kultura eraldaketak ere (etxeak baita lan eremuan ere), herri hezkuntzak bultzatzen ahal duena, eta gaur egun Euskal Herriaren zati handi batean dagoen mugimendu feministak.

## 2) *Ekodependentzia integratzea*

Oraingo eta etorkizuneko biziak arriskuan ezartzen duten jarduerak gelditzea: lorzorua hondatzen dituen eta osasunarako kaltegarria den elikadura ekoizten duen laborantza; lurren, airearen eta uraren pozointzea, monolaborantza, autoaren meneko lurralde antolaketa, zaharkitze programaturiko ekoizpenak edo ekoizpen kaltegarriak, erauzkeria edo extratibismoa.

Kutsatzaile-ordaintzaile printzipioa jarduera guzietara orokortzea (adibidez zerga profesionala eta tokiko zergen bidez, edo ibilgailu pisuentzako kutsazerga baten bidez) eta orokorkiago, eragile guziak beren jarduera guzien ondorio ekologiko eta sozialak kontuan hartzea behartzea. Honek, jarduerak etekinera bakarrik baino, helburu sozial eta ekologikoetara birbideratzen lagunduko du.

Gure lurraldearen ekosistemen harrera-ahalmenaren mailan bizitzera, ez gorago.

## 3) *Elgarren menekotasuna integratzea*

Zaintza-lanari bere balore guzia berriz ematea: ahulentzat dugun arreta gure jendetasun mailaren adierazle da.

Instituzio mailan ugalketa eta zaintza-lanaren ezagutzea. Ondorioz, irabazi berdintasun ezak konpentsatuz (ikus *amankomunak*, *elkartasuna*, *partekatzea* kapitulua) eta haien zaintza-lanaren mailako irabazirik ez dutenei, bizi-baldintza duinak ematea: ama isolatu eta prekarioak, soldata ttikiko artatzaile-laguntzaileak, inposaturiko denbora partzialeko lana duten garbitzaileak, senide eri bat zaintzeko beren lana utzi duten pertsonak.

(NB: biziaren berritze eta sortzearen gaiak, emakumeek beren gorputza eta ugalketaz jabetzeko eskubide osoarekin bat egiten du).

## 4) *Ekonomia-eredu etiko bat bermatzea:*

Ondasun amankomuna ekonomiaren erdian berriz ezartzeak horrelako eredu ekonomiko bat behar du:

- erabilgarritasun sozialaren zerbitzura, pertsonak eta ingurunea errespetatzen dituen
- lankidetzan oinarritua
- lurraldearen eta bere biztanleen beharrei egokia den tokiko ainguratze bat duena
- gobernatze sistema demokratiko eta partekatua duena
- irabazi mugatuak sortzen duena eta erreserben partekatze bat ekartzen duena

## **III Mundu mailako arazoa, lurralde mailako erantzunak**

Lurretik desloturiko sistema batetik ateratzea hobe egiten da giza-eskalan, lurralde mailan. Gaur bizitzarako ezinbertzekoa da lurrera itzultzea, parte hartzen dugun lurraldeetara, zeinetan lurretik desloturiko errentagarritasunaren bilaketaren ondorioak gure bizitzetan hautematen baititugu, eta biziaren berritzapen prozesu guzietan lehentasunezko toki bat ematen ahal baitiegu.

### 1) Azterna ekologiko bideragarri batera itzuli

a) *Kutsazerga bat plantan ezartzea* gure lurraldearen erresilientzia eta emankortasun biologikoa kaltetzen duten jarduera guzientzat: ibilgailu astunak, hegazkintza, BEG asko isurtzen duten eta airearen kalitatea kaltetzen duten industriak, ongarri sintetikoak eta belar-pozoinak erabiltzeagatik lurpeko urak kutsatzen duen laborantza, laborantzako lurzoru baten artifizializazioa, espezie bakarreko basogintza (adib: pinuak edo



eukaliptoak). Zerga autonomia ezberdina izateagatik, neurri hori gaur errexkiago hartzen ahal da mendebaldeko Euskal Herrian (hots Euskal Autonomia Erkidegoa) ekialdekoan baino, baina bere plantan ezartzeak errepikatzeko eredu bat izanen litzateke.

*b) Lurralde antolaketa birpentsatu*, baita garraio beharrak (ikus Garraioak eta mugikortasun jasangarria kapitulua).

*c) Energia beharrak birpentsatu*, zaharkitze programatua duten produktuetan zerga bat ezarri, ahal den guzietan teknologia sinpleko tresnak bermatu (ikus Neurritasuna kapitulua).

## 2) Zaintza lana aintzat hartu, ezagutu eta bideragarri egin

- a) Gizonak ko-arduratu*: komunikazio aktibo bat bultzatu patriarkatuaren diskurtsoa huts eginarazteko, ugalketa lanaz eta etxeko zaintza lanaz ohartarazi.
- b) Minima sozial berezi bat plantan ezartzea* ama isolatuentzat, eta haien lana ordaindua ez izateagatik guti kotizatu duten erretiratuentzat (ikus Amankomunak, elkartasuna eta partekatzea kapitulua).
- c) Euskal Herri Elkargoan* garantia bat plantan ezarri, Boutin legea izan arren<sup>79</sup> dibortzio baten ondoren emakumeei etxebizitza aurkizen errexteko .
- d) Auzolana lagundu*: haurren, zaharren eta erien zaintzarako auzolaneko inizatibak (auzolagunak, auzoaldea) sustengatu .
- e) Uztartu komunitateen ekimenak eta zerbitzu publikoak* haurren / zaharren / erien zaintzarako. Herbeheretako “Buurtzorg” etxean zaintzarako erakundea bezala, honek pertsonetikiko loturaren kalitatea, zaintzaren ikusmolde holistikoa eta pazienteen eta zaindarien autonomia lotzen ditu, sozialki zinezko arrakasta bat izanik, gainera sistema klasiko bat baino merkeago izanik.
- f) Sortu tokiko konplementu bat* estatuko amatasun eta buraso geldialdiei, gaur egun ttikiegiak baitira.

---

<sup>79</sup> Dibortziatu diren irabazi gutiko pertsonen (gehienak emakumeak) segurtasun materialari lege horrek zertan kalte egiten dion ulertzeko, ikus <http://www.enbata.info/articles/ne-laisser-personne-pour-compte-mettre-fin-a-la-violence-contre-les-femmes>

## 8. Birtokiratzea

Birtokiratzearen helburua da gure garapen propioaren jabetza berreskuratzea, kolektiboki hausnarturiko lurralde proiektu bat ekoizpen prozesuaren erdigunean birtokiratzea. Ekoizpen modu kapitalistatik emantzipatzea da gure xedea. Birtokiratze prozesu honek gizartearen sektore guztiak barneratu behar ditu (laborantza, hezkuntza, ekonomia, kultura...) baita, aldaketa klimatikoak eta baliabideen urritasunak eraginiko nahasmenduaren aurrean, gizarte erresiliente baten eraikitzea, helburu gisa ezartzea ere. Protekzionismoak ekonomia produktibista salbatzea bilatzen duen bitartean, aldarrikatzen dugun birtokiratzea, mundializazio eta finantziarizazio printzipioen aurka doa: birtokiratze kolaboratiboa eta solidarioa eraiki nahi dugu, lotura soziala indartzen duena eta uniformizazioaren kontra doana. Pario hau erdiesteko baliabide instituzionalak ere lortu behar ditugu, eta jadanik existitzen diren eta proiektu hori eraikitzen hasi diren ekimenak sustengatu, Euskoa kasu.

### I Birtokiratzea, gure burujabetzen berrirabaztea

Birtokiratzearen anbizioa, elikadurako kilometroen eta garraioen apaltzea baino haratago doa; erronka soziala da, baita ekonomikoa, kulturala eta politikoa ere, bere baitan mundializazioaren eta finantziarizazioaren printzipioak baztertzen dituen. Birtokiratzeak egiazko indar iraultzailea dakar planeta mailan, eta horretan denok parte hartzen ahal dugu gaurdanik gure ingurune hurbilean.

#### 1) Birtokiratzea gure garapenaren eragile (berriz) bilakatzeko

a) *Gure bizimoduak birgogoetatzea* da birtokiratze prozesu baten lehen funtsezko urratsa. Ekoizkin baten bizi-zikloaren bilana baino gehiago, gure buruari egin behar diogun galdera da kontsumitze beharrarena (ikus Sobriété kapitulua), eta galdera horren erantzuna, lurralde bakoitzeko berezitasunen arabera da.

b) *Birtokiratzea emantzipatzea da*. Ideia ez da mugak eta neurri protekzionistak inposatzea (ongi moldatzen dira multinazionalak horrekin), baizik eta ekoizteko manera kapitalistatik askatzea, kontsumitzaile-herritarra ekoizpen prozesuan berriz sartuz. Lanaren, gure ekoizpenen eta kontsumoen jomuga hausnartuz, ekonomiari gure bizitzak baldintzatzeko eskubidea ukatzen diogu.

c) *Lurralde proiektuak* dira mundu mailan gure burujabetza berreskuratzeko oinarria, eta bizi kolektibo alaiago baterako ere. Ekonomia birtokiratua, guhaurrek eratu dezakegun ekonomia bat da, ondorioz norabide sozialago eta ekologikoago baterantz bidera dezakeguna.

#### 2) Eremu guztiak hunkitu behar dituen birtokiratzea

a) *Laborantza eta elikadura*. 1996an Via Campesinak proposaturik, elikaduraren burujabetza, populazioek, beren beharretarako, laborantza politika egokienak plantan ezartzeko eskubidea da, beste herrialdeei kalterik ez eragiteko baldintzapean. Euskal-Herrian, hartarik urrun gara oraindik (ikus Laborantza, ura, elikadura kapitulua) eta gizarteko sektore guztiak mobilizatuz segitu beharreko helburua da: hezkuntza kolektiboa, hirien eta baserrien arteko loturak sendotzea, laborantza ekologikoa eta baserrikoa sustengatzea, etabar. Izan ere, bertako hornikuntza ibilarazteko, lurralde bateko berezitasunen ezagutza biziki zehatzean oinarritu behar da.

b) *Ekonomia*. Birtokiratzea, globalizazioaren berrerekatzearen alde jokatzeko da eta lotura sozialak sendotzen parte hartzea, enplegu egonkor eta lekuz alda ezinak direnak

sortuz. Mundializazioak eta finantzaren aldeko politikek urte luzez Euskal Herriaren potentzialitate ekonomikoa asko estali dute, eta aitzitik hemengo ekimen anitzek agerian ezartzen dituzte, hala nola kooperatiben mugimenduak, Hemen (sustatze ekonomikoa), Herrikoa (kapital-inbestizamendu solidario eta hurbileko tresna, banku-sareetatik inpendietea dena), tokiko Eusko moneta ...

c) *Hizkuntza eta kultura.* Euskararen garapenaren aldeko borroka, etekin logika gabeko mobilizazio herritarraren adibide biziki ederra da. Kultura, eraldaketa sozialaren egiazko akuilatzaile da eta sekulako tresna pentsamendu bakarrarren kontra ihardukitzeko. Kulturaren burujabetza berreskuratu behar dugu, bizia eta aldakorra izan behar dena, merkatu-ekonomiak folkloreko klixetara mugatu nahiko lukeenetik franko urrun.

d) *Energia.* Biztanleriaren bazterkeria-eskema batean finkatzen diren energia fosilak ez bezala, energia berriztagarriak lurraldeekin hertsiki lotuak dira eta ondorioz demokratikoki errazagoak kontrolatzeko.

e) *Bizitegia.* Bakoitzak bizitegi duina ukaitea aldarrikatzea da. Bistan denez, hau ez da egungo bigarren bizitegi tasarekin bateragarria kostaldean, % 41 Biarritzen, % 47 Donibane Lohizunen eta % 48 Getarian. Bizitegi bat ukaitearen eskubidea biga ukaitearenaren parean lehenetsi behar da!

f) *Politika, hedabideetako sistema.* Sektore eta aniztasun (hizkuntza besteak beste) guzien birtokitzearekin, tokiko errealitatea konplexuagotzen da eta herritarrek beren ekintza politikoaren ahalmenean eta beren mobilizazioen eraginkortasunean berriz konfiantza hartzen dute. Halaber, politika mailan, birtokiratzeak parte hartzearen kultura laguntzen du.

g) *Haurren heziketa.* Hezkuntza formaleko (eskolak) eta ez formaleko (aisialdiak, herri heziketa) tokiko eragileekin eta gurasoekin, zabala eta guztiei irekia zaien heziketa mota bat sustengatzen dugu. Haurrei bai intelektualki, bai harremanean, eta bai sorkuntza mailan loratzeko aukera eman behar die, baina, baita esku lanak egiteko abilezia garatu ere. Aldaketa sakonak ezagutuko dituen jendarte batean erresilienteak izateko aukera eman behar die, eta ingurumena zaintzen irakatsi. Hizkuntza aniztasuna, baratzte pedagogikoak, txirrindula konponketa tailerrak, filosofia askariak, eskolan komunikazio ez bortitza.... Ekimen asko abiatuak dira jadanik. Haurrei mundura irekiak izateko, gizartean eragile izateko, eta handitzeko gogoia ematea da xedea.

h) *Osasuna.* Kapitalismoa osasunaren arloan oso sartua da<sup>80</sup>. Gure osasuna gureganatzeko ekintza guneak prebentzioan eta informazioan, hurbileko medikuntza egituretan eta, hein batean medikuntza alternatiborantz jotzean kokatzen dira. Honela, sendabelarren ezagutza ikastaroek, eritasun larriak ez badituzte sendatzen ere, osasuna eta naturaren arteko harremana berriz lotzeko aukera ematen dute.

### 3) *Birtokiratzea erresilientzia gehiago izateko*

Erresilientzia, bere ingurumenaren bestelakotzeari gorputz batek, organismo batek, espezie batek edo sistema batek aurre egiteko duen gaitasuna da. Askok bezala, hitz hori, klima aldaketak eta baliabideen murrizketek izango dituzten eraginaren aitzinean sortuko den kaosari gure gizarteak ihardukitzeko eta ez lehertzeko duen ahalmena aipatzeko erabiltzen dugu. Norberaren biziraupenaren logikan dagoen ekonomiaren eliteko<sup>81</sup> zati batek egiten duenaren kontra, erresilientzia guretzat ekintza kolektiboa da, eta tokian tokian prestatu behar da gizarte harremanak eta elkartasunak ahal bezain ongi baliatuz eta indartuz.

80 Ikusi adibidez Médecins du monde elkartearen kanpaina, erremedioen prezioari buruz *Le Prix de la Vie* : <https://www.medecinsdumonde.org/fr/direct/le-prix-de-la-vie>

81 E. Osnos, *Doomsday prep for the super rich*, The New Yorker, 2017.

a) *Etorkizuneko kaoserako prestatzea*. Klima aldaketak eta baliabideen murrizketek aldaketa sakonak ekarriko dituzte. Ez bagara prestatzen, aldaketa horiek bortizki jasanen ditugu. Birtokiratzeak ohidura aldaketa horiei eta nolakoak izanen diren, kolektiboki eta demokratikoki ihardukitzeko aukera ematen du. Ez badugu orain indar kolektibo hori egiten, geroan, bidegabeko neurriak jasan beharko ditugu (herritarren lekualdatzeak eta errazionamenduak adibidez) lehen-lehenik pobreengan eragin zuzena izanen dutenak .

b) *Trebetasunak berrikastea*. Duela zenbait hamarkada, gizarteak gaur egun baino erresilienteagoak ziren eta kolpe azkarrak (munduko gerlak demagun) gainditu ahal izan zituzten. Trebetasun asko berrikasi behar ditugu (jantziak egiten, oiloak hazten, zapatak konpontzen) belaunaldien arteko lanaren bidez, hirigune eta baserriguneen arteko harremanak berpiztuz, eta Euskal Herriko elkarteetan aberastasunean bermatuz.

#### 4) *Birtokiratze irekia*

Protektionismo okaztagarrienak indartsu diren garai honetan, bereziki European eta Ipar Amerikan, batzuk ez dute birtokiratzeaz mintzatu nahi, errekuperatuak izateko beldurrez. Beste batzuek leportazen digute Euskal Herrian birtokiratzea defendatzen dugula, pentsatzen dutelako zorteak gutiago faboratu eskualde batzuk ezin dutela horrelako helbururik erdietsi. Baina birtokiratze irekia<sup>82</sup> dugu defendatzen, protektionismotik arras bestelakoa, elkarlanean eta elkartasunean oinarritua.

a) *Protektionismoa ekonomia produktibista salbatzeko ahalegin desesperatua da*. Proposatzen dugun birtokiratzea protektionismoaren arrunt kontrakoa da. Estatu batzuek ekonomia produktibista —krisia sakonenean dena— salbatzeko sustatu nahi duten entsegu desesperatua, horra zer den protektionismoa. Gorago azaldu dugun bezala, guk, alderantziz, produktibismoaren eredu horren kontra joateko bide eraginkortzat daukagu birtokiratzea. Asmo horren zailtasunez ohartzen gara, protektionismoaren itxura ez baita beti Trumpek, adibidez, erakusten diguna bezain karikaturazkoa. Adibidez, protektionismoak justizia sozial gehiago aldarrikatzen ahal du, baina beste herrialdeetako jendearen kaltetan izanen da. Ingurumenari lotu argumentuak ere erabiltzen ahal ditu Hegoaldeko herrialde batzuen inportazioak blokatzeko.

b) *Elkarlanean aritzea, elkarren kontra aritzeko partez*. Protektionismoak sustatzen duen birtokiratzea birtokiratze kapitalista da, deslokalizazioaren logika bera duena. Konkurrentziaren logika horrek gaur egungo egoerara eraman gaitu; beraz, ametsetarikoa da, edo hain segur arrunt zinikoa, aterabide zuzena eta iraunkorra dela erratea. Gure aldetik, elkarlanezko birtokiratzea aldarrikatzen dugu, non lurraldeen autonomia (gure kasuan, Euskal Herriarena) eraikiko baita, beste lurralde edo herrialde batzuen kaltetan izan gabe. Adibidez, Goiener-ek, helburu gisa Hegoaldean energia-burujabetasuna erdiestea duena, elektrizitatea ekoizten duten kooperatibak sortzen laguntzen ditu, Iberiar penintsula osoan.

c) *Beraz, elkartasunezko mekanismoak eraikitzea* birtokiratze prozesu arrakastatsu baten gakoa da, prozesu horrek ekologiaren aldetik jasangarria eta sozialki zuzena den gizarte bat eraiki nahi baldin badu.

Lehen maila da birtokiratu diren lurraldeen arteko elkarrizketa eta elkarlan egitura bat eraikitzea. Birtokiratzea ez da eskualde bakartu batzuen izan behar, eskualde desberdinek elkar-laguntzen eta elkar-inspiratzen duten urraspide koordinatua baizik. Alternatiba logika horretan sartzen da... Elkarlanerako egitura horiek maila desberdinetakoak izan behar dira eta bata bestearekin lotu behar dira, nazioarteko mailaraino. Baliabideen eskasiagatik sortu konkurrentzia eta konfliktuak saihesteko, baliabideen planeta mailako

82 V. Liegey, S. Madelaine, C. Ondet, A. Veillot, Un projet de décroissance, manifeste pour une dotation inconditionnelle d'autonomie, 2013.

kudeaketa bateruntz aritu behar da: Yasuni<sup>83</sup> proiektuaren abandonatzea inguramen gaietan kooperazio internazional faltak ondoriozta ditzakeen kalte kolektiboen adibide azkarra da. Internazional edo eskualde mailako elkartasun mekanismo hauek eraikitzea lehentasunezko gogoeta eta mobilizazio lana da: FMI, OMC CETA etab.-en kontra, fite baliagarriak eta konbentzigarriak diren kontra-ereduak proposatu behar ditugu, jadanik existitzen diren ereduak erabiliz (Villes en transition<sup>84</sup> adibidez) eta berriak sortuz.

## II Birtokiratzea, orain!

### 1) Uniformizazioaren kontra borrokatzea

Uniformizazioa tinki lotua da errentagarritasun ekonomikoaren logizielarekin, trukagarriak diren agenteak nahiago baititu. Lurraldeen erresilientzia ere ahultzen du: zuhaitz mota ezberdinez osaturiko oihanek ekaitzen kontra hobeki erresistitzen duten ber, lurraldeak azkarragoak izanen dira golpeen kontra aniztasun handikoak baldin badira. Beharrezko da beraz:

a) *Subsidiaritatearen printzipioa plantan ezartzea*: maila lokalean egin daitekeena bertan egin behar da.

b) *Herrixken desagertzearen kontra borrokatzea*: Alderantziz, hiriak herrixken funtzionamendutik inspiratu behar dira zentzu kolektiboa azkartzeko edo berriz sarrarazteko.

c) *Gizarte harremanak azkartzeko ahal guzien bidez*. Birtokiratzea ibiliko da soilik lotura sozialak azkartzuz eta trukean giza irabazi handia ekarriko du elkartasun eta bizikidetzan mailan. Birtokiratzea, balore hauek berrezagutzea da ere.

d) *Euskararen erabilpena garatzea* Euskal Herriko aberastasun kolektibo ezin estimatua baita. Euskara beharbada dugun arma onena da uniformizazio kulturalaren kontra eusteko. Hizkuntza osasuntsua izatea denari onuragarria zaigu, izan euskaldun ala ez. Ondorioz kartsuki defenditu behar dugu Euskal Herriko lurralde osoan hizkuntza ko-ofiziala izan dadin, bere garapena oztopatzen duten neurriak gaitzetsiz (adibidez euskarazko irakasle eskasia kronikoa) eta bereziki Euskara mintzatuz eta ikasiz!

### 2) Birtokiratzearentzat neurri instituzional egokiak eskatzea

Birtokiratze prozesuak eta autonomia politikoak bata bestea elikatzen dute. Iparraldearen kasua hartzeko adibidez, Euskal Elkargoak, lurralde egitura bakarra izanki gaur egun, ingurumen eta sozial mailan politika anbiziotsua gero eta errexkiago eramaten ahalko du bere ekonomia birtokiratzen bada, nazioarteko leiharekiko ahulezia guttiago ukanez. Eta alderantziz, ezinbestekoa da subsidiaritasun printzipioa obratzeko beharrezkoak diren gaitasunak ukan ditzan, lurraldearentzat egokia den eko-konzeptio politika sustatzeko gai izatea (ikus *Berrerrabiltze, Konponketa eta birziklatze* kapitulua), baliabideak ongi erabiltzea eta gaizki erabiltzearen definitzeko ahalak ukan behar ditu, prezio sozialen bistan, etab. Honen argitzeko adibide bat: Ameriketako Estatu Batuak Pariseko akordiotik atera diren bitartean, eskerrak San Francisco hiriak edo Kalifornia estatuak ingurumenarekiko errespetuzko politika baten egiteko ahalak dituztela (San Francisco-k «zero hondakin» lehen hiria izaitzeko esperantza du 2020an eta Kalifornia energia «garbia % 100ean» erabiltzera engaiatzen da, 2045 urteko.

83 Rafael Correa Ekuadoreko lehendakariak proposatu zuen ehundaka mila petrolio upel lurpean uztea Yasuni parkearen azpian, BEGen isurketak murrizteko eta Amazoniako bioaniztasun erreserba garrantzitsuenetarik bat babesteko. Honen truke, nazioarteko laguntza bat eskatzen zuen, Ekuadorentzat erabaki honen ondoriozko irabazi eskasaren erdia ordaintzeko. Eskaturiko 3 miliar dolaretik, 10 milioi baizik ez zituen bildu eta proiektua bertan behera utzi zuen 2013an.

84 <http://www.entransition.fr/>

### 3) Manatze publikoa hurbileko zirkuitu laburren zerbitzuko ezartzea

Zirkuitu laburrak lehenestearen beharra begi bistakoa da, baina frantses zuzenbideak eta europar zuzenbideak lekuko erreferentziak debekatzen ditu lehiaketa publikoetan. Honek ez du tratatzen maila desberdinetan aritzea. Adibidez, Manchester hiriak 2008an azterketa bat manatu zuen; tokiko ekonomiari buruz herriak esleitutako lehiaketa publikoen inpaktuaren azterketa, azpi-tratatzaileen bidez lurraldean berriz inbertitutakoa zatia zein den aztertuz. Emaitzei esker tokiko ekonomiaren ehuna hobeki ulertu da, herriaren eta tokiko azpi-tratatzaileen arteko lotura sendotu da, eta inbertsio publikoen bideratze hobea ekarri da, herriaren estrategia sozio-ekonomikoa sustengatzeko, bereziki gazteen enpleguen aldetik<sup>85</sup>. Ekintza-pista batzuk dira honako hauek:

a) *Lurraldearen eskaintzarako egokiak diren lehiaketa publikoak definitzea*, baldintzen kaieran eta hautu<sup>86</sup> irizpideetan oinarrituz (ingurumenaren babesaren errendimendua, irizpide sozialak eta, elikadurarentzat, baserriko ekoizpena, urtarokoa, animalia arrazen identifikatzea, bilketa eta banatzearen arteko epea...).

b) *Klausula pedagogikoak* baldintzen kaieran *sartzea*, adibidez etxalde edo laborantzako enpresen bisita. Horrelako neurri batek lekuko zirkuituak lehenesten ditu baita sentsibilizazio rol garrantzitsua jokatzen.

c) *Lurraldearen ezagupen fina ezinbestekoa da* horrelako neurrien ezartzeko. Euskal Ekargoak edo Herriko Etxeek egitura profesional eskudunekin lankidetzak garatu behar lituzkete (EHLG eta BLE laborantzarik dagokionez, adibidez) eta eko-konzeptzio adarrak ahal bezain bat sustengatu (ikus *Berrerabiltze, Konponketa eta birziklatze kapitulua*)

### 4) Saltegi handien hegemoniaren aurka borrokatzea

a) *Saltegi handiek lana suntsitzen dute*. Saltegi handi baten etorreraren kari sortzen den lanpostu baikoitzagatik 1,64 lanpostu suntsitzen dira tamaina ertain edo txikiko saltegietan<sup>87</sup>. Saltegi handiz betea dugu Iparraldea; elikagaien saltzeen % 76 eta elikagaiez kanpokoen % 66 saltegi hauetan egiten da<sup>88</sup> (Frantses Estatuko bataz-bestekoa % 50ekoa denean).

b) *Ingurumenarekiko oso kaltegarriak dira* zeren merkantzia bat saldu bezain laster ordezkoa berriz sartzeko da eta kudeaketa mota hori hurbileko zirkuitoekin ez dator bat. Autoz mugimendu anitz eragiten dute ere herrien kanpoaldean kokaturik baitaude: kanpoaldean den supermerkatu batek herrigunean dena baino bi aldiz zirkulazio mugimendu gehiago eragiten du, eta hipermerkatu batek lau aldiz gehiago<sup>89</sup>.

c) *Oinarrian duten modelo ekonomikoak* ez die ekoizleei bizitza duina izateko bidea ematen.

d) *Gure gizartearen burujabetza berreskuratu* behar dugu saltegi handien kalteak txikitzeko, legeak haien alde dauden arren. Euskal Herri Hegoaldean adibide gisa, legeak igandean saltegiak irekitzea baimentzen du, baina Iberiar penintsulako beste eskualdeetan

85 Hirien garapenerako munduko fondoak/dirua..., Lekuko berrikuntzak egin lurraldeen diruztatze-ko, 2014.

86 Association des Maires de France, Vade-mecum : Encourage l'approvisionnement local.

87 D. Neumark, J. Zhang, S. Ciccarella, The effects of Wal-Mart on local labor markets, Journal of Urban Economics, 2008.

88 CCI de Bayonne, Le Pays Basque en chiffres, édition 2012.

89 L'encyclopédie du développement durable, Impact de la grande distribution sur l'environnement, 2006.

ez bezala, sindikatuen mugimenduei esker igandetako irekitzeak ez dira nagusitu.

### 5) Gune kolaboratiboak laguntzea

a) *Langune komunak zabaldu nahi dituzten ekimenak ugaritzea eta laguntzea* fabrikatzearen (Fab Labs), esperimentazioaren (Xiberoako laborari gazteentzat den Etxalde Lan gisan), elikagaien eraldaketaren (Aldudeko Belaun adibidez), etab. arloetan.

b) *Ekosistema bat sortzea*, gure burujabetzaren berreskuratzearen aldeko ekimenak bata bestea indartzen dutelarik bertan eta neurritasun eta lagunarteko borondate batez batuak direnak. Sortu berria den BIHAR bertako moneten eta transizio ekologikoaren Instituzioak duen helburuetako bat da hau.

## III Euskoa, birtokiratzearen aldeko tresna garrantzitsua

### 1) Moneta gureganatzea

a) *Historioak erakusten badu ere Estatuak, bankuek eta lekuko komunitateek sortutako monetak elkarrekin bizitzen nahal direla*, 1980 urteetatik bankuek beren monopolioa inposatzea lortu dute. Euroak nazio eta nazioarteko merkatuetako moneta betebeharra ongi egiten du. Merkatuaren legeak ordea ez du gaur egun transizio ekologikoa eta gizarte inklusioa laguntzen. Lekuko monetek aldiz oso ongi egiten dute hau. Herri bateko biztanleek kudeatutako monetak dira, helburu ekonomikoekin, baita helburu ekologiko eta sozialekin ere. Gure burujabetza berreskuratzeko medio indartsuak dira, burujabetzaren aldeko beste tresnen ondoan.

b) *Tokian tokiko egin daiteke berreskuratzeko hau*. Euroaren lan-moldea aldatzeak gure ahalmenetatik kanpo dirudi, baina irabazien zerbitzurako bakarrik ez diren tokian-tokiko trukaketa sistemak ezartzeko ahala badugu.

c) *Euskoa berreskuratzeko horren tresna egokia da*. Menperatzen dugun eta gure baloreen zerbitzuko ezar dezakegun moneta da. Zirkulazioan diren euskoak bertako ekonomia errealearen zerbitzuko eta espekulazio-sistematik baztertuta den hainbat diru gisa ikusi behar dira. Baliabide horren indarra ulertu behar da: 100 euro trukatzeko baditut, 100 eusko jasotzen ditut. Eusko horiek bertako ekonomian egonen dira eta horrez gain, emandako 100 euroak espekulaziozko ohiko banku batetik ateratzen dira banku etiko batean biltzeko (Kreditu kooperatiboa, Nef edo Elkartasun Kutxa).

### 2) Ulertu eta jardun

Zer da monetaren zentzua? Euskoak galdera horren egitera gomitatzen gaitu. Herri-hezkuntza rol hori jokatzea ezinbestekoa da herritarrek moneta berreskura dezaten. Ekonomista neo-liberalek hala badiote ere, moneta ez da neutrala. Moneta sortzeko manierak eragin handia du ekonomiaren funtzionamenduari begira. Eragin hain handia non ez baikara ohartzen ere<sup>90</sup>.

### 3) Borroka kolektiboa

a) *Euskoa Iparraldeko birtokiratzearen aktore nagusi bat da*. Eurotik euskoak diru aldatzea urririk baldin bada ere, %5eko atxikitze bat egiten da aurkako aldatzeen gain. Euskotan pagatutako profesionalak bultzatzen ditu eusko horiek berriz erabiltzera

---

90 Horri buruz irakurri Alternatives économiques errebistaren zenbaki berezia, Repenser la Monnaie (Euskal Monetan eskuragarri).

eta eusko sarekoak diren enpresekin lana egitera... beraz nahitanahiez bertakoak diren enpresak eta Euskoaren hiru ardatzak segitzen dituztenak: ekonomiaren birtokiratzea, praktika sozialago, ekologikoago eta solidarioago batzuen lehenestea, bai eta euskararen erabilpen publikoaren sustengua ere.

b) *Euskoak sare soziala azkartzen du* erabiltzaileen arteko lotura sortuz eta elkarte bizi finantzatzuz: Euskal Monetak zure erosketen % 3aren heineko kopourua ematen dio euskotan, babesten duzun Iparraldeko elkarte bati, hots 2017an, 13 000 eusko 43 elkarteri berriz eman zitzaizkien. 2018an kopuru hori azkar emendatuko da Eusko geroz eta gehiago erabiltzen baita eta eusko kontuaren eta kartaz pagatutako erosketak ahalbidetzen dituen Euskokartaren sortzeari esker. Eraitza horiek, enpresek beren euskoak euro tara trukatzeko dituzten aldaketa komisioarekin finantzatzeko dira. Horrez gain, bere saretik supermerkatuak eta nekazaritza industrialak baztertuz, Euskoak hurbileko merkataritza sustatzen du eta ondorioz, hiri eta herri-zentroen bizkortasuna, baita bertako laborantza ere.

c) *Euskoak ibil dadin geroz eta gehiago*, gero eta ondorio gehiagorekin Euskal Herri, ekologikoago, euskaldunago eta solidarioago baten alde, erabiltzaileak behar dira, enpresak, elkarteak eta tokiko kolektibitateak. Maila guzietan parte har dezagun, denak pasa gaitezen Euskoak erabiltzerat eta elkarrekin zirkulazioan diren milioi bat euskoen muga gaindi dezagun, lehen aldiz Europako tokiko moneta bati dagokionez!



## 9. Energia berriztagarriak

Gehiengoak onartzen du trantsizio energetikoaren beharra badela, hain da jasanezina egungo kontsumo heina. Euskal Herriak helburu anbiziotsuak finkatu dizkio bere buruari, baina egungo energien ekoizpen eta kontsumoak erakusten dute lanaren zabaltasuna eta azpimarratzen dute tokiko ekoizpen energetikoak eragiten dituen hainbat posibilitate ahal bezain ongi gauzatzeko beharra. Trantsizio energetikoa xantza gisa ikusi behar dugu gure burujabetza energetikoa lortzeko eta erakunde parte hartzaileak eraikitzeko, burujabetza energetiko horren kontrol demokratikoa segurtatuko dutenak, lurraldearen ongizatea eta ihardukitzeko indarra bermatuko dutenak. Biharko energiak herrikoa izan beharko du, I-ENER eta Enargiaren ildotik Iparraldean, eragile eta lurralde ezberdinen elkarlaguntzan oinarritutako energia. Elkarlaguntza logika hori baitezpadakoa da energia herrikoiak behar duen proiektu politikoaren kausitzea bermatzeko, jakinez gaur egun arlo horretako industria aktore gehienek proiektu parte hartzaileak kanporatu nahi dituztela, energia berriztagarrien «amerkatua» berenganatzeko.

NB: Egun, ez dago energiaren merkatu bakarrik, eta beraz legediak biziki ezberdinak dira Euskal Herri Hirigune Elkargoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Labur izan beharrez, gure azterketa Iparraldeko lurraldera mugatzen dugu hemen, baina, Goiener eta I-ENERren arteko elkarlanak erakusten duen bezala, azterketa osoago eta esanguratsuagoa egin beharko luke Euskal Herriak, eremu guziaz kontutan hartuz.

### **I Kontsumoaren adura berriz harraraztea eta lurraldera birkonektatzea**

Energiaren egungo kudeaketa zentralizatuak bultzatzen gaitu botoiak zapatzera geure buruari galdetu gabe zoin den gure kontsumoaren eta energia ekoizpen moldeen eragina. Energia berriztagarrien abantailetarik bat da kontsumitzailea eta bere lurraldearen arteko harremana sortzen duela, eta harreman horrek gogoetatzera bultzatzen duela, iraunkorra izan daitekeen kontsumo heinaz.

#### *1) Energia kontsumo arduragabea*

a) Energiari lotutako *gostu sozial, ekonomiko eta politikoa* etengabe emendatuz doa. Munduko jendetzaren laurdenak argindarra ez du modu seguruan eskuratzen, eta jakinez baliabideak murriztuz doazela, nazioarteko tentsioak emendatzen dira. 2,7 miliar pertsona bioenergia tradizionalen meneko dira (bereziki egurra), jakinez usu modu jasanezinean bildua dela, kalte anitz sorraraziz ingurumenari begira (lurren higadura, uholde arriskua, berotegi efektua areagotzen duen gasa, etab.)<sup>91</sup>. Azkenik, ohiz kanpoko iturriak ustiatzea, eskisto gasa, offshore petrolio sakona edo mundrun-harea bezala, izugarritzko kostua daukate bai ekonomiari, bai ingurumenari begira.

b) *Baliabideak agortu ezinak balira ere*, energiaren kontsumoaren eragina arrazoi nahikoa da eredia aldatzeko. Ondoko hamarkadetan<sup>92</sup> eta herrialde garatuetan soilik, aldaketa klimatikora egokitzearen kostua ehunka miliar dolarretan ebaluatzen da (giza kostuarekin konparatzen badugu deus ez delarik) eta gainera hondakin nuklearren

91 WWF, 100 % d'nergie renouvelable d'ici 2050, 2011.

92 Cost of adapting to climate change could hit \$500B per year by 2050, Rapport de l'UNEP, 2017.

kudeaketa kontuan hartu beharko da. Energia berriztagarriek energia fosilak erritmo arras lasterrean ordezkatuko balituzte ere, ez litzateke aski beroketa klimatikoa 1,5°ko mugaren azpian atxikitzeko.

c) *Trantsizio energetikoaren* erritmoa hala ere mantsoegi doa, eta energia fosil eta nuklearrarentzat diren dirulaguntzak energia berriztagarriari ematen zaizkienak baino handiagoak dira! Hau, are frustragarriagoa da dakigunean oraingo teknikei esker planetako jende guzkiek energia berriztagarria<sup>93</sup> eskura izanen luketela hemendik 2050. urtera .

### 2) *Iparraldean, ageriko nahikundea bainan egoera kezagarria*

2012an onartutako Klima Airea Energia gida-eskeman, Akitaniako Eskualdea, Europako Batasunak 2008an onaturiko «Paquet Climat-Energie» baino haratago zoan, erabakia hartu baitzuen hemendik 2020. urtera bere energia kontsumoa % 28,5ez apalduko zuela 2008rekin alderatuz, kontsumo energetikoaren % 25,4ren ekoizpena energia berriztagarrietatik lortzea, eta 1990. <sup>94</sup> urtearekin erkatuz bere NEG isurketak % 20ez gutituko zituela. Orain dela guti, 2015ean, Euskal Herria «Territoire à Énergie Positive pour la croissance verte» izendatua izan da, Ekologia, Garapen Iraunkorra eta Energiaren ministerioaren proiektu deialdi baten kari. Proiektu honen arabera, Iparraldeko energia kontsumoaren % 32 energia berriztagarria izan beharko da 2030eko jomugan eta % 100ekoa 2050ean. Zorigaitzez, helburu hauetarik oso urrun gaude oraino: bertan ekoiztiko energia berriztagarriek lurralde honetako beharren % 1 baizik ez dute estaltzen<sup>95</sup>.

### 3) *Aitzinatze posible garrantzitsuak*

a) *Iparraldean, energia berriztagarrien ekoizpena* handitu behar da. Elektrizitateari doakionez, ekoizpen gehiena Zuberoako hidroelektrizitateki dator (Ligi-Athereiko zentrala bera Iparraldean diren energia berriztagarrien ekoizpenen % 10 da kasik). Hala ere, hidroelektrizitate ttipiarekin ahalmen handiak gelditzen dira jorratzeko (adibidez eihera ohien lekuetan), hauei buruz Euskal Elkargoa eta sektoreko eragileen artean kontzertazioa antolatu behar baita. Nafarroan, Izaba eta Puente-la-Reina/Gares bezalako herriek, besteak beste, jakin dute hidroelektrizitatea lagun burujabetza energetiko proiektu baten eraikitzen<sup>96</sup>.

b) *Eguzki energia fotovoltaikoa* energia berriztagarrietan bigarren iturria da iparraldean, baina azpi-garatu gelditzen da Akitaniako batez bestekoaren aldean adibidez; gainera ipar itsasbazterrean kontzentratu da gehien bat, honek pentsarazten digu badirela anitz garapen posibilitate beste gune batzuetan. Emendatze tartea gaitzekoa da ere eguzki-energia termikoan (ur beroa ekoizteko eta eraikuntzak berotzeko), honen inolako jarraipen-lanik ez baita lurraldean; tokiko sareak pikoan ezar litezke adibidez bizitegi-beharretarako.

c) *Energia berriztagarri-termikoak* (biomasa, biogasa, bero ponpa ...) gutti dira Iparraldeko aukera energetikoan, % 7ren heinekoa (batez beste % 14 Akitania Berrian) <sup>4</sup> hiriko berokuntza adibidez kasik ez balitz bezalako da, Baionan Santa Gurutze bezalako auzoalde bakartu batzuek aparte. Garazi-Baigorri eskualdean, bidean den egur sarearen egituratzeak segitu behar du... Egur-energia bizitegi-eremutik aparte, energia berriztagarri-termikoak Canopiako metanizazio sailetik datoz nagusiki. Alta, Iparraldeko energiaren kontsumoan, gasaren garrantzia aukera baliagarri gisa ikus dezakegu, hala nola bio-metanoaren tokiko ekoizpen kolektiboa eta honen txertatzea gas sareetan (adibidez Methadoux lurraldeko metanizazio instalazioaren izpirituan Charente-Maritime

93 Ecofys, Renewable energy : a 2030 scenario for the UE, 2013.

94 TEPCV Pays Basque : étude énergie-climat, Rapport final de phase 1, 2016.

95 <http://www.lurraldea.net/fr/animation-territoriale/transition-ecologique-et-energetique/energies-renouvelables.html>

96 Argia, Izaba eta Gares: Urrats aintzindariak energia burujabetzaren bidean, septembre 2018

departamenduan).

*d) Banaketa sistemak erantzukizuna kentzen du eta ez da biziki arrazoizkoa.* Tokiko inbertsioek aldiz, sareen indartzeak lehenesten dituzte. Kolektibitateek ez dute eraginik energiaren loturen politikan, ondorioz energiaren menderatze-politika lortzea zailtzen du. Batez ere, ez da tokiko enpresarik energia banatzeko Iparraldean.

*e) Etxe indibidualen kopurua apaldu behar da:* hein bereko azalera batean, hauek % 50 energia gehiago kontsumitzen dute bizitegi kolektiboko apartamentu <sup>97</sup> batekin alderatuz.

## **II Instituzioak burujabetza energetikoaren zerbitzuko ezartzea**

Egungo testuingurua deszentralizatua den energia-ekoizpenaren aldekoa da, Estatu frantsesean Lurraldeko Klima Energia Planek (PCAET) edo «Hazkunde berdearen aldeko Energia Positiboko Lurraldea» proiektu deialdiak jadanik erakusten duten gisan, azken honek 2015ean Iparraldea saritu zuen. Ezagun da orain, lurraldeko kolektibitateak trantsizio energetikoaren eragile saihetsezinak direla; horregatik erronkaren araberakoak izan behar dira.

### *1) Neurritasuna hasteko!*

*a) Irabazi beharreko borroka ideologikoa.* Ez da zuzena erratea gure berotegi-gasen murrizketen helburuak lortuko direla energia berriztagarriei esker. Energia aurrezpenak pentsatu behar ditugu lehenik, eta berrikusi erabileren xedea, eskaintzaren garatzeko erabakiak hartu aitzin (ikus Neurritasuna kapitulua). Horregatik, energia berriztagarrien aldeko mega-proiektuez mesfidatu behar gara, sustatzaileentzat ez baitira merkatu berriak baizik, etekin iturriak izan daitezkeenak, lurraldeen beharrak eta erronka klimatikoak batere kontuan hartu gabe.

*b) Energia berriztagarriak neurritasunaren norabidetik doaz.* Energia berriztagarriek ekoizpena eta erabilpena bat bestearen aldera hurbiltzen dituzte, eta, ondorioz, herritarrak beren energia kontsumoaz ohartarazteko eta hausnartzeko balio dute. Energia berriztagarriek herri hezkuntzaren egiazko erola betetzen dute. Frantziako estatuan, gertatu beharreko kontzientzia hartzeak energiaren deszentralizazioarekin nekez akomeatzen diren talde handien politikari buru egin behar die. Ondorioz, lekuko elkargoek gehiago inplikatu behar dute eta aldaketa horren alde aritu behar dute.

### *2) Gure energia burujabetza berreskuratzea*

Energia fosilak energia berriztagarriekin ordezkatzeko gure energia burujabetza berreskuratzekeo parada ematen digu. Horregatik, baitezpadakoa da lurraldeko eragile guziak prozesu honetan sar daitezen.

*a) Energia fosilak bazterketa eskema batean kokatzen dira,* bereziki horiek lortzeko biderik ez duten biztanleei dagokionez, azken hauek energia fosilen kudeaketatik desjabetuak baitira, irabaziak monopolizatzen dituzten eta lurraldeen beharrei guziz ezaxola zaizkion multinazionalen faboretan. Alta, ipar Euskal Herria petrolio-produktuen mendeko da ikaragarri, horiek Elkargoaren energia-nahasketaren % 40 osatzen baitute.

*b) Energiak ez du merkantzia izan behar;* alderantziz, oinarritzko eskubide unibertsala izan behar du. Hori aldarrikatzea eta energia kontsumoa menderatu behar

---

97 Commissariat général au développement durable, Consommation énergétique des ménages en 2012.

dela erratea ez dira kontraesankorrak, nehola ere ez. Baina, orduan, prezio ekologiko eta sozialak zehaztu behar dira: zergatik ordaindu behar dugu prezio berean familia etxe bat berotzeko erabili elektrizitatea eta igerileku pribatu baten ura berotzeko xahututakoa?

c) *Lurralde baten energia eredia* ez dute osoki baliabideek inposatzen. Lekuko jendartearen antolaketa politikoaren eta ekonomikoaren isla da ere. Kasu horretan, ipar Euskal Herrian ikertu antolaketak, tokiko biztanleen energia burujabetzaren desjabetza ez demokratikoa eta erresilientzia falta kezkarria islatzen ditu. Energia trantsizioa baserrialdeko lurraldeen faboretan berrorekatze lana egiteko parada da ere.

d) *Lekuko finantza partaidetzak eraikitzea*. Izan ere, errentagarritasuna ez da lekuko inbestitzaileen baitezpadako lehentasuna; izatekotz, inbestimendu segurra eta iraunkorra bilatzen dute, lurraldearen faboretan<sup>98</sup>.

### 3) Erakundeak jokoan dagoenera egokitzea

Euskal Elkargoak Energia Banaketaren Agintari Antolatzaile (AODE frantsesez)<sup>99</sup> bilakatu behar du bere lurraldean, lurraldearen aniztasunari ahal bezain ongi erantzuteko eta behar den maila guzietan ekin dezan: eskaera menperatzean eta energia eraginkortasunean (ikus *Neurritasuna* kapitulua), energia berriztagarrien ekoizpenean, lurraldeko energia plangintza osatzean, sareen kudeaketan eta abar. Gorago aipatu burujabetza berreskuratzearen logikaren barnean, herritarrek lan-ardatz guzi horietan parte hartu behar dute.

a) *Energia berriztagarri proiektuak* lurraldeekin hertsiki lotuak dira eta ondorioz ez daitezke urrundik goberna. Kontsumoa menderatzeko, energia prekaritatearen aurka borrokatzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko, lekuko elkargoen heinean ekin behar da. Frantziar eredu guziz zentralizatua ez da batere egokia: Alemaniak energia trantsizioan aitzina hartu badu, estatuaren egitura deszentralizatuari zor dio parte handi batean.

b) *Zeharkako logika batera pasatu behar da energia arloan*. Zentzugabea da logika sektoriala lurraldetik deskonektatzea. Gaur egungo estatuaren egituraketak ez du errazten lurraldeko osagarritasunez baliatzen: gasa lehian sar daiteke berotze sareekin, energia berriztagarriak garatzen dira sarearekin nola lotu gogoetatu gabe, ondarea babesteko neurriak erronka klimatikoan aurkakoak izan daitezke (Bâtiments de Franceko arkitektuek berina bikoitza edo eguzki panelak ezartzea debekatzen dutelarik adibidez), etab.

c) *Banaketaren kudeaketaz arduratzea aldarrikatzea*, ekintza molde garrantzitsua baita tokiko banaketa enpresa bat duten frantses Estatuko herrien % 5arentzat (halakorik batere ez da Iparraldean). Eskandinabiar herrietan, tokiko kolektibitateak arduratzen dira beren lurraldeko energia banatzeaz; horrek ekartzen du jendeak ardura gehiago hartzen duela kontsumoaz eta honen neurritasunaz.

d) *Esperimentazio boluntarista egiteko eskubidea asumitzea* energia arloan. Garbitzeko ur beroaren kasuan adibidez, behar den eguzki-energiaren % 60 inposatuz Bartzelonan 2006an bozkatu «eguzki ordonantza» bezalako neurri bat<sup>100</sup>, legez kanpokoa liteke gaur egun frantses Estatuan.

---

98 Energia partekatua, Lurralde kolektibitateak, energia berriztagarrien proiektu parte hartzaile eta herritarretan eragile, 2017.

99 FNCCR, Les AODE face au changement climatique : comment agir ? 2013.

100 V. Molinier, L'ordonnance solaire de Barcelone : confirmation et succès d'une législation pionnière, Energia 2018.

### III Hiritar energiaren alde borrokatzea

Trantsizio energetikoa ez da bakarrik arazo tekniko eta ekonomikora mugatzen. Berez zinezko proiektu politikoa da eta gure aburuz hiritar energia eraikitzean datza, erran nahi baita proiektuaren hustiaketa iraunen duen epealdi osoan hartu erabakietan, herritarrek eta kolektibitateek zuzenki parte har dezaten. Beste aldetik, zirkuitu laburrak sortzea ekoizle eta kontsumitzaileen artean denak ohar daitezzen ekoizpen beharren eta ahalen arteko loturaz<sup>7</sup>.

#### 1) Hiritarren baitezpadako partehartzea

Hiritarrak eta bertako bizilagunak proiektuez jabetzea ezinbestekoa da trantsizio energetikoa kausitzeko.

a) *Hiritarrek ez badute parte hartzen, trantsizio energetikoa ez da naguzituko.* Hiritarrek, parte hartzean, ez dute diru mailako hobetzea bakarrik izan behar helburua, talde handiek eta botere publikoek nahiko luketen bezala. Zinezko proiektu politikoa izan behar da. Erronka energetikoez eta energiaren ekoizpen eta banaketa tresnez birjabetu behar da.

b) *Hiritar proiektuek, energia berriztagarrien inguruko gatazkak mugatzen dituzte.* Haize erroten eraikuntzak eta panel fotobolkaikoak ezartzeak adibidez, herritarrek hobeki onartzen dituzte, ohartzen baitira proiektu hauek enpleguak eta aberastasunak lurraldean mantentzen dituztela, eta nabarmenki laguntzen dutela honen iraunarazten.

#### 2) Alternatiba sinesgarria

Frantses Estatuak hiritar energietan hartu alimaleko berantak, pentsarazten ahal digu bazterreko aterabidea dela. Alta, ez da batere hala, alderantziz.

a) *Frantziako Estatu* oso gibelatua dago energia herritarren garapenari dagokienez, neurri batean herrialde antolakuntza zentralizatuarengatik. Frantziako proiektu parte-hartzaileek<sup>101</sup> %3 bakarrik ordezkaten dute lurreko energia eolikoaren eremuan, eta % 0,7 energia fotovoltaikoaren<sup>102</sup> kasuan. Gainera, Estatuak tokiko banaketa enpresa berriak sortzea galarazten du eta proiektu parte-hartzaileak aitzinera eramateko trabak ezartzen (traba ohikoenak militarrek dira, lurraldearen erdia baino gehiago debekatzen baitiete eolikoei)

b) *Alemanian* aldiz, herritarrak eta laborariak 2000.<sup>103</sup> urtetik sortutako energia berriztagarri erdiaren jabe dira. Danimarkan industria eolikoaren %80 kooperatiba lokalen esku dago. Eskozian 2020. urteari begira, aitzinera eraman nahi diren herri proiektuen kopurua hitzartua dago. Ingalaterrako zeinbat hiritan ere bertako energia enpresen sorrera bultzatzen dute, Nottingham hiriko Ron Hood Energy<sup>104</sup>, horren adibide.

c) *Proiektu hauen bideragarritasuna*, proiektu industrial handien heinekua da, batez ere tokiko kolektibitateen babesaren<sup>7</sup>. Proiektu hauek, herritarren inizatibatik hasi eta jarraian kolektibitateen laguntzari esker sor daitezke (Pays de Vilaineko Energie citoyenne proiektu eolikoa adibidez) edota alderantziz, kolektiboen proposamenarekin hasi eta herritarren inplikazioarekin bururatuz (Lorient herriko autokontsumorako parke fotovoltaikoa adibidez). Alemanian, kooperatibei esker, aktore industrialen<sup>12</sup> arabera jasagarriak ez ziren berotze sistema lokalak finantzatzeko parada izan da..

101 ADEMEk hartzen duen esanahian, «garapen eskema klasikoa zabaltzen duen proiektua, finantza baita antolaketa arloan ere «.

102 ADEME, Quelle intégration territoriale des énergies renouvelables participatives ? 2016.

103 A. Rüdinger, La transition a besoin de l'énergie citoyenne, Alternatives Economiques, juillet 2017.

104 <https://robinhoodenergy.co.uk/>

### 3) Kooperaziozko hausturaren logika

Talde industrial handien ikuspuntutik (horien artean EDF-Energies nouvelles) herritarren parte-hartzea gehienez onura ekonomiko lokal batzuk lortzera mugatu behar da. Beren helburua irabaziak lortzea da eta beraz herritarren proiektuak etsai zuzenak dira; batzuek “populismoarekin eta komunitarismoarekin”<sup>105</sup> kontuz ibiltzeko deia ere egiten dute! Gauzak honela, talde industrial handiek proiektu txikien gainean egiten duten presioa izugarritzakoa da, baina halere, energia herritarrek beren DNAan daramate lankidetzak eta elkartasun sena. Adibidez, Goiener enpresak burujabetza energetikoa du helburu Hegoaldean, baina aldi berean elektrizitate hornikuntzako kooperatiben sorkuntza sostengatzen du iberiar penintsulan. Estrategia hau dagoeneko frantziar estatuan sortuak diren sare ezberdinetan oinarritu daiteke. Adibidez, “Territoire à Energie Positives” izeneko sarea, Amorcec izeneko kolektiboan laguntzaile sarea, energia berriztagarrien aldeko Energie Partagée sarea, EnRciT finantziario sistema, etab.

### 4) I-ENER eta Enargia, aterabidea gure esku!

Energia proiektuen garapenari dagokionez, Alemaniak bere lorpena, herritar mugimendu kooperatiboaren aberastasunari (eta sistema deszentralizatuari) zor dio. Horiek dira ere, Euskal Herriak bere esku dituen baliabideak, eta Iparraldean I-ENER horietan berma daiteke. 2014an sortua, I-ENERek beroa eta argindarra ekoizteko xedea du Euskal Herri mailan, energia berriztagarrietan osoki oinarrituko den eredu bermatuz. I-ENERek, bada, tokiko energia berriztagarrien proiektuak finantzatzeko, bizilagunei elkartzeko eta beren baliabide ekonomikoak biltzeko aukera eskeintzen die. Herritar sozietate honek egun 450 akziodunetik hurbil ditu 300.000 € baino gehiagoko kapital baterako. Halako energiaren herritar berjabetzearen urratsa Enargia kooperatibaren berriki abiatzearekin indartu da. Enargia, tokiko energia berriztagarrien hornitze egitura, kontsumitzaile, ekoizle, langile, lekuko elkargo eta hainbat bazkiderekin ere bai, partzuer ezarriz den onerako.

### 5) Talde borroka zaila baina erabakigarria

a) *Talde handiek* energia berriztagarriez jabetzea eta horrekin merkatua egin nahi dute. Guri dagokigu urgentziatzeko herritar ekimen proiektuak (haize-energia, eguzki panelak, metanizazioa, ...) garatzea, heiek berenganatzeko parada ukan aitzin. Era berean, parte-hartze proiektuak desitxuratzeko egiten dituzten saioren kontra borrokatu behar dugu, hala nola kooperatibak sortzea, baliatzeko asmo hutsak baizik ez baitira, laguntzak eskuratzeko eginak soilik.

b) *Lekuko elkargoek* herritarrengandik jalgitzen diren proiektuak sustengatu behar dituzte, elkartzera lagunduz, ekonomikoki eta legez babestuz. Energia berriztagarrien proiektu bat eramatea biziki konplexua da: energia berriztagarrien proiektu batek, auzoko estatuetan baino 5 urte gehiago ematen du gauzatzen Frantziako estatuan<sup>106</sup>, eta horrek abantaila ekartzen die talde handiei. Iparraldea energetikoki lurralde autonomo eta ihardukitzaile bilaka dadin, baitezpadakoa da Euskal Hirigune Elkargoak lagundu dezan talde handien aldeko joera murrizten. Laguntza hau molde anitzekoa izan daiteke, adibidez, maileguen bermatzea, funtzionamendu, inbertsio, formakuntza, higiezinarako laguntza, lurren edo aterbeen uztea eta abar.

---

105 J.-F. Carencio, président de la Commission de Régulation de l’Energie, propos rapportés par Reporterre, février 2018.

106 G. Souchay, Haize-errotan ekonomia gero eta kontzentratuagoa, ez da alternatiboa, Reporterre, 2017ko azaroa.

c) *Europar borroka erabakigarria jokatzen ari da.* 2014an, Europako Batzardeak mekanismo lehiakoragoekin ordezkatzeko, baitezpadako erosketa-tarifak kentzera bultzatu zituen estatuak. Horrek proiektu partehartzaileenganako suhartasuna itzali du, lekuko proiektu kooperatibo anitz hondatu eta kontzentrazio prozesu bat sortu du, proiektu txikien kaltetan (eta ardura bertutetsuenak). Alemanian, adibidez, sorkuntza erritmoa heren batera jaitsi da. Alternatibak, herritarren energia-subiranotasuna salbatzeko, Europa mailako mobilizazio batetan parte hartu behar du.

## Edukia

Aitzinsolasa.....	1
Gure bizi baldintzak berreskuratuz .....	2
A- Lurretik deslotua den sistema .....	2
Hazkuntzaren tiranokeria.....	2
Jendetasuna galdu duen gizartea.....	3
Ezinezko aitzinerako ihesa .....	3
B- Gure helburua: lurralde burujabe, jasangarri eta solidarioa .....	5
Gure bizi-baldintzez birjabetzea.....	5
Gure bizi-baldintzez berjabetze hori da burujabetza deitzen duguna.....	5
Berriz konkistatu beharreko burujabetzak .....	5
C- Lurraldea: ekintzarako eremu aproposena .....	7
Bi zangoak lurrera itzultzea.....	7
Munduko lurralde bakoitza babestea.....	7
Mundu mailako baitezpadako elkartasuna .....	8
D- Burujabetza jasangarria eta solidarioa: egin behar dena.....	8
1. Lurralde Alternatibak .....	10
I Neurriaren galtzea, lokiaren galtzea .....	10
1) Gutaz dugun ikuspegi deslokalizatua.....	10
2) Erabaki politikoen zentralismoa.....	10
3) Ekonomiaren globalizazioa .....	10
II Lurrera itzultzea, lurraldera itzultzea.....	11
1) Gutaz dugun ikuspegia birtokiratzea.....	11
2) Paradigmaz aldatzeko lurraldean bermatzea .....	12
3) Erabaki politikoak eta finantza-gaitasuna birtokiratzea .....	12
III Lurraldearen birjabetzea.....	13
1) Beheretik hastea .....	13
2) Udalerriko ondasunak .....	13
3) Lurraldeen arteko loturak trinkotzea .....	14
4) Finantza tresnak.....	14
2. Laborantza, ura, elikadura.....	15
I Laborantza, erronka guzien bidegurutzean .....	15
1) Lur emankorrak mehatxatuak.....	15
2) Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura: falta den katebegia .....	15
3) Ekoizpenen desoreka.....	16
4) Eguraldi gorabeheretikiko ahulezia.....	16



II. Elikadura burujabetza: biztanleria zaintzen duen laborantza, laborantza zaintzen duen biztanleria.....	16
1) Hemengo ekoiztu.....	16
2) Bertan erosi .....	17
3) Lur salmentak kolektiboki zaintzea.....	17
4) Iraupen gaitasuna sortzea .....	17
III Hurbiltasunean da bideragarritasuna.....	17
1) Laborantzarekiko jendearen atxikimendua .....	17
2) Etxalde bizitza trinkotzea.....	18
3) Hirien inguruko bizilekuak berriz biziartzea.....	18
IV Obratze praktikoa.....	18
1) Lurra.....	18
2) Zuhaitzak, ezinbesteko elementua.....	18
3) Ekoizpena eta kontsumoa birlotzea.....	19
4) Ekoizpenen dibertsifikazioa .....	19
5) Hiriondoko eremua biziberritzea.....	19
3. Garraio eta mugikortasun iraunkorra.....	20
I Hyper-mugikortasuna: askatasuna ala alienazioa? .....	20
1) Sozialki eta geografikoki bidegabeko ereduak.....	20
2) Galbide ekonomiko bat .....	21
3) Ingurumenarekiko eta osasunarentzako izigarriko eragina.....	21
II Gizartearen antolaketa berriz pentsatu mugikortasuna murrizteko .....	22
1) Espazioa eta bizi eremuak egituratzeko baliabide instituzionalak hartzea .....	22
2) Usaien aldatzen laguntzea .....	23
3) Turismoa berriz gogoetatzea .....	23
III Mugikortasunak karbono-gabetu.....	24
1) Zinezko garraio intermodal politika bat garatzea.....	24
2) Tokian dagoen trenbide sarea sendotu.....	24
3) Mugikortasun aktiboetarako ibilbideak segurtatzea.....	25
4) Txirrindulako bide gastuen ordainsaria emendatzea.....	25
4. Neurritasuna.....	26
I Kontsumo gizartea: eredu jasangaitz eta bidegabea .....	26
1) Gure kontsumoaren ezinbesteko murrizketa.....	26
2) Kontsumoa, eritasun mental kolektiboa? .....	26
3) Gaur egungo ereduak ez da gai ingurumen erronkak eta justizia soziala uztartzeko.....	27
4) Elkartasuna sortu hein lokaletik internazionalera. ....	27

5) Berrikuntza teknologikoa: baitezpadako laguntza, baina eskasa .....	28
II Neurritasuna, ikuspegi berria gure usaiei begira .....	28
1) Neurritasun energetikoa .....	28
2) Neurritasuna, Euskal Herriaren eskalan deklinatzekoa den nozioa .....	28
3) Beroketa klimatikoa eta prekarietatearen kontrako borroka elkarri lotzea .....	29
4) Balore eskalaz alda dezagun! Askatasun urraspidea, elkarrekin eraikitzekoa ..	29
III Gure oinarriko beharren eragina mugatzea .....	30
1) NegaWatt 2017-2050 eszenarioaren lehentasunen ordena jarraitzea .....	30
2) Eszenarioa alor guzietan deklinatzea .....	30
3) Euskal Elkargoak eta beste lekuko kolektibitateek helburu hauen zerbitzuko izan behar dute .....	31
4) Neurritasuna eta eraginkortasuna, lurraldearentzako politika onuragarria eta bidezkoa.....	31
5. Berrerabiltzea, konpontzea eta birziklatzea .....	32
I Ekonomia lineala, eredu absurdua eta zaharkitua.....	32
1) Agindu hirukoitza: ustiatu/kontsumitu/bota.....	32
2) Hondakinen tratamendua, aterabide faltsua .....	32
3) Lanaren zentzuari eta antolaketari buruz galdekatzea.....	33
II Ekonomia zirkularra .....	33
1) Ekonomia zirkularraren oinarriak .....	33
2) Lehentasuna hondakinak sortzearen prebentzioari .....	34
3) Lurralde ekonomia eta kooperazioa logika .....	34
4) Maila guzietan eman behar den mobilizazioa .....	35
III Aukera bat eta urgentzia bat Euskal Herriarentzat .....	35
1) Onura anitz .....	35
2) Berrerabiltzea tratatzen duten oztopoak kentzea.....	36
3) Konponketa tratatzen duten oztopoak kentzea.....	36
4) Hondakinen kudeaketaren eragina mugatzea.....	37
6. Komunalak, elkartasuna eta partekatzea.....	38
I Gizarte jasanezina .....	38
1) Nazioartetik bertan behera uztea .....	38
2) Tokikoa bertan behera uztea.....	39
II Elkartasuna berriz sortzea tokikoa birkonektatuz.....	40
1) Nazioartetako elkartasuna .....	40
2) Komunalak birsortu.....	40
III Konkretuki.....	40
1) Birbanaketa.....	41
2) Nazioarteko elkartasuna .....	41

3) Tokiko elkartasuna .....	42
4) Jendeen beharrei erantzuten dien ekonomia.....	42
7. Ekofeminismoa: bidezko ekonomia jasangarri batera .....	43
I Ekonomia modernoan, emazteen menderatzearen eta izadiaren suntsipenaren erro amankomunak .....	43
1) Dohainik eta ezagutu gabeko ustiapena.....	43
2) Ustiapen itsu honek biziaren berriztapena arriskuan ezartzen du .....	44
3) Lehen biktimak: emakumeak, bereziki txiroenak .....	45
II Ongi bizitzeari bere tokia berriz ematen dion ekonomia.....	45
1) Genero justizia integratzea .....	45
2) Ekodependentzia integratzea .....	46
3) Elgarren menekotasuna integratzea.....	46
4) Ekonomia-eredu etiko bat bermatzea.....	46
III Mundu mailako arazoa, lurralde mailako erantzunak .....	46
1) Aztarna ekologiko bideragarri batera itzuli.....	46
2) Zaintza lana aintzat hartu, ezagutu eta bideragarri egin.....	47
8. Birtokiratzea.....	48
I Birtokiratzea, gure burujabetzen berrirabaztea .....	48
1) Birtokiratzea gure garapenaren eragile (berriz) bilakatzeko .....	48
2) Eremu guziak hunkitu behar dituen birtokiratzea .....	48
3) Birtokiratzea erresilentzia gehiago izateko .....	49
4) Birtokiratze irekia.....	50
II Birtokiratzea, orain!.....	51
1) Uniformizazioaren kontra borrokatzea.....	51
2) Birtokiratzearentzat neurri instituzional egokiak eskatzea.....	51
3) Manatze publikoa hurbileko zirkuitu laburren zerbitzuko ezartzea .....	52
4) Saltegi handien hegemoniaren aurka borrokatzea.....	52
5) Gune kolaboratiboak laguntzea .....	53
III Euskoa, birtokiratzearen aldeko tresna garrantzitsua.....	53
1) Moneta gureganatzea.....	53
2) Ulertu eta jardun.....	53
3) Borroka kolektiboa .....	53
9. Energia berriztagarriak.....	55
I Kontsumoaren adura berriz harraraztea eta lurraldera birkonektatzea .....	55
1) Energia kontsumo arduragabea .....	55
2) Iparraldean, ageriko nahikundeak bainan egoera kezkarria .....	56

3) Aitzinatze posible garrantzitsuak .....	56
II Institutzioak burujabetza energetikoaren zerbitzuko ezartzea .....	57
1) Neurritasuna hasteko!.....	57
2) Gure energia burujabetza berreskuratzea .....	57
3) Erakundeak jokoan dagoenera egokitzea .....	58
III Hiritar energiaren alde borrokatzea.....	59
1) Hiritarren baitezpadako partehartzea .....	59
2) Alternatiba sinesgarria.....	59
3) Kooperaziozko hausturaren logika.....	60
4) I-ENER eta Enargia, aterabidea gure esku!.....	60
5) Talde borroka zaila baina erabakigarria .....	60



A series of horizontal lines for writing, starting with a margin line below the pen icon and followed by numerous evenly spaced lines filling the page.



A series of horizontal lines for writing, starting with a margin line below the pencil icon and followed by many more lines down the page.



A series of horizontal lines for writing, starting from the top right of the pen icon and extending across the width of the page. The lines are evenly spaced and cover the majority of the page's vertical space.

**Bizi**  
**Cordeliers karrika, 20 64100 Baiona**  
**Tlfnoa: 05 59 25 65 52 - [info@bizimugi.eu](mailto:info@bizimugi.eu) [www.bizimugi.eu](http://www.bizimugi.eu)**  
** [@bizimugi](https://twitter.com/bizimugi)  [bizimugimendua](https://www.facebook.com/bizimugimendua)**